96.2.2. 438/2006 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, maisu-maistren zenbait lanpostu kendu eta lanpostu ibiltariko izendapena duten maisu-maistra batzuk ikastetxeko lanpostuetara atxikitzen dituena. (NAO 50. zk., 2006ko apirilaren 26koa).

97. 130/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 31koa, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko maisu-maistren lanpostuak betetzeko deialdiak onesten dituena. (NAO 24. zk., 2006ko otsailaren 24koa).

98. 136/2006 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez onesten dira Hezkuntza Departamentuaren menpean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Arte eta Hizkuntza ikasketak ematen dituzten ikastetxeen plantillak eta, horrez gain, 2005/2006 ikasturteko deialdian irakasleak banatu eta lanpostuak betetzeko prozeduran izanen diren lanpostu hutsen zerrenda. (NAO 28. zk., 2006ko martxoaren 6koa).

98.1 137/2006 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Arte eta Hizkuntza ikasketetako irakasleen Kidegoetako funtzionarioak banatu eta lanpostuak betetzeko deialdia onesten duena.

99. 531/2006 EBAZPENA, apirilaren 24koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez onesten dira 22 irakasle lanpostu zerbitzu eginkizunetan betetzeko deialdiaren arauak. Irakasle horiek parte hartuko dute ikasle atzerritar asko eta egoera sozial eta kultural behartuan dauden gutxiengoetako ikasle asko dituzten ikastetxeetarako Laguntza Programetan, eta lanpostu horiek Maisu-maistren Kidegoko langileek beteko dituzte. (NAO 56. zk., 2006ko maiatzaren 10ekoa).

100. 900/2006 EBAZPENA, ekainaren 9koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez, ondoko oposizio-lehiaketarako deialdia onesten da: Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko maisu-maistren kidegokoak izanik, Psikologia eta

Pedagogia espezialitateko behin betiko lanpostuak, merezimendu lehiaketa irekiaren bidez lortuak, betetzen dituzten funtzionarioekin Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Psikologia eta Pedagogia espezialitateko 7 lanpostu txanda berezian betetzeko. (NAO 90. zk., 2006ko uztailaren 28koa).

101. 793/2006 EBAZPENA, abuztuaren 3koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako eskualdeetan behin betiko destinoa izanik Hezkuntza Departamentuan funtzionario lanetan ari diren zainzaileen barne mugikortasunerako prozedurarako jarraibideak onesten dituena. (NAO 100. zk., 2006ko abuztuaren 21koa).

1.1.4.5. Irakasleen prestakuntza

102. 933/2005 EBAZPENA, urriaren 18koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez onesten da irakasleen prestakuntza jardueretarako banakako laguntza ekonomikoen deialdia, 2005/2006 ikasturteari dagokiona. (NAO 135. zk., 2005eko azaroaren 11koa).
103. 185/2006 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikastetxeen Estatuko Erregistroan ageri diren ikastetxeetako atzerriko hizkuntzetako irakasleendako prestakuntza-ikastaroak egiteko laguntzetarako dei egiten duena. (NAO 35. zk., 2006ko martxoaren 22koa).
104. 1194/2005 EBAZPENA, azaroaren 28koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Europar Batasunaren Sokrates programako ekintza deszentralizatuertarako laguntzen deialdia egiten duena: Comenius 1: Mugaz gaindiko eskola elkarteak: 1.1. Eskola proiektuak, 1.2. Hizkuntza proiektuak, 1.3. Eskola garapenerako proiektuak; Hizkuntza-laguntzaileak ikastetxeetan hartzea, Comenius; Comenius 2.2: Prestakuntzarako banakako bekak: 2.2.A Hasierako prestakuntza, 2.2.B Hizkuntza-laguntzaileak, 2.2.C Praktiketako ikastaroak (irakasleen prestakuntza etengabea); Grundtvig 2: Ikaskuntza elkarteak, Grundtvig 3: Irakasleen prestakuntzarako mugikortasuna; Arion: Ikasketa xede duten egonaldiak, 2006ko ekainaren 1etik 2007ko uztailaren 31ra bitarte egin beharrekoak, Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza arloko erabakiak hartu behar dituzten arduradunentzat. (NAO 153. zk., 2005eko abenduaren 23koa)²⁵
- 104.1 1008/2005 EBAZPENA, urriaren 27koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean 2005-2006 ikasturteko Sokrates Programaren bigarren aldiko ekintza

²⁵ Ikus 1.2.2.3.6 epigrafeko aipamena.

deszentralizatueterako deialdiak bukatutzat ematen dituena. (NAO 142. zk., 2005eko azaroaren 28koa).

105. 1020/2005 EBAZPENA, azaroaren 3koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2006ko urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra doan tarterako Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe publikoetan atzerriko hizkuntzen mintzapraktikako laguntzaile izateko, gehienez ere 50 bekatarako deialdia egiten duena. (NAO 139. zk., 2005eko azaroaren 21ekoa).
106. 323/2006 EBAZPENA, martxoaren 28koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, ikasketak egiteko zortzi lizentzia emateko deialdia onesten duena. Lizentzia horiek 2006/2007 ikasturterako dira eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari atxikitako langile finkoendako. (NAO 49. zk., 2006ko apirilaren 24koa).
- 106.1 430/2006 EBAZPENA, maiatzaren 5koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiaren martxoaren 28ko 323/2006 Ebazpenean atzemandako akatsa zuzentzea baimentzen duena. (NAO 61. zk., 2006ko maiatzaren 22koa).

1.1.4.6. Irakasleak / unitate itundua ratioak (Ez da araudirik landu)

1.1.4.7. Itun sindikalak

107. 2005eko azaroaren 10eko ERABAKIA, irakaskuntza pribatu hitzartuko irakasleei buruzkoa (BOE: Ez da argitaratu).
108. 1087/2005 EBAZPENA, azaroaren 30ekoa, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko Lan zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko "Irakaskuntza pribatu itundua" sektorerako lan itun kolektiboa erregistratu, gorde eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea erabakitzen duena (espediente zenbakia: 5/2005-L). (NAO 153. zk., 2005eko abenduaren 23koa).
109. 2006ko apirilaren 10eko EBAZPENA, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, Araubide Orokorrean edo Irakaskuntza Arautuan inolako hitzarmenik edo diru-laguntzarik ez duten Ikastetxe Pribatuen VIII. Hitzarmen Kolektibo Nazionala erregistroan inskribatzekoa eta argitaratzekoa (BOE, 2006ko apirilaren 26koa).²⁶

²⁶ Ikus 1.2.1.2.2 epigrafeko aipamena.

110. 2006ko maiatzaren 5eko EBAZPENA, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, ezintasuna duten pertsonen arreta emateko ikastetxeen eta zerbitzuen XII Hitzarmen Kolektibo Orokorra erregistroan inskribatzekoa eta argitaratzekoa. (BOE 152. zk., 2006ko ekainaren 27koa).

1.1.5. Irakaskuntzak

111. 660/2005 EBAZPENA, uztailaren 5ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Bigarren Hezkuntzako institutu eta ikastetxeetako ikasle atzerritarrei gaztelania irakasteko Hizkuntzan Murgiltzeko Programaren antolaketa eta funtzionamendua 2005-2006 ikasturtean arautuko dituzten jarraibideak ematen dituena.. (NAO 109. zk., 2005eko irailaren 12koa).

1.1.5.1. Eskolaurrea eta Haur Hezkuntza

112. 811/2005 EBAZPENA, irailaren 13koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Haur Hezkuntzako etapan Gaztelania, D ereduko Euskara, A ereduko Euskara eta Matematika irakasgaien errendimendu adierazleak ezartzen dituena. (NAO 118. zk., 2005eko urriaren 3koa).²⁷

1.1.5.2. Lehen Hezkuntza (Ez da araudirik landu)

1.1.5.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

113. 673/2006 EBAZPENA, ekainaren 27koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, hobekuntza arloak ezartzen dituena, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduek beren hobekuntza plana egin dezaten. (NAO 100. zk., 2006ko abuztuaren 21ekoa).²⁸

1.1.5.4. Batxilergoa (Ez da araudirik landu)

1.1.5.5. Lanbide Heziketa

²⁷ Ikus 1.2.2.4.3 epigrafeko aipamena.

²⁸ Ikus 1.2.2.2 epigrafeko aipamena.

- I 14. 1087/2005 ERREGE DEKRETUA, irailaren 16koa, prestakuntza profesionalen katalogo nazionalen txertatu beharreko prestakuntza berriak nahiz lanbide heziketako moduluen katalogoan txertatu beharreko prestakuntza moduluak ezartzen dituena, eta otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretuan ezarritako zenbait prestakuntza profesional eguneratzen dituena (BOE 238. zk., 2005eko urriaren 5ekoa).
- I 15. 131/2005 FORU DEKRETUA, urriaren 17koa, otsailaren 13ko 31/1995 Foru Dekretua indargabetzen duena. Horren bidez Nafarroako Foru Komunitatean Lanerako Lanbide Prestakuntza edo Jarraitua berrantolatu zen. (NAO 132. zk., 2005eko azaroaren 4koa).
- I 16. 207/2006 EBAZPENA, martxoaren 2koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak apirilaren 26an emandako 358/2005 Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bitartez, goi mailako lanbide heziketaren zikloetan sartzeko probetarako prestakuntza ikastaro esperimentalak ezarri zen 2005-2006 ikasturterako, lanbide heziketako ikasketetan teknikari titulua lortu duten ikasleei begira. (NAO 39. zk., 2006ko martxoaren 31koa).
- I 16.1 286/2006 EBAZPENA, martxoaren 21ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Goi mailako lanbide heziketaren zikloetan sartzeko probetarako prestakuntza ikastaro esperimentalak ezartzen du 2006-2007 ikasturterako, lanbide heziketako ikasketetan teknikari titulua lortu duten ikasleei begira. (NAO 56. zk., 2006ko maiatzaren 10ekoa).

1.1.5.6. Erljioa eta Hezkuntza Jarduera Antolatua (Ez da araudirik landu)

1.1.5.7. Erregimen bereziko irakaskuntzak

- I 17. 846/2005 EBAZPENA, irailaren 20koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak maiatzaren 19an emandako 461/2005 Ebazpeneko akatsak zuzentzen dituena. Ebazpen horren bidez, Foru Komunitateko goi mailako musika ikastetxeetako goi mailako musika ikasketen aukerako irakasgaiak arautu eta ezarri eta "Pablo Sarasate" Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioarentzat onetsi diren aukerako irakasgaiak jakinarazi ziren. (NAO 121. zk., 2005eko urriaren 10ekoa).

²⁹ Ikus 1.2.2.4.5 epigrafeko aipamena.

118. 1234/2005 EBAZPENA, abenduaren 1ekoa, Hezkuntza Departamentuko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetan ematen diren hizkuntza ikasketen ziurtagiria lortzeko probak prestatu eta aplikatzeko prozedura arautzen duena, eta 2005-2006 ikasturtean proba horiek koordinatzeko batzordea ezartzen duena. (NAO 2. zk., 2006ko urtarrilaren 4koa).²⁹
119. 557/2006 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatoriorako onesten diren goi mailako musika ikasketetarako hautazko irakasgaien berri ematen duena. (NAO 87. zk., 2006ko uztailaren 21ekoa).

1.1.5.8. Helduen irakaskuntza

120. 689/2005 EBAZPENA, uztailaren 12koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren zuzeneko modalitatean I., II., eta III. mailako ikasketak eta urrutiko modalitatean III. mailakoak 2005-2006 ikasturterako garatzeko jarraibideak onesten dituena. (NAO 108. zk., 2005eko irailaren 9koa).³⁰
- 120.1 753/2006 EBAZPENA, uztailaren 19koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren zuzeneko modalitatean I., II., eta III. mailako ikasketak eta urrutiko modalitatean III. mailakoak 2006-2007 ikasturterako garatzeko jarraibideak onesten dituena. (NAO 101. zk., 2006ko abuztuaren 23koa).³¹
121. 69/2006 EBAZPENA, otsailaren 2koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean 18 urtez gorako pertsonen Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua zuzenean eskuratzeko proba libreterako deialdia egiten duena. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).
122. 482/2006 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arautzen da, 2006-2007 ikasturterako, lanean ari diren langileei zuzendutako lanbide heziketaren eskaintza, berriazko lanbide heziketako tituluak lortzen laguntzeko. (NAO 65. zk., 2006ko maiatzaren 31koa).

1.1.5.9. Eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak

³⁰ Ikus 1.2.2.4.6 epigrafeko aipamena.

³¹ Ikus 1.2.2.4.7 epigrafeko aipamena.

123. 1071/2005 EBAZPENA, azaroaren 15ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikaste-
txeetan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak egiten ari diren ikasleendako
165 postutarako, gehienez, deialdia egiten duena, "Eskola Ibiltariak 2006"
izeneko programan parte har dezaten, eta Nafarroako ibilbidea egitera bes-
te erkidegoetatik etortzen diren taldeen ostatua eta mantenua finantzatze-
ko 26.000,00 euroko gastua baimentzen duena. (NAO 145. zk., 2005eko
abenduaren 5ekoa).
- 123.1 1363/2005 EBAZPENA, abenduaren 29koa, Eskola eta Lanbide Irakas-
kuntzaren zuzendari nagusiak emana, "Eskola ibiltariak" programan par-
te hartzeko eskaerak aurkezteko epea aldatzen duena. Programarako
deia azaroaren 15eko 1071/2005 Ebazpenaren bidez egin zen eta
2005eko abenduaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.
(NAO 6. zk., 2006ko urtarrilaren 13koa).
- 123.2. 295/2006 EBAZPENA, martxoaren 21ekoa, Eskola eta Lanbide Irakas-
kuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean
2006. urteko Eskola Ibiltarien Programan parte hartzeko deialdia ebatzi
eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren laguntzak ordaintzeko agindua
ematen duena. Deialdia 1071/2005 Ebazpenaren bidez onetsi zen. (NAO
51. zk., 2006ko apirilaren 28koa).
124. 89/2006 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren
zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkun-
tzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Lanbide
Heziketa ematen duten ikastetxe pribatuetan 2006. urtean eskolaz kanpo-
ko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdia onesten
duena. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).
- 124.1 617/2006 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Hezkuntza Departamentuko
Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafa-
rroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa, Lehen
eta Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxe
pribatuetan 2006. urtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osa-
garriak egiteko laguntzen deialdia ebazten duena. (NAO 92. zk.,
2006ko abuztuaren 2koa).
125. 90/2006 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren
zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkun-
tzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen du-
ten ikastetxe publikoetan 2006. urtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jar-
duera osagarriak egiteko laguntzen deialdia onesten duena. (NAO 31. zk.,
2006ko martxoaren 13koa).

125.1 592/2006 EBAZPENA, ekainaren 12koa, Hezkuntza Departamentuko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako 2. zikloa, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza ematen duten ikastetxe publikoetan 2006. urtean eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak egiteko laguntzen deialdia ebazten duena. (NAO 91. zk., 2006ko uztailaren 31koa).

1.1.6. Ikasleak

1.1.6.1. Onarpen-arauak

126. 533/2006 EBAZPENA, maiatzaren 25ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2006-2007 ikasturtean Lanbide Hastapeneko Programetan (Lanbide Lantegietan) ikasleak onartzeko arauak onesten dituena. (NAO 71. zk., 2006ko ekainaren 14koa).

127. 24/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 24koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, udalen titulartasuna eta Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen arteko lankidetzaren hitzarmen bidezko finantzabidea izanik, 0-3 urte bitarteko haurrentzako ikastetxeetan 2006/2007 ikasturtean haurrak onartzeko prozedura arautzen duena. (NAO 18. zk., 2006ko otsailaren 10ekoa).

128. 133/2005 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Arautzen ditu diru publikotik ari diren irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Erdi Mailako Heziketa Zikloetako eta Goi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleak 2006/2007 ikasturtean onartzeko prozedurari buruzko arauak. (NAO 35. zk., 2006ko martxoaren 22koa).

129. 154/2006 EBAZPENA, otsailaren 21ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen diru publikoarekin sostengatutako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 2006-2007 ikasturtean ikasleak onartzeko arauak onesten dituena. (NAO 35. zk., 2006ko martxoaren 22koa).

130. 131/2006 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Berariazko Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoen eta Diseinuaren Irakaskuntzako erdi eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko probak, I. eta III. mailako kirol irakaskuntzako heldutasun

³² Ikus 1.2.2.5.1 epigrafeko aipamena.

probak eta gaitasun artistikoaren proba egiteko deialdia egiten duena. (NAO 28. zk., 2006ko martxoaren 6koa).

131. 46/2006 FORU AGINDUA, apirilaren 27koa, Hezkuntza kontseilariak emana, 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko proba arautzen duena. (NAO 68. zk., 2006ko ekainaren 7koa)²²
132. 708/2006 EBAZPENA, uztailaren 4koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, erdi eta goi mailako Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntzako heziketa zikloetan sartzeko Gaitasun Artistikoaren proba egiteko deialdia egiten duena. (NAO 92. zk., 2006ko abuztuaren 2koa).
133. 429/2006 EBAZPENA, maiatzaren 2koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2006/2007 ikasturtean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan goi mailako musika ikasketak egiteko sarrera proben deialdia egiten duena. (NAO 59. zk., 2006ko maiatzaren 17koa).

1.1.6.2. Zerbitzuak

1.1.6.2.1. Garraioa

134. 615/2006 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2006/2007 ikasturtean eskola garraioak izan behar duen funtzionamendu eta antolaketako jarraibideak ematen dituena. (NAO 93., zk., 2006ko abuztuaren 4koa).

1.1.6.2.2. Jangela

135. 627/2006 EBAZPENA, ekainaren 20koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Horren bidez, jantoki baimenduen zerrenda ezagutzera eman eta 2006-2007 ikasturterako tarifak eta kuotak onesten dira. (NAO 92. zk., 2006ko abuztuaren 2koa).

1.1.6.3. Sustapena eta laguntza pertsonalak

136. 1070/2005 EBAZPENA, azaroaren 15ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2005-2006 ikasturtean goi graduiko musika ikasketak egiteko beken deialdia onesten duena. (NAO 144. zk., 2005eko abenduaren 2koa).
- 136.1 46/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa, Nafarroako Gobernu Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2005/2006 ikasturtean musikako goi mailako ikasketak egiteko beken deialdia ebazten duena (azaroaren 15eko 1070/2005 Ebazpena)..(NAO 19. zk., 2006ko otsailaren 13koa).

137. 329/2005 EBAZPENA, martxoaren 30ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, erdi eta goi mailako ikasketak egiteko Beka eta Laguntzen 2005/2006 ikasturteko Deialdi Orokorra behin-behinekoz ebazten duena. (NAO 54. zk., 2006ko maiatzaren 5ekoa).
- 137.1 684/2005 EBAZPENA, ekainaren 28koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, maila ertain eta unibertsitarioetarako 2006/2007 ikasturteko beken deialdi orokorra onesten duena. (NAO 93. zk., 2006ko abuztuaren 4koa).
138. 712/2005 EBAZPENA, uztailaren 29koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan testuliburuak erosteko, 2005/2006 ikasturteko laguntzetarako deialdia onesten duena. (NAO 105. zk., 2005eko irailaren 2koa).
139. 552/2006 EBAZPENA, ekainaren 6koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, zuzendari nagusi berak maiatzaren 11n emandako 460/2006 Ebazpena indargabe uzten duena. Haren bidez, 2005/2006 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan testuliburuak erosteko beka eta laguntza deialdia behin-behinekoz ebatzi zen. Bidenabarrean, 2005/2006 ikasturtean Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan testuliburuak erosteko beka eta laguntza deialdia berriz ebazten da behin-behinekoz. (NAO 73. zk., 2006ko ekainaren 19koa).
- 139.1 929/2005 EBAZPENA, urriaren 18koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan testuliburuak erosteko, 2004/2005 ikasturteko laguntzetarako deialdia behin betikoz ebazten duena. (NAO 138. zk., 2005eko azaroaren 18koa).
140. 817/2005 EBAZPENA, irailaren 13koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Iruñeko "San Juan. zk., la Cadena" eta Tuterako "Monte San Julián" HLHIPetan, goizeko txandan, ingelesezko murgiltze ikastaroak egiteko diru-laguntzen deialdia ebazten duena, Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat. (NAO 119. zk., 2005eko urriaren 5ekoa).
- 140.1 117/2006 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako ikastetxeetan ingelesean murgiltzeko eguneko ikastaroen deialdia onesten duena, Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailako ikasleentzat. (NAO 27. zk., 2006ko martxoaren 3koa).
- 140.2 172/2006 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, ingeles barnetegietan murgiltze-

- ko ikastaroen deialdia onesten duena, Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako ikasleendako. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).
- 140.3 171/2006 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, ingeles barnetegietan murgiltze-ko ikastaroen deialdia onesten duena, Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleendako. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).
- 140.4 818/2005 EBAZPENA, irailaren 13koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2005eko udarako ingelesezko murgiltze ikastaroen deialdia ebazten duena, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Bigarren Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailetako ikasleentzat. (NAO 119. zk., 2005eko urriaren 5koa).
- 140.5 193/2006 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2005-2006 ikasturtean lehen hezkuntzako 5. mailako ikasleendako "Spring Break" udaberriari hizkuntzetan murgiltzeko programako deialdia onesten duena. (NAO 35. zk., 2006ko martxoaren 22koa).
141. 91/2006 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako ikastetxeetako Batxilergoko 1. mailako ikasleek, 2006ko udan, atzerrian ikastaroak egiteko deialdia onesten duena. (NAO 25. zk., 2006ko otsailaren 27koa).
142. 47/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzen 2005/2006 ikasturterako deialdia behin betikoz ebazten duena. (NAO 23. zk., 2006ko otsailaren 22koa).
- 142.1 752/2006 EBAZPENA, uztailaren 19koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzen 2006/2007 ikasturterako deialdia egiten duena. (NAO 99. zk., 2006ko abuztuaren 18koa).
143. 127/2006 EBAZPENA, otsailaren 14koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, zentzumenetan edo mugimenean ezgaitasunen bat izanik edo, sendagileen aginduz, etxean luzaro egon behar izanik, Nafarroako ikastetxeetan 2005/06 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondoko ikasketak arubide orokorrean egiten ari diren ikasleentzat ikasteko banakako laguntzen deialdia egiten duena. (NAO 35. zk., 2006ko martxoaren 22koa).
144. 697/2006 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Ebazpen honen bidez 2006-2007 ikasturte-

ko diru-laguntzen deialdia onetsi da, hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei laguntzeko. (NAO 104. zk., 2006ko abuztuaren 30ekoa).

144.l 1278/2005 EBAZPENA, abenduaren 7koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Haren bitartez, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea aplikatzearekin hizkuntza bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei 2005-2006 ikasturterako laguntzak emateko eta ordaintzeko baimena eman da. (NAO 153. zk., 2005eko abenduaren 23koa).

I.1.7. Ikasleen Gurasoen Elkarteak

145. I 124/2005 EBAZPENA, azaroaren 21ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarte eta federazioen aldeko laguntzetarako deialdia ebazten duen ekainaren 7ko 507/2005 Ebazpena aldatzen duena. (NAO 152. zk., 2005eko abenduaren 21ekoa).

145.l 87/2006 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako Ikasleen Gurasoen Elkarte eta Federazioen aldeko laguntzetarako 2006ko deialdia onesten duena. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).

145.l.l 632/2006 EBAZPENA, ekainaren 20koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen gurasoen elkarte eta federazioen aldeko laguntzetarako 2006ko deialdia ebazten duena. (NAO 93., zk., 2006ko abuztuaren 4koa).

146. 88/2006 EBAZPENA, otsailaren 7koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako Ikasleen Elkarten aldeko laguntzetarako deialdia onesten duena, 2006. urterako. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).

146.l 618/2006 EBAZPENA, ekainaren 15ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleen elkarteendako laguntzetarako 2006ko deialdia ebazten duena. (NAO 90. zk., 2006ko uztailaren 28koa).

I.1.8. Ebaluazioa

147. 449/2006 EBAZPENA, maiatzaren 5koa, Hezkuntza Departamentuko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2005-2006 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten duten ikasleen Oinarrizko Hezkuntzako Eskolatze Liburua betetzeko jarraibideak ematen dituena. (NAO 63. zk., 2006ko maiatzaren 26koa).

I.1.8.1. Orokorra

I.1.8.2. Hainbat sari

148. 727/2005 EBAZPENA, uztailaren 29koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Espainiako eta Ameriketako 2005eko Ortografiako VI. Lehiaketako ikastetxeen eta autonomia erkidegoen aldiatarako deia egiten duena Nafarroako Foru Komunitatean. (NAO 108. zk., 2005eko irailaren 9koa).

148.I 769/2006 EBAZPENA, uztailaren 21ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Espainiako eta Ameriketako 2006ko Ortografiako VII. Lehiaketako ikastetxeen eta autonomia erkidegoen aldiatarako deia egiten duena Nafarroako Foru Komunitatean. (NAO 99. zk., 2006ko abuztuaren 18koa).

149. 1051/2005 FORU AGINDUA, azaroaren 8koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez, Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan hizkuntza gaitasunak, matematikako gaitasunak eta Nafarroako geografia, historia eta kulturaren ikaskuntza hobetzearekin zerikusia duten berrikuntzen bidezko esperientzien eta irakaskuntzako beste esperientzia batzuen lehiaketarako arauak onesten dira. (NAO 148. zk., 2005eko abenduaren 12koa).

149.I 696/2006 EBAZPENA, ekainaren 30ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, azaroaren 8ko 1051/2005 Ebazpenari jarraikiz hezkuntza esperientzien lehiaketako sariak esleitzen dituena. (NAO 100. zk., 2006ko abuztuaren 21ekoa).

150. 1077/2005 EBAZPENA, azaroaren 15ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, heziketa zikloa 2004-2005 ikasturtean bukatu duten ikasleei Nafarroako Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzen sari bereziak emateko deialdia egiten duena. (NAO 152. zk., 2005eko abenduaren 21ekoa).

150.I 203/2006 EBAZPENA, martxoaren 2koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2004/2005 ikasturteari dagozkion Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako eta Arte

Plastikoetako eta Diseinuko Sari Bereziak banatzen dituen. (NAO 39. zk., 2006ko martxoaren 31koa).

151. 116/2006 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, 2004/2005 ikasturteari dagozkion Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko Sari Bereziak esleitzen dituen. (NAO 31. zk., 2006ko martxoaren 13koa).

151.1 674/2005 EBAZPENA, ekainaren 27koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko ikasketak 2005-2006 ikasturtean bukatu dituzten ikasleentzat antolaturiko Batxilergoko Sari Bereziatarako deialdia egiten duena. (NAO 92. zk., 2006ko abuztuaren 2koa).

1.1.9. Euskara

152. 203/2005 FORU AGINDUA, abenduaren 5ekoa, Hezkuntza kontseilariak emana. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) erdies-teko 2005ean egin ziren probak gainditu zituztenei agiri hori emateko bai-mena ematen du. (NAO 4. zk., 2006ko urtarrilaren 9koa).

152.1 1058/2005 EBAZPENA, azaroaren 8koa, Eskola eta Lanbide Irakas-kuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuaren Euska-raren Gaitasun Agiria (EGA) eskuratzeko azterketen egitura eta anto-laketa arautu, eta agiri hori eskuratzeko 2006ko deialdia onesten duena. (NAO 141. zk., 2005eko azaroaren 25ekoa).

153. 1104/2005 EBAZPENA, azaroaren 16koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntza-ren zuzendari nagusiak emana, euskal eremuko ikastetxe publikoek ahozko transmisiorako materialak euskararen tokian tokiko hizkeretan sortzeko la-guntzen deialdia baimentzen duena. (NAO 141. zk., 2005eko azaroaren 25ekoa).

154. 1308/2005 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Eskola eta Lanbide Irakaskun-tzaren zuzendari nagusiak emana, euskarazko Literaturaren, Etnografiaren ("Jose Maria Satrustegi"), Irakurketa eta Deklamazioaren ("Pedro Diez. zk., Ultzurrun") eta Bertso Paperen lehiaketetarako deialdiak onesten di-tuena. (NAO 15. zk., 2006ko otsailaren 3koa).

155. 1307/2005 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Eskola eta Lanbide Irakaskun-tzaren zuzendari nagusiak emana, euskarazko Eskola Antzerkiaren Topake-tetarako eta euskarazko Gazte Antzerkiaren Topaketetarako deia egiten duena. (NAO 17. zk., 2006ko otsailaren 8koa).

156. 29/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 24koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, euskararen irakaskuntzaren arloko berrikuntza proiektuentzako sarien deialdia egiten duena.(NAO 18. zk., 2006ko otsailaren 10ekoa).
157. 52/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, helduendako euskararen irakaskuntza sustatzen duten entitate pribatuei (euskaltegi eta gau-eskola pribatuei) 2006. urtean laguntzak emateko deialdia onesten duena. (NAO 21. zk., 2006ko otsailaren 17koa).
158. 68/2006 EBAZPENA, urtarrilaren 31koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, A, B eta D hizkuntz ereduak ematen dituzten Nafarroako ikastetxe publikoetan euskara sustatzeko jarduerak antolatzeko deialdia egiten duena. (NAO 30. zk., 2006ko martxoaren 10ekoa).
- 158.I 177/2006 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana, entitate pribatuek eskolan euskara sustatzeko jarduerak antolatzeko diru-laguntzen deialdia egiten duena. (NAO 36. zk., 2006ko martxoaren 24koa).
159. 334/2006 EBAZPENA, martxoaren 30ekoa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiak emana. Ebazpen honen bidez Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioko irakasleen Euskarazko Prestakuntzarako Planaren XXVI. deialdia, 2006-2007 ikasturtekoa, onetsi da. (NAO 49. zk., 2006ko apirilaren 24koa).

I.1.10. Unibertsitateak

160. 309/2005 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 18koa, atzerrian egindako goimailako ikasketak homologatzeko eta balioztatzeko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretua aldatzen duena (BOE 67. zk.,2005eko martxoaren 19koa).³³
- 160.I ECI/ 1519/2006 AGINDUA, maiatzaren 11koa, atzerrian egindako goimailako ikasketak homologatu aurretik bete beharreko prestakuntza eskakizunak zehazteko eta gauzatzeko irizpide orokorrak ezartzen dituena (BOE 119. zk., 2006ko maiatzaren 19koa).³⁴
161. ERABAKIA, 2005eko urriaren 24koa, Nafarroako Gobernuak hartua, 2006/2007 ikasturtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Tuterako

³³ Ikus 1.2.1.4.1 epigrafeko aipamena.

³⁴ Ikus 1.2.1.4.2 epigrafeko aipamena.

campusean Fisioterapiako unibertsitateko titulu ofiziala lortzeko ikasketak ezartzeko baimena ematen duena. (NAO 136. zk., 2005eko azaroaren 14koa).

162. 68/2006 EBAZPENA, martxoaren 29koa, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak emana, graduatu ondoko titulu ofizialak lortzeko irakaskuntzak 2006-2007 ikasturtetik aurrera Nafarroako Unibertsitate Publikoan ezartzeko proposamena behin betiko onesten duena. (NAO 70. zk., 2006ko ekainaren 12koa).

Foru Dekretuak

2005eko irailaren 1etik 2006ko abuztuaren 31ra Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailarekin erlacionatutako 6 Foru Dekretu onartu ditu guztira.

Foru Aginduak eta Ebazpenak:

2005eko irailaren 1etik 2006eko abuztuaren 31ra, honako Foru Agindu eta Ebazpen hauek onartu dira Hezkuntza Sailetik:

Jatorria	Foru Aginduak	Ebazpena
Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Orokorra	17	2
Idazkaritza Teknikoa	91	6
Ikasketa-zentroak eta -laguntzak	3	452
Lanbide Heziketa	1	269
Eskola Antolamendua eta Berrikuntza	9	443
Dibertsitate, Kultur aniztasun eta Immigrazioarako arreta	4	87
Euskara	1	112
Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak	-	75
Giza Baliabideak	25	3.037
Unibertsitate eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Orokorra	25	272

Iturria: Hezkuntza Saileko Idazkaritza Teknikoa.

1.2 Iruzkin legegileak³⁵

Epigrafe honetan MEC eta/edo Hezkuntza Sailak onartutako eta argitaratutako zenbait arauri buruzko iruzkin legegileak barne hartu dira. Horien izaera dela eta, Hezkuntza Erkidegoak, osorik edo sektoreren batek, ezagutzea komeni da.

³⁵ Inolako iruzkinik egin ez den ataletan, iruzkin bat merezi duen arau orokorrik ez dagoela ulertu behar da.

³⁶ 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Lanbide Heziketakoa eta Kualifikazioena (BOE, 2002ko ekainaren 20koa)

Arau hauek bi atal zabaletan sailkatu dira (araua eman duen Organo Legegileari edo Arautzaileari dagokion Administrazioaren arabera): Estatua alde batetik; Nafarroa bestetik. Atal edo multzo bakoitzean arauak antolatzeke orduan aurreko puntuan jarraitutako egitura errespetatu da.

1.2.1. Estatua

1.2.1.1. Zentroak

1.2.1.1.1 Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen oinarrizko baldintzak. Abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretua. (BOE, 312. zk., 2005eko abenduaren 23koa)

Arau hau ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren³⁶ 11.1 artikuluan eta 11.4 artikuluetan oinarritzen da. Ikastetxe integratuen helburua da biztanleria eskatzaileari, gazteei, lanean dauden langile aktiboek eta langabezia daudenei zuzendutako lanbide-heziketako eskaintzaren integrazioetik eratorritako prestakuntza-ekintzak garatzea. Autonomia, antolaketa-erako malgutasuna eta hezkuntza-eskaintza nahiz lan-munduaren beharrei erantzuteko gaitasuna programatzeko aldakortasuna ematen zaie.

Dekretuaren helburua da ikastetxe integratuen oinarrizko baldintzak zehaztea. Ikastetxe integratu gisa definitzen dira lanbide heziketako tituluak eta profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratze bidera egiten duten eta Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalan zerrendatuta dauden heziketa-eskaintza guztiak ematen dituzten horiek. Barruan hartuko dituzte hasierako lanbide-heziketa, langileak laneratzeko eta berriro laneratzeko ekintzak, eta prestakuntza iraunkorra. Gainera, lanbide-informaziorako eta –orientaziorako zerbitzuak ere eskainiko dituzte, eta ikaskuntza ez formalen bidez eta lan-esperientziaren bidez eskuratutako gaitasunak ebaluatuko dituzte.

Ikastetxeak publikoak edo pribatuak izan daitezke, eta diru-laguntzak nahiz bestelako laguntzak jaso ditzakete, baita hezkuntza-hitzarmenen araubidekoak ere.

Egungo ikastetxeak ikastetxe integratu bilakatzeko ezinbestekoa izango da, hezkuntza-administrazioaren mende dauden ikastetxeentzat, lan-administrazioaren baimena izatea, eta, alderantziz, lan-administrazioaren mende daudeneztat.

Ikastetxeen helburuak dira pertsonak bizitza osoan zehar gaitzea eta birgaitzea; pertsonak lan-eskarmentuaren bidez eta prestakuntza-bide ez formalen bidez eskuratutako gaitasun profesionalak ebaluatzen eta egiaztatzen laguntzea; lanbiderako informazio- eta orientazio-zerbitzuak eskaintzea; eta lankidetzarako espazio bat ezartzea.

Ikastetxe integratuen funtzioak zehazten dira, eta baita horiek baimentzeko beste behar dituzten baldintzak ere.

Ikastetxeei antolaketarako, pedagogiarako, kudeaketa ekonomiarako eta langileen kudeaketarako autonomia aitortzen zaie, eskuduna den Administrazioak ezarritakoari jarraiki. Ikastetxe horien ikuskapen-funtzioa hezkuntza-arloko nahiz lan-arloko administrazioei dagokie.

Gobernurako, parte-hartzerako eta koordinaziorako organoak zehazten dira. Zuzendaria izendapen librekoa izango da. Parte-hartze organoen osaera ondorengo proportzio hauen arabera izango da: heren bat administrazioko ordezkariak, beste heren bat ikastetxeen ordezkariak eta beste heren bat gizarte-eta sindikatu-elkarteetako ordezkariak. Organo bakoitzaren funtzioak adierazten dira.

Ikastetxe horietako irakasleak Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegokoak, Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak eta Toki Administrazioan Lanbide Prestakuntzarako Erdi-mailako funtzionarioak izango dira.

Kontratupeko adituak eta profesional kualifikatuak ere izan daitezke.

Arauren izaera oinarritzkoa da.

1.2.1.2 Pertsonala

1.2.1.2.1. Estatuaren Administrazio Orokorren zerbitzuan langileak sartzeko eta lanpostuak hornitzeko eta sustapen profesionala egiteko Araudi Orokorra aldatzen duen martxoaren 3ko 255/2006 Errege Dekretua (BOE, 54. zk., 2006ko martxoaren 4koa)

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak³⁷, bere 9. Xedapen Gehigarrian, xedatzen du genero-indarkeriaren biktima diren funtzionarioek lehentasuna izango dutela hutsik egonik eta hornitu beharra izanik antzeko ezaugarriak dituen gorputz edo eskala batean dauden lanpostuak eskuratzerakoan, gizarte-laguntza integralerako eta babeserako duten eskubidea benetan gauza dadin.

³⁷ 1/2004 Legea, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako babes integralerako neurriei buruzkoa (BOE, 313. zk., 2004ko abenduaren 29koa)

³⁸ Ministroen Kontseiluak 2005eko martxoaren 4an hartutako erabakia, zeinaren bidez Estatu Administrazio Orokorreko genero berdintasunerako plana ezartzen den (BOE, 57. zk., 2005eko martxoaren 8koa)

³⁹ 53/2002 Legea, abenduaren 30koa, zerga, administrazio eta gizarte arloko neurriei buruzkoa (BOE, 313. zk., 2002ko abenduaren 31koa). Akats-zuzenketa (BOE, 81. zk., 2003ko apirilaren 4koa)

⁴⁰ 364/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10koa, langileak estatuko administrazio orokorraren zerbitzura sartzeko eta lanpostuak hornitzeko nahiz Estatu Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen sustapen profesionalari buruzko araudi orokorra onesten duena (BOE, 1995eko apirilaren 20koa).

Bestalde, 2005eko martxoaren 4an onetsi zen genero-berdintasunaren aldeko Planak³⁸, bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeari dagokionez, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasun erreala lortzea eragozten duten oztopoak desagerrarazten ditu, zerbitzu publikora sartzera eta bertan lanpostuak betetzerakoan.

Gainera, abenduaren 30eko 53/2002 Legeak³⁹ funtzionario publikoen eta beren senitartekoen osasunak eta errehabilitazioak eragindako borondatezko mugikortasuna errazten du.

Martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuko⁴⁰ 70. artikulua aldatzen da, behin-behineko atxikipeneko lanpostu bat ez dadin izan eragozpen maila pertsonala finkatzeko, betiere eskakizun jakin batzuk betetzen direnean; nagusiki lanpostu hori edo maila bereko edo goragoko beste bat, ondoren, behin betiko izaeraz eskuratzea. Beste administrazio publiko batean emandako zerbitzu-denbora maila pertsonala finkatzeko konputatu behar dela ere argitzen da.

“Garatutako lana” merezimenduaren balorazio-kontzeptua argitzen da, lekualdatzeetarako lehiaketei dagokionez.

Azkenik, bitarteko funtzionario izaera duten lanpostuen edo aldi baterako lan kontratua duten langileen kasuan ez dagokien sektore publikoan zerbitzuak emateagatik borondatezko eszedentzia aitortzeko beharrezkoak diren egitatezko baldintzak zehazten dira.

Beraz, martxoaren 10eko 354/1995 Errege Dekretua ondorengo hauetan aldatzen da:

1. 44. artikuluko 1. ataleko c paragrafoa eta 2. atala aldatzen dira.
2. Testu berri bat eransten zaio 66. bis artikuluari.
3. Testu berri bat eransten zaio 66. ter artikuluari.
4. 70. artikuluko 6. eta 11. atalak aldatzen dira.

Gainera, martxoaren 10eko 365/1995 Errege Dekretuan⁴¹ 15. artikuluko 1. eta 3. atalak ere aldatzen dira.

Horien aurka dauden maila bereko edo txikiagoko beste xedapen oro ere indargabetzen da.

1.2.1.2.2. Ikastetxe Pribatuen VIII. Hitzarmen Kolektibo Nazionala. 2006ko apirilaren 10eko ebazpena. (BOE, 2006ko apirilaren 26koa)

⁴¹ 365/1995 Errege Dekretua, martxoaren 10ekoa, Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen egoera administratiboan araudia onesten duena (BOE, 1995eko apirilaren 10ekoa).

Hitzarmenak sei izenburu, hiru xedapen iragankor, xedapen gehigarri bat eta amaierako zortzi xedapen ditu.

I. izenburuan aplikazio eremuak (I. Kapituluak) ezartzen dira, salaketa, berrikuspena eta hitzarmenaren luzapena (II. Kapituluak), Batzorde Paritarioa (III. Kapituluak) eta lanaren antolaketa (IV. Kapituluak). Hitzarmenak 2009ko abenduaren 31 arte iraungo du, eta tazituki luzatzen joango da, urtero, bi hilabete lehenago berariazko salaketarik ez badago behintzat.

II. izenburua langileria buruzkoa da.

III. izenburuak lanaldia, oporraldiak, baimenak, eszedentziak eta erretiroa arautzen ditu. I. Kapituluak lanaldiari buruzkoa da; II. Kapituluak oporrei buruzkoa; III. Kapituluak gaixotasun-bajei eta baimenei buruzkoa; IV. Kapituluak prestakuntza eta trebakuntza pertsonalari buruzkoa; V. Kapituluak eszedentziei buruzkoa, eta VI. Kapituluak, berriz, erretiroei buruzkoa.

IV. izenburuak ordainsariak arautzen ditu. I. Kapituluak xedapen orokorrak ezartzen ditu; II. Kapituluak ordainsari-osagarriak eta produktibitatearen nahiz garaioaren ondoriozko plusak; eta III. Kapituluak, berriz, defizitarioak diren ikaste-txeentzako atzean gelditzeko klausula ezartzen du.

V. izenburua laguntza-araubideari buruzkoa da. I. Kapituluak laneko segurtasunari eta osasunari buruzko baldintzak ezartzen ditu; II. Kapituluak gizarte-hobekuntzak; eta III. Kapituluak, berriz, eskubide sindikalak.

VI. izenburuan hutsegiteak, zigorrak eta arau-hausteak zehazten dira. I. Kapituluak hutsegitei buruzkoa da, eta II. Kapituluak zigorrei buruzkoa.

1. xedapen iragankorra iraunkortasun-sariari buruzkoa da. 2. xedapen iragankorra irakaskuntzako ez den langile hezitzailearen parekatzeari buruzkoa da. Eta, 3. xedapen iragankorra, berriz, antzinatasun-osagarri zaharrari eta hori ordeztzen duen garapen profesionaleko osagarriari buruzkoa da.

I. xedapen gehigarriak garapen profesionaleko osagarria aipatzen du.

1. azken xedapenak Berregituratze-mahaiari buruzko konpromisoa jasotzen du. 2. azken xedapena Batzorde Teknikoen eraketari buruzkoa da. 3. azken xedapena osotasunari, zurgapenari eta eskuratutako eskubideei buruzkoa da. 4., berriz, erantzukizun zibileko aseguruari buruzkoa. 5. hitzarmenaren testua aldatzeari buruzkoa. 6. ETTko langileei buruzkoa. 7. soldata-bermearen klausulari buruzkoa. Eta 8. azken xedapena, berriz, testuaren hizkuntza sexistari buruzkoa.

1.2.1.3. Irakaskuntzak

⁴² Ikus 1.1.1. epigrafeko 3. zenbakia.

Aplikazio-egutegiaren eskema							
	Ondoko urte honen abendua baino lehen		Ikasturteak				
	2006	2007	2006/2007	2007/2008	2008/2009	2009/2010	2010/2011
Haur Hezkuntzako I. zikloa	Hezkuntza-erdiak eta ikastetxeen eskakizunak			Aurreratze aukera	Ezarpena		
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	Gutxieneko irakaskuntzak				Ezarpena		
Lehen hezkuntza				Ezarpena, 1. eta 2. mailak	Ezarpena, 3. eta 4. mailak	Ezarpena, 5. eta 6. mailak	
					Ebaluazioa Diagnosia	Ikaslearentzako ikaskuntza-txostena	
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza				Ezarpena, 1. eta 3. mailak	Ezarpena, 2. eta 4. mailak		
	831/03 Errege Dekretuaren arabeko ebaluazioa			Ebaluazio berria eta sustapena	Diagnosiaren ebaluazioa		
	831/03 Errege Dekretuaren arabeko titulazioa		Titulaziorako eskakizun berriak				
Curriculumaren dibertsifikazioa	Programen aplikazioa, 1/90 Lege Organikoaren arabera						
Hasierako kualifikazio profesionala	Lanbide Hastapenerako Programak			Aurreratze aukera	Ezarpena		
Batxilergoa	Unibertsitatera sartzeko probaren diseinua		Aurreko sarrera-probaren aplikazioa			Sarrera-proba	
					Ezarpena, 1. maila	Ezarpena, 2. maila	
Lanbide Heziketa	Aurreko sistema			Ezarpena			
					Sarbide berria		
Oinarrizko Musika eta Dantza Irakaskuntzak			Aurreratze aukera	Ezarpena			
Oinarrizko Musika eta Dantza Irakaskuntzak			Aurreratze aukera	Ezarpena, 1., 2., 3. eta 4. ikasturteak	Ezarpena, 5. eta 6. ikasturteak		
Diseinu eta Plastika Irakaskuntzak				Ezarpena, EM	Ezarpena, GM		
Arte Irakaskuntzen Goi-mailako Kons.	Eratzea, 07ko apirilera arte						
Hizkuntza Irakaskuntzak	Gutxieneko irakaskuntzak		Behin-behineko izaera duen ezarpen aurreratua, maila ertainean	Ezarpena, oinarrizko maila eta maila ertaina	Ezarpena, maila aurreratua		
Kirol irakaskuntzak	Antolaketa orokorra						
	Titulu berrien inguruko jarraibideak						
	Oinarrizko curriculumak						
	Gutxieneko eskakizunak						

	Ondoko urte honen abendua baino lehen		Ikasturteak				
	2006	2007	2006/2007	2007/2008	2008/2009	2009/2010	2010/2011
Helduen hezkuntza	DBH titulua lortzeko probak, 135/02 Errege Dekretuaren arabera				DBH titulua lortzeko probak		
					Batxilergo titulua eskuratzeko probak		
IGZ	Azterketak antolatzen jarraitu ahal izango dute, araudi berri bat ezartzen ez den bitartean.						

1.2.1.3.1 Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren aplikazio-egutegia. Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretua. (BOE, 167. zk., uztailaren 14koa)

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko⁴² 1. Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoa garatzen du. Ezarritako egutegiak lehentasuna ematen dio oinarriko hezkuntzaren hezkuntza-urratsak ezartzeari (Lehen Hezkuntza eta DBH). Arrazoizko malgutasun-marjina bat eskaintzen du, Haur Hezkuntza aurreratzeko, eta irakaskuntzen antolaketa akademikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua ebaluatzeari, sustatzeari eta eskuratzeari buruzko legearen aurreikuspenetara lotzen du. Curriculumaren dibertsifikaziorako programetan sartzeko eskakizunak aurreratzen ditu.

Legearen aplikaziorako denbora-eremua bost urtekoa izango da. Egutegia ondoko hau izango da:

Gainera, Errege Dekretuak Bigarren Hezkuntzako Graduatu tituluen, urriaren 3ko 1/1990 Legean⁴³ xedatutakoaren arabera igorritako Batxilergo tituluen eta maiatzaren 3ko 2/2006 Legearen arabera igorriko direnen arteko baliokidetzaz ezartzen du, ondorio guztietarako. Musikako eta dantzako oinarriko mailako

⁴³ 1/1990 Legea, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorri buruzkoa (BOE 238 zk., 1990eko urriaren 4koa)

⁴⁴ 827/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Hezkuntzaren Kalitatearen abenduaren 23ko 10/2002 Legeak ezarritako hezkuntza sistemaren antolaketa berria aplikatzeko egutegia ezartzen duena (BOE, 157 zk., 2003ko ekainaren 28koa).

⁴⁵ 1318/2004 Errege Dekretua, maiatzaren 28koa, aplikazio-egutegiari buruzko ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua aldatzen duena (BOE, 130 zk., 2004ko maiatzaren 29koa).

⁴⁶ 829/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Haur Hezkuntzako irakaskuntza komunak ezartzen dituen (BOE, 156 zk., 2003ko uztailaren 1ekoa).

⁴⁷ 830/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Lehen Hezkuntzako irakaskuntza komunak ezartzen dituen (BOE, 157 zk., 2003ko uztailaren 2koa).

⁴⁸ 831/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako antolakuntza orokorra eta irakaskuntza komunak ezartzen dituen (BOE, 158 zk., 2003ko uztailaren 3koa).

⁴⁹ 832/2003 Errege Dekretua, ekainaren 27koa, Batxilergoko antolakuntza orokorra eta irakaskuntza komunak ezartzen dituen (BOE, 159 zk., 2003ko uztailaren 4koa).

⁵⁰ 1741/2003 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, Batxilergoko proba orokorra arautzen duena (BOE, 19. zk., 2004ko urtarilaren 22koa).

ziurtagiriek beren ondorio guztiak mantentzen dituzte. Irakaskuntza artistikoen ikasketak amaitzeko aparteko mekanismoak ezartzen dira.

Baliokidetasun-taula batzuk ematen dira, amaitzen diren irakaskuntza artistikoen eta hizkuntza-irakaskuntzen ikasketen nahiz sortuko diren berrien artekoak, desagertutako ikasketetatik datozen ikasleak sartu ahal izateko. Ministerioari amaitzen den sistemaren ikasturteetatik sistema berriko ikasturteetara sustatzeko baldintzak arautzeko gaitasuna ematen zaio, aurreko horiek erabat gaindituta ez dauden kasuetarako.

Indargabetu egiten da ekainaren 27ko 827/2003 Errege Dekretua⁴⁴; maiatzaren 28ko 1318/2004 Errege Dekretua⁴⁵; ekainaren 27ko 829/2003 Errege Dekretua⁴⁶; ekainaren 27ko 830/203 Errege Dekretua⁴⁷; ekainaren 27ko 831/2003 Errege Dekretua⁴⁸; abenduaren 19ko 832/2003 Errege Dekretua⁴⁹; abenduaren 19ko 1741/2003 Errege Dekretua⁵⁰; urtarrilaren 23ko 118/2004 Errege Dekretua⁵¹; abenduaren 5eko 1538/2003 Errege Dekretua⁵²; ekainaren 18ko 1472/2004 Errege Dekretua⁵³; eta honen aurka dauden maila bereko edo txikiagoko beste xedapen oro.

Ministerioari Errege Dekretua garatzeko eta gauzatzeko gaitasuna emate zaio.

Arauk oinarritzko izaera du.

1.2.1.3.2 Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionaleko zenbait lanbide prestakuntza ezartzen dira. Otsailaren 20ko 295/2004 Errege Dekretua. (BOE, 59. zk., 2004ko martxoaren 9koa)

Ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak⁵⁴ lanbide-prestakuntzen eta lanbide-heziketaren sistema nazionala sortu zuen. Sistema horren tresna da lanbide-prestakuntzen katalogo nazionala. Katalogo hori 2003ko irailaren 5eko 1128/2003 Errege Dekretuan⁵⁵ arautu zen.

⁵¹ 118/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 23koa, Espezializazio Didaktikoko titulua arautzen duena (BOE, 30. zk., 2004ko otsailaren 4koa).

⁵² 1538/2003 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, hezkuntza ikuskapenerako oinarritzko espezialitateak ezartzen dituena (BOE, 225 zk., 2003ko irailaren 19koa).

⁵³ 1472/2004 Errege Dekretua, ekainaren 18koa, hezkuntza ikuskapenerako oinarritzko espezialitateak ezartzen dituen abenduaren 5eko 1538/2003 Errege Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarrian zehaztutako epea handitzekoa (NAO, 148 zk., 2004ko ekainaren 18koa).

⁵⁴ 5/2002 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, kualifikazioei eta lanbide heziketari buruzkoa (BOE, 2002ko ekainaren 20koa)

⁵⁵ 1128/2003 Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, lanbide-kualifikazioen katalogo nazionala arautzen duena (BOE, 223 zk., 2003ko irailaren 17koa).

⁵⁶ 1087/2005 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, kualifikazioen katalogo nazionalan txertatu beharreko kualifikazio profesional berriak ezartzen dituena, eta 295/2004 Errege Dekretuan ezarritako zenbait eguneratzen dituena (BOE, 238 zk., 2005eko urriaren 5ekoa).

Katalogo nazionalak lanbide heziketako eskaintzak integratzea ahalbidetzeko bali du, bizi osorako prestakuntza sustatzeko, langileen mugikortasuna bultzatzeko, lanbiderako ikaskuntza- eta heziketa-aukerei buruzko informazioa eta orientazioa eskaintzeko, eta lanbide-gaitasunak ebaluatzeko, aitortzeko eta egiaztatzeko prozedurak ezartzeko.

Arauk eranskin egokietan⁵⁶ lanbide-familien arabera erakusten diren prestakuntzak onartzen ditu. Horietako bakoitzetik, barruan hartzen dituzten moduluak zehazten dira, lanbide-heziketako modulu-katalogoan sartzeko.

Arauren izaera oinarritzkoa da.

⁵⁷ 1/1990 Lege Organikoa, urriaren 3koa, Hezkuntza Sistemaren Antolakuntza Orokorrari buruzkoa (LOGSE). (BOE, 1990eko urriaren 4koa). 42.3 artikulua: "...irakaskuntza horien goi-maila egoki egin duten horiek dagokien espezialitateko goi-mailako titulua eskuratzeko eskubidea dute; titulu hori, ondorio guztietarako, Unibertsitate Lizentziatu Tituluaren baliokide izango da".

⁵⁸ 1/90 Lege Organikoa. 4.7 Xedapen Gehigarria... Gobernuak lege honek ukitzen dituen gainerako tituluaren baliokidetasunak ezarriko ditu.

⁵⁹ 169/2004 Errege Dekretua, urtarrilaren 30ekoa, LOGSE aurreko dantza-ikasketa osoen eta LOGSEn arautzen diren goi-mailako dantza-ikasketen arteko baliokidetasuna eskuratzeko baldintzak ezartzen dituena, eta Dantzako goi-mailako titulua eskuratzeko prestakuntza-osagarriak ezartzen dituena (BOE, 38. zk., 04-02-13koa).

1.2.1.3.3. Urriaren 3ko 1/1990 Legea baino lehenagoko dantza-irakaskuntzen eta Lege horrek araututako dantza-irakaskuntzen arteko baliokidetzak eskuratzeko eskakizunak. Uztailaren 1eko 798/2005 Errege Dekretua. (BOE, 172. zk., 2005eko uztailaren 20koa)

Urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa, hezkuntza-sistema antolatzeak, 42.3 artikuluan⁵⁷, Dantzaren goi-mailako titulua ezartzen du. Gainera, hori ezartzekoan, unibertsitateko lizentziatura titularen baliokide gisa egiten du, ondorio guztietarako. Era berean, 4. Xedapen Gehigarriaren 7. atalean⁵⁸, Gobernuari legean ezarrita ez dauden arren legeak ukitzen dituen titulu horien baliokidetzak ezartzeko baimena ematen zaio.

Zentzu horretan, urtarrilaren 30eko 169/2004 Errege Dekretua⁵⁹ onetsi zen, baina bertan jasotako xedapenak ez diela egokiak ikusi da eta, horregatik, orain indargabetu egiten da, eta Errege Dekretu honek ordeztzen du.

Arauren xedea da, irakaskuntzaren ondorioetarako, 1/1990 Lege Organikoaren aurreko dantza-ikasketa ofizial osatuen eta lege honetan ezarri eta goi-mailako dantza-titulua eskuratzera daramaten ikasketen arteko baliokidetzak aitortzeko baldintzak eta eskakizunak arautzea.

Hemen xedatutakoa 1/1990 Legearen aurreko dantza folklorikoen, dantza espainiarraren, balet klasikoaren eta dantza garaikidearen ikasketa ofizial osoei aplikatzen zaie, horiek musika eta deklamazio kontserbatorioetan, musika kontserbatorioetan, arte dramatikoko eskoletan, arte dramatikoko eta dantzako eskoletan eta musika kontserbatorioetan ikasi direnean.

Baliokidetzak eskuratzeko, adierazitako ikasketak egiaztatu egin beharko dira; horretarako, adierazitako ikastetxeek igorritako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, eta ondorengo eskakizun hauetakoren bat bete beharko da: gutxienez 3 urtekoa izango den esperientzia, irakaskuntzan, 2002/2003 ikasturtea baino lehenagokoa, eta adierazten diren baldintzatan betetakoa, edo goi-mailako dantza kontserbatorio batean prestakuntza-osagarriak gainditzea.

Osagarri horiek ondorengo hauek dira:

Prestakuntza-osagarriak

Moduluak	Dantzaren pedagogia Metodologia eta didaktika Pedagogia Bilakaeraren eta hezkuntzaren psikologia	Koreografia eta interpretazio-teknikak Lengoala eszenikoa eta dramaturgia Koreografia Ekoizpen eta kudeaketa kulturala

⁶⁰ 1463/1999 Errege Dekretua, irailaren 17koa, dantzako goi-mailako irakaskuntzen curriculumeko oinarriko alderdiak ezartzen dituena, eta sarbide-proba arautzen duena (BOE, 223. zk., 99-09-29).

⁶¹ Ikus 58. zk.-ko oharra.

⁶² 798/2005 Errege Dekretua, uztailaren 1ekoa, LOGSE aurreko dantza-ikasketa osoen eta LOGSEn arautzen diren goi-mailako dantza-ikasketen arteko baliokidetasuna, irakaskuntzaren ondorioetarako, eskuratzeko baldintzak ezartzen dituena (BOE, 172. zk., 2005eko uztailaren 20koa)

Gai bakoitza ikasgaietan antolatuko da. Edukiak eta eskola-denborak irailaren 17ko 1463/1999 Errege Dekretuan⁶⁰ adieraziko dira.

Ikasleek modulu bat aukeratu behar dute, eta modulua osatzen duten gai bakoitzetik gutxienez ikasgai bat gainditu. 135 prestakuntza-ordu egin behar dituzte gutxienez. Lau deialdi izango dituzte bi ikasturteri dagokien modulua gainditzeko. Modulua gaindituta dagoela ulertuko da prestakuntza-orduak egiten badira eta hautatu eta egin diren ikasgaiak gainditzen badira. Zazpi urte daude, Errege Dekretua argitaratzen denetik kontaktzen hasita, prestakuntza-moduluak egiteko.

Baliokidetza helburu horrekin sortuko den balorazio-batzordeak xedatuko du, prestakuntza-moduluak egin dituzten horien kasuan izan ezik. Kasu horietan, baliokidetza hautatu den moduluen espezialitateari dagokiona izango da.

Urtarrilaren 30eko 169/2004 Errege Dekretua indargabetu egiten da.

1.2.1.3.4. 1/1990 Legea baino lehenagoko dantza-irakaskuntzen eta goi-mailako dantza-irakaskuntzen arteko baliokidetza eskuratzeko eskakizunak. Apirilaren 6ko 1082/2006 ECI Agindua (BOE, 89. zk., 2006ko apirilaren 14koa)

Gobernuak, urriaren 3ko 1/1990 Legeko⁶¹ 4. Xedapen Gehigarriaren 7. atalean xedatutakoaren arabera, legeak ukitzen dituen eta bertan ezarrita ez dauden tituluen arteko baliokidetzak ezartzeko ahalmena du. Uztailaren 1eko 798/2005 Errege Dekretuak⁶² 1/1990 Legearen aurreko dantza-ikasketa osoen eta lege horretan araututako goi-mailako dantza-ikasketen arteko baliokidetzak ezarri zituen irakaskuntzaren helburuetarako.

Beraz, baliokidetzaren aitortpena eskuratzeko prozedura ezartze da, balorazio-batzordearen osaera eta jarduna zehazten dira, eta prestakuntza-osagarrien matrikulazio- eta ziurtapen-prozedura arautzen da.

Prozedura hasteko mekanismoa nahiz horren ebazpena antolatzen dira. Baita ere aitortuta edo baimenduta dauden ikastetxe publiko edo pribatu ez ofiziale-tan izandako irakasle-eskarmentua egiaztatzeko modua, eremu publikoan nahiz

⁶³ 55/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, unibertsitate-irakaskuntzen egitura ezartzen duena eta graduko unibertsitate-ikasketa ofizialak arautzen dituen (BOE, 21. zk., 2005eko urtarrilaren 21ekoa)

⁶⁴ 56/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, gradu ondoko unibertsitate-ikasketa ofizialak arautzen dituen (BOE, 21. zk., 2005eko urtarrilaren 21ekoa).

⁶⁵ Ikus aurreko oharra.

⁶⁶ 285/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, goi-mailako hezkuntzako titulu eta ikasketa atzerriarrak homologatzeko eta balioztatze baldintzak arautzen dituen (BOE, 55. zk., 2004ko martxoaren 4koa).

privatuan garatutako jarduera profesional artistikoa egiaztatzeko modua, eta prestakuntza-osagarriak egiaztatzeko modua.

Era berean, prestakuntza osagarriko moduluak egiteko modua antolatzen da.

Bertan xedatutakoa lurralde nazional osoan da aplikagarri.

1.2.1.4. Unibertsitatea

1.2.1.4.1 Goi-mailako hezkuntza-titulu atzerritarrak homologatzeko eta baliozkotzeko baldintzak arautzen dituen otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretua aldatzea. 309/2005 Errege Dekretua, martxoaren 18koa. (BOE, 67. zk., 2005eko martxoaren 19koa)

Urtarrilaren 21eko 55/2005 Errege Dekretuan⁶³ eta 56/2005 Errege Dekretuan⁶⁴ jasotako zenbait aurreikuspen moldatzen ditu.

Espainiako unibertsitateari egozten dizkio titulu atzerritarrak homologatzeko eskumenak. Hala ere, salbuetsi egiten dira urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuko⁶⁵ 8.3 artikuluan aipatzen diren master tituluak. Izan ere, horiek otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuko⁶⁶ II. Kapituluaren 1. atalean zehaztutakoaren arabera arautuko dira. Bestalde, batzorde teknikoak Unibertsitate Koordinaziorako Kontseiluaren mende egongo dira.

Aldaketak ondoko hauek dira:

- 1. artikuluko a) eta b) paragrafoak; 10. artikulua; II. Kapituluako 2. atalaren izendapena; 18. artikuluko 1. atala; 19. artikuluko 2. atala; II. Kapituluako 3. atalaren izendapena.
- II. Kapituluaren 4. atal bat eransten da, 22. bis eta 22. ter artikuluekin; 1. Xedapen Iragankor izatera pasako den Xedapen Iragankor bakarraren paragrafo bat 2. Xedapen Iragankor izango da; 2. paragrafoa 4. Azken Xedapena izatera pasako da.
- 5. artikuluko 3. atala desagertu egiten da; 11. artikulua aldatu egiten da.

Arauren izaera oinarritzkoa da, eta lurralde nazional osoan da aplikagarri.

1.2.1.4.2 Goi-mailako titulu atzerritarren homologazioari osagarri zaizkion prestakuntza-eskakizunak xedatzeko eta egiteko irizpide orokorrak ezartzen dira. 1519/2006 ECI Agindua, maiatzaren 11koa. (BOE, 119 zk., 2006ko maiatzaren

⁶⁷ Ikus aurreko oharra.

⁶⁸ 309/2005 Errege Dekretua, martxoaren 18koa, goi-mailako hezkuntzako titulu eta ikasketa atzerritarrak homologatzeko eta balioztatze baldintzak arautzen dituen otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretua aldatzen duena (BOE, 67. zk., 2005eko martxoaren 19koa).

⁶⁹ 86/1987 Errege Dekretua, urtarrilaren 16koa, Goi Mailako Hezkuntzako Titulu Atzerritarrak Homologatzeko Baldintzak arautzen dituena (BOE, 20. zk., 1987ko urtarrilaren 23koa).

19koa)

Otsailaren 20ko 285/2004 Errege Dekretuak⁶⁷ goi-mailako hezkuntzako titulu eta ikasketa atzerritarrek homologatzeko eta baliozkotzeko baldintzak arautzen ditu. Ondoren, martxoaren 18ko 309/2005 Errege Dekretuak⁶⁸ aldatu zuen. 17. artikuluan aukera berri bat jasotzen da; horren arabera, homologazioa lortzeko, aurretiaz prestakuntza-eskakizun osagarri batzuk gainditu beharko ditu interesatuak, honek jaso duen prestakuntzan, eta homologatu nahi den titulu espainiarrera lortzeko eskatzen den prestakuntzari dagokionez, gabeziak daudela ikusten den kasuetan.

Arau hau indarrean sartu arte, gabezia horiek osotasuneko proba bat gaindituz bakarrik gaindi zitezkeen. Baina araudi berri honekin, gaitasun-proba izeneko aukera hori mantentzeaz gain, aukera hori zabaldu egiten da, praktika-aldiak, proiektuak edo lanak egiteko aukerarekin, edo tutoretzapeko ikastaroetan parte hartzeko aukerarekin.

Gabezia horiek adierazten dituzten erabakiak arrazoituak izango dira beti. Gabezia horiek gainditzeko adierazitako mekanismoen artean aukeratzea ahalbidetzen den kasuetan, aukeraketa hori interesatuari egokituko zaio. Interesatuari dagokio, halaber, prestakuntza-eskakizun osagarriak egiteko unibertsitea aukeratzea, betiere unibertsite horrek gainditze-prozesu horiek antolatuta ditueanean. Eskakizun horiek gainditzeko epea bi urtekoa izango da, hala adierazten duen erabakia jakinarazten denetik kontatzen hasita. Unibertsiteak egiaztapen-zurtagiri bat igorriko du.

Aginduak, gainera, gaitasun-probari, praktika-aldiari, proiektuaren edo lanaren burutzapenari eta tutoretzapeko ikastaroetan parte hartzeari buruzko arauak ematen ditu.

Indargabetu egiten da 1995eko uztailaren 21eko Agindua, urtarrilaren 16ko 86/1987 Errege Dekretuaren⁶⁹ pean abiarazitako espedientei oraindik ere aplikagarri izatearen kaltetan izan gabe.

⁷⁰ 365/1999 Foru Dekretua, irailaren 13koa, Hezkuntza eta Kultura Saileko Hezkuntza Ikuskapenaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen dituen, eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko lanpostuak eskuratzeko sistema eta horiek hornitzeko sistema ezartzen dituen (NAO, 1999ko urriaren 10ekoa).

⁷¹ 83/2005 Foru Agindua, apirilaren 26koa, Hezkuntza eta Kultura Saileko Hezkuntza Ikuskapenaren antolakuntza eta funtzionamendua arautzen dituen irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretua garatzen duena (NAO, 78. zk., 2005eko uztailaren 1ekoa).

⁷² 502/2005 Ebazpena, maiatzaren 31koa, Zerbitzuetarako eta Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuaren lau urteko plan orokorra, 2005/2008 aldirakoa, oneste duena (NAO, 84. zk., 2005eko uztailaren 15ekoa).

⁷³ Ikus 3. zk., l.l.l.l. epigrafean.

⁷⁴ 1537/2003 Errege Dekretua, abenduaren 5ekoa, araubide orokorreko eskola irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen (BOE, 295. zk., 2003ko abenduaren 10ekoa).

I.2.2. Nafarroa

I.2.2.1. Administrazioa

1.2.2.1.1 Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2005/2006 ikasturterako Urteko Jarduketarako Plan Orokorra onesten da. Urriaren 3ko 890/2005 Ebazpena. (NAO, 133. zk., 2005eko azaroaren 7koa

Irailaren 13ko 365/1999 Foru Dekretuaren⁷⁰ arabera, Ikuskapen Zerbitzuak Jarduketarako Plan Orokorra prestatuko du. Dekretu hori apirilaren 26ko 82/2005 Foru Aginduak⁷¹ garatzen du; bertan ezartzen da plan hori lau urtetarako izango dela eta, maiatzaren 31ko 502/2005 Ebazpenaren⁷² arabera, urteko jarduketaren plan orokorretan gauzatuko da lau urtetarako plan hori.

Xedapen honek, beraz, Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuaren 2005/2006 ikasturterako jarduketako urteko plan orokorra onesten du. Plan honekin modu koherentean antolatzen eta sistematizatzen da zerbitzuak 2005/2008 Lau Urtetarako Plan Orokorrean ezarritako lan-ildoak garatzerakoan eta gauzatzerakoan egin beharreko eguneroko lana. Plana idazteko 2004/2005 ikasturteko planaren ebaluazioa eta hezkuntza-administrazioaren eskaera berriak hartu dira kontuan.

Planaren helburuak bat datoz Lau Urtetarako Planean zehaztutakoekin. Bertan berriaz zehaztutako prozesuaren arabera garatu beharreko jarduerak sartzen dira. Prozesu batzuk plangintza-prozesuak dira; beste batzuk, berriz, zerbitzuak eskaintzekoak. Azpi-prozesu batzuetarako, berriz, berriazko helburuak lortzen dira.

Planak 2005/2006 ikasturterako lehentasunezko jarduketaren ildo estrategikoak zehazten ditu; eta lortu nahi diren emaitzak nahiz kuantifikatu daitezkeen urteko helburuak zehazten dira. Adierazten du bereziki azpimarratuko direla kontrol- eta gainbegiratze-eremuak, zentroen ebaluazioa, sistemaren ebaluazioa, hezkuntza-administrazioarekiko lankidetzaren erakunde-itunak, kudeaketaren kalitatea, erakunde-prestakuntza, barne-komunikazioa eta informazioa, eta kanpoko irudia eta komunikazioa.

Kalitatearen kudeaketaren eremuan, ikuskapen-aldeen planifikazioa, antolaketa eta ebaluazioa hobetu nahi da; azpi-prozesuen burutzapena zehazteko eta antolatzeke sistema bat onesten da, eta zerbitzu-sorta bat zehazten da.

Planean aurreikusten diren prestakuntza-ekintzak ondorengo hauek dira: araudia aztertzea eta irizpideak homogeneizatzea, aplikaziorako; prestakuntza saioak egitea autonomia erkidegoetako eta EBko beste ikuskatzailetza batzuekin; informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (Eco eta Educa programak); eta hizkuntza komunitarioak.

Planak aplikatu bitartean sor daitezkeen beharretara egokitzeko aukera ematen du, eta abian jarriko da 2005/2006ko Ikuskatzailearen Gidaren eta ikuskapen eremuetako Lan Planen zehaztapenez baliaturik.

1.2.2.1.2 Prestakuntzako jardueren ziurtagiriak jaulkitzea eskuordetzen duena. 220/2005 Ebazpena, azaroaren 28koa. (NAO, 38. zk., martxoaren 29koa)

Prestakuntza eta Psikologia Zerbitzuko eta Euskara eta Hizkuntza Komunitarioen Zerbitzuko zuzendarien esku uzten dira Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak, bakarrik nahiz elkarlanean, antolatzen dituen prestakuntza jardueren ziurtagiriaren arloan zuzendari kudeatzailearenak diren eskuduntzak.

Eskuordetze hori edozein unetan utzi daiteke bertan behera.

1.2.2.2. Zentroak

1.2.2.2.1 Unibertsitatez besteko eta araubide orokorreko ikasketak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria garatzen da. 88/2006 Foru Agindua, uztailaren 18koa (NAO, 93. zk., 2006ko abuztuaren 4koa)

Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa⁷⁵, lege horretan arautzen diren ikasketak ematen dituzten ikastetxeek bete beharreko gutxieneko baldintzak arauz ezartzeari dagokionez, garatzen ez den bitartean, arlo horretan abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretua⁷⁴ dago indarrean. 3. Xedapen Gehigarriak ezaugarri soziodemografiko edo eskolako ezaugarri bereziko populazioaz arduratzen diren Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak aurrez ikusitako baldintzak betetzeaz salbuesten ditu, betiere ikastetxe horiek izan beharreko unitate kopuruari dagokionez. Gainera, hezkuntza administrazio eskudunek ikastetxeen ezaugarri eta neurri berezietara egokituko dituztela ezartzen du.

Hortaz, Foru Agindua ezaugarri soziodemografiko edo eskolako ezaugarri bereziko populazioaz (abenduaren 5eko 1537/2003 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarriaren lehen idatz-zatian aipatutakoaz) arduratzen diren Haur

⁷⁵ 386/2002 Foru Agindua, uztailaren 19koa, Nafarroako Foru Erkidegoan funts publikoekin finantzatuta dauden Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeentzako ebaluazio- eta kalitate-plan bat onesten duena (NAO, 113. zk., 2002ko irailaren 19koa).

⁷⁶ 417/1992 Foru Dekretua, abenduaren 14koa, unibertsitatekoak ez diren mailatako ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituena (NAO, 7. zk., 1993ko urtarrilaren 15koa). Akats-zuzenketa (NAO, 23. zk., 1993ko otsailaren 22koa).

⁷⁷ 191/1997 Foru Dekretua, uztailaren 14koa, unibertsitatekoak ez diren mailatako ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua aldatzen duena (NAO, 92. zk., 1997ko abuztuaren 1ekoa).

Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe osatugabeak baimentzen ditu.

Hezkuntza unitatetat hartuko dira hezkuntza plangintzak zehaztutako ikasle taldeak. Ikasle talde horietan elkar daitezke Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasleak edo maila bereko zenbait kurtsotako ikasleak, betiere ikasle kopuruak hala justifikatzen badu. Hala bada, 1/25 izanen da gehienez ere irakasle/ikasle ratioa. Ratio hori ikastetxeek hartzen duten populazioaren ezaugarrietara egokitu daiteke.

Ikastetxe horien gutxienezko instalazioak eta baldintza materialak adierazten dira.

1.2.2.2. Hobekuntza arloak ezartzen ditu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunduek beren hobekuntza plana egin dezaten. Ekainaren 27ko 673/2006 Ebazpena. (NAO, 100. zk., 2006ko abuztuaren 21 ekoa)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hobekuntza plana garatzeko hobekuntza-arloak ezartzen ditu: Arlo horiek ondorengo hauek dira:

1. Hizkuntza gaitasuna
2. Matematikako gaitasuna
3. Zientzia eta teknologiako gaitasunak
4. Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
5. Gizarte gaitasuna eta gizalegea
6. Kultur eta arte ondarea ezagutzea
7. Ikasten ikasteko gaitasuna
8. Pertsonaren autonomia eta ekimena

Horietako bakoitzean lortu nahi diren helburuak ere zehazten dira.

Ebazpena Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Gobernuari hezkuntza gaietan dagozkion eskumenak erabiliz, Nafarroako ikasleek kalitateko irakaskuntza jaso dezaten egin duen proiektuarekin lotzen da. Helburu nagusia da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurren oinarritzko gaitasunen maila areagotzea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan jarraitzea. DBHko 2. eta 4. mailetan egindako barne ebaluazioek erakutsi dutenez, ikasle nafarrek hobetu egin behar dituzte arlo jakinetako oinarritzko zenbait gaitasun. Horregatik, hobekuntza arloak zehazten dira, ikastetxeak, pixkanaka, etengabe hobekuntzaren kulturari sartuz, bai antolamenduari dagokionez eta baita ikuspegi pedagogikoei dagokienez ere.

Ikastetxe guztiek hobekuntza plana eginen dute, eta bertan sartuko dituzte adierazitako hobekuntza arloak, gutxienez ere. Plana Ikastetxearen Urteko Programazioan sartuko da, dokumentu bakar batean. Departamentu bakoitzaren pro-

gramazio didaktikoetan aintzat hartuko dira ikastetxearen hobekuntza planeko helburuak.

Zuzendaritza taldeak, bere autonomia erabiliz, ikastetxearen hobekuntza plana diseinatu eta garatuko du, indarra duen araudiaren esparruan eta Hezkuntza Departamentuko zerbitzuek ezarritako ildoetara jarraiki. Zuzendaritza taldeari dagokio, gainera, irakasleen klustroa, Koordinazio Pedagogikorako Batzordea, Eskola Kontseilua eta departamentu didaktikoak haietan parte hartuzera bultzatzea. Beharrezkoak diren jarduketak koordinatuko ditu eta, gainera, ikastetxe publikoetan, Lehen Hezkuntzako azken zikloko taldeekin eta berari atxikitako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutueta irakasleekin beharrezkoak diren koordinazio-bideak ezarriko ditu.

Hezkuntza Departamentuak behar diren materialak eskainiko ditu, ikastetxeetako irakasleek eta zuzendaritza taldeek beren hobekuntza planak prestatu eta abian jar ditzaten, eta hobekuntza planen jarraipena eta kanpo ebaluazioa egiten ditu.

Ebazpen honek amaitutzat ematen du uztailaren 19ko 386/2002 Foru Agindua.⁷⁵

Xedapen honek eragina du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko eta hitzartuetan.

1.2.2.3. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko Plana ezartzen da. Uztailaren 5eko 632/05 Ebazpena (NAO, 104. zk., 2005eko abuztuaren 31koa)

Irakaskuntza ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretuaren⁷⁶ eta hori aldatu zuen uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretuaren⁷⁷ esparruan onesten da ebazpen hau.

Baloretan oinarrituriko hezkuntzaren printzipioak pertsona guztien duintasunaren errespetua, elkarbizitza, bakea eta justizia eskatzen ditu. Ageriko gauza da ikastetxeetan ikasle batzuen bortxazko jokabideak elkarbizitza hondatu ohi dela. Bortxazko jokabide horien ezaugarriak bereziak dira, helduak sartzea zaila duten zirkulu itxi batean babesten baitira.

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan elkarbizitza hobetzeko plana onesten da; jarduteko protokolo bat garatzen da, eta plana prestatzeko orientabideak ematen dira. Xedatutako planaren xedea da ikastetxeetan elkarbizitza-giro egokia lortzea, ikaslearen hezkuntza integrala lortzeko prozesuaren zati gisa.

Planaren helburu nagusiak dira elkarbizitza hobetzea, plana prestatzeko baliabideen proposamena eta jarduera, espazio eta denbora komunak sustapena, elkarbizitza hobetzeko.

Plana koordinatzeko antolamendu-egitura bat xedatu da. Elkarbitzarako Aholkularitza batek eta Segimendu Batzordea batek osatzen du egitura. Bi organo horien egitura eta funtzioak antolatzen dira.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek 2005-2006 ikasturterako elkarbিতza-plan propioa egin beharko dute. Elkarbিতza-plan horrek Elkarbিতza Batzorde bat izango du; eta batzorde horren osaketa eta funtzioak zehazten dira. Elkarbিতza Planean ikaskideen arteko tratu txarrei aurrea hartzeko eta eskolako gatazkak modu baketsuan konpontzeko neurriak jasoko dira; ikastetxeko Eskola Kontseiluak eta Klaustroak egindako hobekuntza proposamenak aintzat hartuko dira; eta lehentasuneko arreta emanago zaio irakasleen eta familien prestakuntzari.

Gainera, gizartearen sentsibilizatzeko kanpainak eginen dira, elkarbিতzari loturiko jokabideei buruzkoak, ikasleentzat, irakasleentzat, familientzat eta gizartearentzat oro har; irakasleen prestakuntzarako berariazko edukiak adieraziko ditu; eta zuzendari lanetan aritzeko prestakuntzaren barrenean, gatazkak aurkitu eta konpontzeko moduluak sartuko dira.

Segimendu Batzordeak plana ebaluatuko du, eta txosten bat igorriko du, hiru hilabetearen behin, eta ikasturte amaieran.

Ebazpenak, modu orientagarrian, esku-hartze eskaeren aurrean jarduteko gida bat zehazten du. Azkenik, esku-hartze plan bat xedatzen du.

Era berean, ikastetxeko elkarbিতza-plana prestatzeko orientazioak ematen dira. Hori 2005-2006 ikasturtean idatziko da, eta ikastetxearen urteko programazioan jasoko da. Plana osatzen duten elementuak identifikatzen dira. Horien artean, ikastetxearen ezaugarriak, helburuak, beharrezkoak diren ekintzak, jarduteko prozedura, hedapenerako mekanismoa, urteko ebaluazio-prozesua eta ikastetxearen urteko planean jasoko diren hobekuntza-proposamenak. Ebaluatu beharreko alderdiak adierazten dira.

1.2.2.2.4. "Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Hedapena". 2006/230 ebazpena, martxoaren 6koa (NAO, 45. zk., 2006ko apirilaren 14koa)

Ikastetxeetan eta Hezkuntza Administrazioan etengabeko hobekuntzaren kultura garatu behar da. Horretarako, kalitatearen hiru ziklo bereizi ditu; lehenengo biak derrigorrezkoak, eta hirugarrena hautazkoa..

⁷⁸ Garraioa konpartitzen duten institutuetan izan ezik, horietan 2007ko urtarrilaren 29 izango baita.

⁷⁹ 07/01/29 Batxilergoko eta Lanbide Heziketako jaieguna da, eta 07/10/23, berriz, Arte Plastiko eta Diseinu Irakaskuntzena.

Lehen zikloak berarekin dakar hezkuntza sistemaren antolamenduan ezarritako legezko zehaztapenak betetzea. Lehen maila honek eskatzen du ikastetxeen plangintza, antolaketa eta funtzionamendua hezkuntzako araudiari jarraikiz egitea. Zeregin horretarako tresna batzuk daude: Ikastetxeak Antolatzeko Dokumentua (IAD), Urteko Programazio Orokorra (UPO), Programazio Didaktikoak eta Amaierako Memoria.

Bigarren zikloa, lehenengoaren osagarri, Departamentuak ikastetxeetarako onesten dituen hobekuntza planen bitartez gauzatzen da. Hezkuntza sistemari buruzko azterlan eta ebaluazioen ondorioz Departamentuak ezartzen dituen hobekuntzarako arlo eta helburuetan oinarritzen dira plan horiek.

Hirugarren zikloan, ikastetxeek, erabateko kalitatearen edo bikaintasunaren paradigmei jarraikiz ezartzen dituzte Kalitatea Kudeatzeko Sistemak. Programa sarean lan egiten jardun diren ikastetxe batzuek izan duten esperientzian oinarritu da. Aldizkako ebaluazioa eskatzen du, eta Departamentuak igortzen dituen kalitate-ziurtapenak eskuratze aldera egiten du, horrek kanpoko beste ziurtapenak ere eskuratzea eragozten ez badu ere.

Ikastetxeei aholkularitza teknikoarekin lagunduko zaie, eta esperientziaren jarraipenaren inguruko bilerak egingo dira aldizka, ondokoak bilduz: ikastetxeen ordezkariak, talde aholku-emailea, eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua.

Hautatutako ikastetxeek ikasturteko azken memoria igorri beharko dute, garatutako jarduerak azalduz. Horietarako Departamentuak ematen duen kalitate-aitorpena eskuratzeko ezinbestean bete behar dituzten aurretiatzko eskakizunak ezartzen dira.

Kalitatearen hirugarren zikloarekin lotuta ezinbestean bete beharreko prozesuen taula adierazten da.

Lortutako emaitzen azken balorazioa Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuak egingen du, eta ikusiko du horren hedapena egitea komeni den, egokiak iruditzen zaizkion baldintzen arabera.

Barne onarpenek hiru ikasturterako indarra izanen dute. Denbora hori bukatutakoan, urtero, jarraipeneko barne auditoria egingen da ikastetxe bakoitzean.

ISO 9001-2000 ziurtagiria duten ikastetxeek automatikoki eskuratu dute Departamentuaren berezko aitorpena.

1.2.2.2.5. 2006-2007 ikasturtean Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialeta-

⁸⁰ Eskola-orduak berrogeita hamar minutukoak izango dira Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan, eta baita hirugarren zutabearen aipatzen diren ikastetxeetan. Asteazkenetan goizez bakarrik jardungo dira.

ko ikasketa espezializatuak izanen duten eskola egutegia prestatzeko arauak onestea. 361/2006 Ebazpena, apirilaren 12koa. (NAO, 54. zk., 2005eko maiatzaren 5koa)

Ikasturtearen hasieratik amaierara eta eskolen hasieratik amaierara gauzatu beharreko jarduerak antolatzen dira.

Ikastetxeei nolabaiteko malgutasuna ematen zaie, jaiegunekin lotutako zenbait alderdi aldatzeko aukera emanez.

1.2.2.2.6. 2006-2007 ikasturtean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Arte plastikoetako eta diseinuko ikasketek izanen duten eskola egutegia eta ordutegi orokorra. 362/2006 ebazpena. (NAO, 54. zk., 2006ko maiatzaren 5koa)

⁸¹ 24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko lurralde-eremuko Haur Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen Araudi Organikoa onesten duena (NAO, 1997ko martxoaren 14koa).

⁸² 25/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko lurralde-eremuko Bigarren Hezkuntzako Institutuen Araudi Organikoa onesten duena (NAO, 1997ko martxoaren 14koa).

⁸³ 257/1998 Foru Agindua, uztailaren 16koa, Haur Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen, Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen Araudi Organikoa garatzekoa (NAO, 1998ko abuztuaren 26koa).

⁸⁴ 258/1998 Foru Agindua, uztailaren 16koa, Bigarren Hezkuntzako Institutuen Araudi Organikoa garatzekoa (NAO, 1998ko abuztuaren 28koa).

Batxilergoko 2. mailan eskolak 07/05/28an amaituko dira, eta 07/05/29tik 07/06/7ra bitartean, eskola-egunak Unibertsitatera sartzeko azterketak prestatzen emango dira. Prestakuntza-zikloetako bigarren mailarako, edo urte bakar batean antolatzen diren horietarako, eskola-egunen kopurua curriculumean zehaztutako ordu-kopuruaren eta eguneko 5,5 eskola-orduren arteko koizientearen emaitza izango da..

⁸⁵ 225/1998 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbide Hastapeneko Programetako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituen (NAO, 1998ko abuztuaren 7koa).

⁸⁶ 229/2002 Foru Dekretua, azaroaren 4koa, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbide Hastapeneko Programetako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dituen uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua aldatzen duena (NAO, 8. zk., 2003ko urtarrilaren 17koa).

⁸⁷ 6/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeko, aire arnasgarria babesteko eta tabakoari dagokionez osasuna sustatzeko (NAO, 23. zk., 2003ko otsailaren 21koa).

Ikasturtearen hasieraren eta amaieraren artean eta eskolen hasieraren eta amaieraren artean garatu behar diren jarduerak antolatzen dira.

Ikastetxeei nolabaiteko malgutasuna ematen zaie, jaiegunekin lotutako zenbait alderdi aldatzeko aukera emanez.

1.2.2.2.7. 2006-2007 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko musika ikasketa arautuek eta dantzako ikasketa ez-arautuek izanen duten eskola egutegia. Apirilaren 12ko 363/2006 Ebazpena (NAO, 54. zk., 2006ko maiatzaren 5koa)

Ikasturtearen hasieraren eta amaieraren artean eta eskolen hasieraren eta amaieraren artean garatu behar diren jarduerak antolatzen dira.

Ikastetxeei nolabaiteko malgutasuna ematen zaie, jaiegunekin lotutako zenbait alderdi aldatzeko aukera emanez.

1.2.2.2.8. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbide Hastapeneko Programetako ikastetxe publikoen antolaketarako eta jardunerako jarraibideak. 687/2006 Ebazpena, ekainaren 28koa. (BOE, 95. zk., abuztuaren 9koa)

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbide Hastapeneko Programetako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketarako eta jardunerako jarraibideak onesten dira. Jarraibide horiek aplikagarri izango dira, halaber, ikastetxe pribatu hitzartuetan edo diruz lagundutakoetan.

⁸⁸ 595/2005 Ebazpena, ekainaren 28koa, Nafarroako Foru Erkidegoko Irakaskuntza Artistikoen Ikastetxeen antolaketa eta funtzionamendua arautzeko jarraibideak onesten dituen: "Pablo Sarasate" Goi Mailako Musika Kontserbatorioa, "Pablo Sarasate" Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa, Dantzaren Berariazko Eskola eta Arte Eskolak, 2005/2006 Ikasturtean (NAO, 91. zk., 2005eko abuztuaren 1ekoa).

Ebazpenaren egitura aurreko urteetako egituraren oso bestelakoa da. Eranskin bakar bat du, lau atalez osatua. Lehenengoan sarrera bat egiten da; bigarrenak jarraibide orokorrak ematen ditu; hirugarrenak berariaz aipatzen ditu Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza ematen dituzten ikastetxeak; lauugarrenak, berriz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dutenak. Atal horren barruan berariazko azpi-atal bat dago, Arte Plastikoak eta Diseinua ematen dituzten ikastetxeentzat.

Sarreran adierazten da jarraibide horien xedea dela Departamentuak ikasturterako egokien irizten dituen ildo orokorrak eta lehentasuneko jarduerak ezartzea, ikastetxeek horiek urteko programazioan sar ditzaten. Gainera, araudi orokorrean araututako antolaketa eta funtzionamenduari lotutako zenbait alderdi zehazten dituzte. 1997ko otsailaren 10eko 24. eta 25. Foru Dekretuetako⁸¹ ⁸² Ikastetxeen Araudi Organikoei buruz ari da. Horiek 1998ko uztailaren 16ko 257 eta 258 Foru Aginduen⁸³ ⁸⁴ bidez garatzen dira. Baita ere hurrenez hurren 1998ko uztailaren 6ko eta 2002ko azaroaren 4ko 225 eta 229 Foru Dekretuak⁸⁵ ⁸⁶ ere, ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia arautzen dutenak. Hala ere, ez da adierazten zein diren arau horiek.

Jarraibideek LOEren V. izenburuko II. kapituluan jasotako ikastetxeen autonomia areagotzea dutela helburu adierazten da, eta martxoan “Behar dugun eskola” izenburupean egin diren Hezkuntza Jardunaldien ondorioak hartu direla kontuan.

Zentzu horretan, jardunaldi horietatik eskuratutako ondorioak aipatzen dira. Horien arabera, ikasleak dira eskolaren nukleo nagusia; ikastetxeek, dagokien autonomia gauzatu, baliabideak antolatu ditzakete eta antolamenduari eta pedagogiari dagokien egoki iritzitako erabakiak har ditzakete; Eskola Kontseiluek garrantzia irabazi behar dute; zuzendaritza-taldeak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak egoki garatzeko beharrezkoa den elkarbizitza bermatu behar du; jardunerako arau argi eta zehatzak ezartzea eta betetzea bilatuko du, eta irakasleen prestakuntza diseinatuko du. Hori guztia lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa ikastetxearen Hobekuntza Planaren inguruan agiri bakar gisa eraturako hori bakarrik izango da.

Jarraibide orokorren artean urteko programazio orokorrari buruzko hainbat alderdi jasotzen dira; horren inguruko autonomia zabala ematen zaio zuzendaritza-taldeari, baliabideak kudeatzeko eta eskola-ordutegiaren barruan nahiz ordutegi horretatik kanpo gauzaten diren jarduerak planifikatzeko. Programazio didaktikoekin lotutako hainbat gai berri ere aipatzen dira, eta baita alkoholari eta

⁸⁹ 594/2005 Ebazpena, ekainaren 28koa, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialen 2005-2006 ikasturteko antolakuntza eta funtzionamendua arautzen duten jarraibideak onesten dituen (NAO, 90. zk., 2005eko uztailaren 29koa).

tabakoari buruzko jarraibideak ere, otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legea⁸⁷ betetzeko.

Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako jarraibideetan berrikuntza gisa ageri da irakasleen ordutegia prestatzeko malgutasun-printzipioa, eta ikuskaritzak barruko ebaluazio prozesuetan eta jarraipeneko prozesuetan izango duen funtzioa, nahiz Atlante proiektuaren jarraipena eta ikuskapena.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzako jarraibideen artean aipatzen da, halaber, irakasleen ordutegia antolatzeko malgutasun-printzipioa, erakunde-plangintzarako tresnak prestatzeko eta berariazko trebakuntzarako ordutegi osagarriaren lehentasun-printzipioa, eta EOIDNAko irakasleen eta ikastetxeetan erakunde horrekin lankidetzan jarduten diren irakasleen arteko koordinazio-bilerena.

1.2.2.2.9. 2006/2007 ikasturtean “Pablo Sarasate” Musika Kontserbatorio Profesionalaren, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eta Berariazko Dantza Eskolaren antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak. 748/2006 Ebazpena, uztailaren 17koa (NAO, 99. zk., abuztuaren 18koa)

2005/2006 ikasturterako ekainaren 28ko 595/2005 ebazpenean⁸⁸ eman ziren horien berdinak dira, ondorengo alderi hauetan izan ezik:

Ez dira sartzen Arte Eskolari dagozkion antolaketa- eta funtzionamendu-jarraibideak.

Pablo Sarasate Kontserbatorioarentzat nahiz Goi-mailako Musika Kontserbatorioarentzat, orkestraren arduradunak, ikasturtearen hasieran, ikasturte osorako lan plana egingo du eta zuzendaritza taldeari aurkeztuko onetsia izan dadin. Plan horretan jaso beharko dira ikastetxeko orkestrak ikastetxea ordezkatzeko lanean urtean eskainiko dituen hainbat emanaldi, bai Zuzendaritza Taldeak eskatuta bai Hezkuntza Departamentuak eskatuta. Iaz ez zen zehazten nor onetsi behar zuen plan hori, eta ezta zein izango zen planaren edukia ere.

Astean zenbatu beharreko gutxieneko bi ordu osagarriak irakasle guztiendako batera egiten planifikatuko dira. Pablo Sarasate kontserbatorioaren kasuan, hezkuntza proposamenak ikasketa plan berrietara egokitzeko erabiliko dira nagusiki. Goi-mailako kontserbatorioaren kasuan, berriz, currículum proiektuak berrikusteko eta eguneratzeko erabiliko dira.

Goi-mailako musika kontserbatorioaren hezkuntza-proiektuak ikastetxearen hezkuntza-programa garatzeko bete beharreko egitekoak zehaztuko ditu.

⁹⁰ 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, diru-laguntzei buruzkoa (NAO, 136. zk., 2005eko azaroaren 14koa).

Ikastetxeko liburutegiari buruzko jarraibideak ematen dira. Liburutegirako arduradun bat izendatzen da. Astean hiru eskola-ordu emango dituzte liburutegiaren arduradun gisa. Hori izango da liburutegia abian hartzeko ekintza-plana prestatzeko arduratuko dena. Plana ikastetxearen urteko programazio orokorraren barruan sartuko da. Plan horren edukia ere zehazten da. Ikasturte amaieran liburutegiaren inguruko jardueren memoria bat idatziko da. Astean zenbateko ordu osagarrien artean liburutegi-orduen kontzeptua ere sartzen da. Liburutegia zaintzeko plan bateratu bat proposatuko da. Liburutegiko irakasleen funtzioak adierazten dira. Liburutegiko planean parte hartzea eta plan hori garatzea departamentuen funtzioen artean sartzen dira.

Bi departamentu berri sortzen dira goi-mailako kontserbatorioan: Konposizioa batetik, eta Musikologia eta Pedagogia bestetik. Teoriena desagertu egiten da.

Hiru ikastetxeentzat desagertu egin dira tabakoaren eta alkoholaren kontsumoari buruzko jarraibideak.

Hiru ikastetxeentzat derrigorrezkoa da jarraibideak argitaratzea, Hezkuntza Komunitateko kide guztiak ezagutu ditzaten.

1.2.2.10. 2006-2007 ikasturtean Iruña eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialen antolaketa eta jarduna arautzeko jarraibideak 732/2006 Ebazpena, uztailaren 5koa (NAO, 100. zk., abuztuaren 21ekoa)

2005/2006 ikasturterako ekainaren 28ko 594/2005 ebazpenean⁸⁹ eman ziren horien berdinak dira, ondorengo alderi hauetan izan ezik:

Ordutegiaren banaketan argi eta garbi bereizten da, epigrafe egokien bidez, irakaskuntza arauturako xedatutakoa eta espezializazio-ikastaroetarako xedatutakoa.

Planifikaziorako irizpideen artean dago Frantseseko, Ingelesko eta Euskarako laugarren mailako plaza batzuk hizkuntza horien oinarritzko zikloa Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin elkarlan programaren bidez lortu duten ikasleendako gorde beharra. Gordetzen den plaza-kopurua eskatzen den plaza-kopurua baino txikiagoa bada, esleipena zozketa bidez egingo da.

⁸⁹ 26/2002 Foru Legea, uztailaren 2koa, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko neurriari buruzkoa (NAO, 84. zk., 2002ko uztailaren 12koa).

⁹² 80/2004 Foru Dekretua, otsailaren 16koa, erretiro aurreratua eskatzen duen eta unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako langilearen erretiro-primaren enbatekoa ezartzen duena, eta unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzak hobetzeko neurriari buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legeko 2. atalean aipatzen den data eguneratzen duena (NAO, 27. zk., 2004ko martxoaren 3koa).

⁹³ 24/2001 Legea, abenduaren 27koa, zerga-erlako, administrazio-erlako eta gizarte-erlako neurriari buruzkoa (BOE, 313. zk., 2001eko abenduaren 31koa).

⁹⁴ Ikus 3. zk., 1.1.1. epigrafea.

Aurreko puntuan bezala, postu kopuru bat gordeko dute Nafarroako Haur eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasle funtzionarioek ingelesa edo frantsesa ikas dezaten. Eskolek erabakiko dute izena emateko eta postuak esleitzeko prozedura.

Urteko programazioa idazteko erantzukizuna ikastetxeko zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari dagokie berariaz.

Urteko programazio orokorra Eskola Kontseiluak onetsi behar du. Desagertu egin da programazioaren burutzapenari buruzko urteko ebaluazioa egin beharra.

Departamentu-buruek eta koordinatzaileek programazioaren jarraipenerako eta ebaluaziorako nahiz curriculumeko gaien prestaketarako eta eguneratzerako erabili ditzaketen orduak ez da 4,5 orduetan geratzen, modalitate arrunteko talde bati dagozkion orduetan baizik.

Irakasleen ordutegi pertsonalean, hizkuntza-eskola ofizial guztietako departamentu didaktikoen artean irakaslanak koordinatzearen, urtean bost ostiral kontatuko dira.

Zuzendaritza-taldeari eskola-aldiaren iraupena murriztu eta jarduera osagarriak garatzeko eman zitzaion ahalmena desagertu egin da.

Hizkuntza-eskola ofizial guztien departamentuen arteko koordinazioa antolatzen du.

Departamentuei funtzio berri bat ematen zaie: ebaluazio-proben gidaritza kontrolatzea eta aztertzea.

1.2.2.2.11. Gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko diru-laguntzen deialdiko oinarriak. 721/2006 Ebazpena, uztailaren 5ekoa (NAO, 101. zk., abuztuaren 23koa)

Gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak finantzatzeko deialdiaren oinarriak onesten dira. Oinarriak aurretik onetsita zeudenetatik nahiko desberdinak dira.

Finantzazio-xede diren obrak handitzekoak, aldatzekoak edo beste modu batean banatzekoak izango dira, aurreko urteetan bezala, baina aurten ez dira finantzatuko oztopo arkitektonikoak desagerrarazteko obrak.

Betebehar berri bat eransten zaie ikastetxeei; diru-laguntzaren xede diren obrak egiteko harturiko edo hartu beharreko beste laguntzak jakinaraztekoa.

Ez dira kontuan hartzen ikastetxe guztietako obrak, interesa barematzerakoan 50 puntu lortu dituzten horiek baizik.

⁹⁵ 348/2000 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioako eta bere mendeko erakunde autonomoetako funtzionarioei aplikagarri zaien oporren, lizentzien eta baimenen araubidea arautzen duena (NAO, 125. zk., 2005eko urriaren 19koa).

Ikastetxeek bete beharreko baldintzen artean diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen⁹⁰ 13. artikuluan aurreikusitakoa betetzea jasotzen da. Zerga on-dorioetarako helbidea Nafarroan ez duten ikastetxeek zerga betebeharrak beteta dituztela adierazten duen ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute. Eskabidea-rekin batera igorri beharreko dokumentazioren bat aurkeztu beharra ere desagertu da. Adibidez, sozietateen gaineko zerga, irabazien eta galeren balantzea eta kontua, eta jabetzaren egiaztapena.

Aurkeztutako eskaeren balorazio-irizpide bakoitzean lor daitezkeen gehieneko puntuazioa kuantifikatu egiten da.

Argi eta garbi zehazten dira espedientea bideratu behar duten organoak, erabaki-proposamena egin behar duen organoa eta erabakia hartu behar duen organoa.

Deialdiaren erabakiaren eta obren finantzazioaren berri eman beharra jasotzen da.

Obrak ordaintzeko epea, justifikatzeko modua, oinarrien aurka aurkez daitezkeen errekursoak, eta horien berariazko edo balizko ukapena ere adierazten dira.

Deialdiari lotutako zenbatekoa %60,07 murrizten da.

1.2.2.3. Pertsonala

1.2.2.3.1. Borondatezko erretiroagatiko sari osagarriaren zenbatekoa ezartzen da. 2006ko ekainaren 5eko erabakia. (NAO, 75. zk., 2006ko ekainaren 23koa)

LOGSEren bederatzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako borondatezko erretiroarengatiko sari osagarriaren zenbatekoa, uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legearen⁹¹ 2. artikuluan jasotzen dena, adierazten du. Horrela, honek otsailaren 16ko 80/2004 Foru Dekretuak⁹² ezarritako eguneratzea ordeztzen du.

Ordainsari hori kobratzeko aldia, abenduaren 27ko 24/2001 Legearen⁹³ 51. artikulua bidez 2006. urteko urrira arte luzatutakoa, 2011. urtera arte luzatzen da orain, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko⁹⁴ 1. xedapen gehigarrian adierazitakoari jarraiki.

Ordainsari hori lortzeko nahitaezko baldintza izanen da delako funtzionarioa 2000ko irailaren 1ean jardunean egon izana eta orduz geroztik eta etenik gabe jardunean iraun izana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe baten plantilako lanpostu batean.

⁹⁶ 1131/2002 Errege Dekretua, urriaren 31koa, lanaldi partzialean kontratatutako langileen Gizarte Segurantzaren nahiz horien erretiro partziala arautzen dituen (BOE, 2002ko azaroaren 27koa).

Ordainsaria, aurreko zenbatekoari dagokionez, %7,1 areagotzen da.

⁹⁷ Ikus 91. zk.-ko oharra.

1.2.2.3.2. Amatasunagatiko, adopzioagatiko edo harreragatiko lizentzia ordainduen araubidea arautzen da. 119/2005 Foru Dekretua, urriaren 3koa. (NAO, 125. zk., 2005eko urriaren 10ekoa)

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen araubideari buruzko urriaren 30eko 348/2000 Foru Dekretuari⁹⁵ artikulua berri bat eransten zaio.

Artikuluak ezartzen du amatasunagatiko baimen ordaindua edo haurren adopzio edo babeserako baimen ordaindua lanaldi partzialean har daitekeela. Horretarako, interesatuak aldez aurretik eskatu beharko du. Lanaldiaren herena edo erdia izan daiteke baimena, salbu eta unibertsitateaz besteko irakasleen kasuan, betiere lanaldiaren erdia izanen baita. Baimen hau egunero disfrutatzekoa izanen da eta langilearen lanaldiaren lehenbiziko eta/edo azken orduak hartuko ditu. Txandaka lan egiten duten langileen kasuan, lanaldi partzialaren orduak metatu ahalko dituzte, zerbitzuaren beharren arabera, lanaldi oso-osoak betetzeko.

Lanaldi partzialeko baimen hau aitak zein amak hartzen ahal dute. Erditzearen kasuan, amak ezin izanen du halako baimenik hartu umea jaio ondoko lehenbiziko sei asteetan.

Lanaldi partzialeko baimena zein balizkoekin bateraezina den ere zehazten da.

1.2.2.3.3. Irakaskuntza itunduan hezkuntzaren kalitatea eta lan-baldintzak hobetzeko akordioa. (Argitaratu gabe)

2005eko martxoaren 10ean ANEG, CECE, NIE eta UECOE erakunde patronalek eta FSIE-SEPNA, UGT, ELA, USO, LAB eta CCOO sindikatuek "Irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren kalitatea eta lan-baldintzak pixkanaka hobetzeko Akordioa" sinatu zuten.

Akordioaren oinarrian 2004ko abenduaren 9an Hezkuntza Sailak eta ANEG, CECE, NIE eta UECOE irakaskuntzako erakundeek negoziatzeko sinatutako oinarrien akordioa dago.

Azalpen-zatian esaten denez, Sailak 2004an areagotu egin du aurrekontua, 2003koa gaindituz, eta oinarrien akordioan zehaztutako kopuruetan. Guztira 4.049.000 euro dira.

Honako konpromiso hauek hartu dira:

⁹⁵ 23/2005 Foru Agindua, otsailaren 14koa, Hezkuntza Kontseilariarena, Nafarroako Foru Erkidegoko administrazioaren zerbitzura egongo diren maisuen erkidegoan sartzeko lehiaketa-oposiziorako nahiz maisuen erkidegoko karrerako funtzionarioek aipatu erkidegoan espezialitate berriak eskuratu ahal izan ditzaten prozedurarako deialdiak onesten dituen (NAO, 24. zk., otsailaren 25ekoa).

1. Konpromiso ekonomikoak:
2005, 2006 eta 2007 ekitaldiei dagozkien aurrekontuetan honako kantitate hauek esleituko dira:

Urteroko kantitateak aurreko urteetakoekin metatzen dira, 2007an guztira 21.450.000 euroko kantitatea lortuz.

2. Zuzendaritza-funtzioari eta funtzio pedagogikoari dagokienez. "Beste hainbat gastu" kontzeptuaren bidez finantzatuko da. Zentro itunduek egingo dute banaketa, zuzendaritza-funtzioak eta funtzio pedagogikoak betetzen dituzten langileen artean. Eskola Kontseiluak onartuko ditu finantza-horniduraren ezarpenaren kontuak. Zuzendaritzako osagarria moduluko "gastu aldakorrak" kontzeptuaren kargura ordainduko da.
3. Erretiro partzial aurreratua/erreleboa egiteko kontratua. Sailak, Langileen Estatutuko 12.6 artikulua arabera (1131/02 ED)⁹⁶, denbora partzialeko kontratu bat onartuko du 60 urtetik gorako kontratatuko irakasle batek aurkezten badu eta erretiro partzial aurreratua hartu nahi badu. Dagozkion soldatak ordainduko zaizkio eta osagarri bat ordainduko zaio, benetako ordainsaria jasotzeko, ordezkio langilearen ordainketa dela eta kantitate baxuagoa ez jasotzeko. Gainera, Hezkuntza-administrazioak ordainduko du erreleboa egiteko kontratua.
4. Irakasleak berrantolatzea. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta EDko eta GMko Prestakuntza-zikloetako unitate-kopurua murriztearen ondorioz soberan dauden irakasleak berrantolatzeko bideak errazten dira, dagozkion eranskinen zehazten den prozesua jarraituz.

⁹⁹ 334/2004 Errege Dekretua, otsailaren 27koa, hezkuntza sistemako eskola irakaskuntzak ematen dituzten irakaskuntzako erkidegoetan eta hezkuntzako ikuskatzaileen erkidegoan sartzeko, horiek eskuratzeko nahiz espezialitate berriak lortzeko araudia onesten duena (BOE, 51. zk., 2004ko otsailaren 28koa).

¹⁰⁰ 279/2001 Foru Agindua, "Nafarroako Foru Erkidegoan hezkuntza-zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna", 2001eko maiatzaren 31n sinatutakoa, argitaratzea erabakitzen duena (NAO, 116. zk., 2001eko irailaren 24koa).

¹⁰¹ 251/1993 Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen estatutuaren testu bateratua onesten duena (NAO, 1993ko irailaren 1ekoa).

5. Aparteko ordainsaria antzinasunagatik. Enpresan lortutako antzinasunagatik aparteko ordainsari bat ordaintzeko konpromisoa hartzen da, langileen IV. Hitzarmen Kolektiboan adierazitakoa betez. Erretiro aurreratua hartzen duten langileak lotzen ditu betebeharrak, baldin eta lanean jarraitzeko esku-bidea gauzatu badute eta zehaztutako kasuetan dauden langileak badira.
6. 58 urte baino gehiago eta 60 baino gutxiago dituzten langileen lanaldia murriztea. Gehienez ere, dagokion mailako asteko irakaskuntza-jardunaren lau ordu hartuko dira.
7. Asteko gehienezko irakaskuntza-jarduna 26/2002 Legearen⁹⁷ araberakoa izango da. 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera, Haur Hezkuntzako 2. zikloan gehienez ordu bat murriztuko da irakaskuntza-jarduna. Urte bereko irailaren 1etik aurrera, Lehen Hezkuntzan ordu bat murriztuko da asteko gehienezko irakaskuntza-jarduna.
2006an, urtarrilaren 1etik aurrera, Haur Hezkuntzan aipatutako jardunaren ordu bat murriztuko da eta irailaren 1etik aurrera, berriz, ordu bat murriztuko da Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta DBHko 1. eta 2. mailetan. Bi maila horietan asteko gehienezko irakaskuntza-jarduna 23 ordukoa izango da.
2007an, urtarrilaren 1etik aurrera, Haur Hezkuntzan eta DBHko 1. eta 2. mailetan ordutegjaren murrizketak egingo dira eta irailaren 1etik aurrera Haur Hezkuntzako jarduna beste ordu bat murriztuko da.
Edozein modutan, murrizketak egin ondoren, urteko jardunak gutxienez 1.180 ordu eduki beharko ditu: horietatik 782 irakaskuntza-orduak eta 398 osagarriak.
Bestalde, "Beste hainbat gastu" kontzeptutik hartuko da irakasleak ez diren langileen soldatak haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleen soldatek lortutako igoera gehi % 1 igotzeko behar dena 2005, 2006 eta 2007 urteetarako, baldin eta diru-laguntzaren zenbatekoek ahalbidetzen badute.
8. Prestakuntza-esparrua. Irakasleen prestakuntza sustatuko da. Sailak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko erraztasunak emango dira eta irakasleei banakako laguntzak eskuratzen lagunduko zaie eta euskara ikasteko ikastaro trinkoak eta hizkuntza hobetzeko ikastaroak egiteko erraztasunak emango zaizkie, irakaskuntza publikoko irakasleen baldintza berdinekin.

Gainera, zuzendaritza-postuetarako prestakuntza-ikastaroak eta ezagutzak eguneratzeko ikastaroak emango dira aginte-organoei dagozkien funtzio propioak ondo ulertzeko. Zentro itunduei zentroen kalitaterako eta hobetuzarako ikastaroetan parte hartzen utziko zaie.

¹⁰² 395/2001 Foru Agindua, urriaren 23koa, Hezkuntza eta Kultura Sailaren zerbitzura dauden irakaskuntzako eta orientazioko lanpostuak aldi baterako kontratuen bidez betetzeko hautagaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten dituena (NAO, 37. zk., 2001eko azaroaren 12koa).

¹⁰³ Ikus 93.1 zk., I.1.4.4 epigrafea.

¹⁰⁴ Ikus 93 zk., I.1.4.4 epigrafea.

Zentroek hezkuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzeko bideak sustatuko dira. Zentroi hezkuntza-berrikuntzako proiektuetan parte hartzen lagunduko zaie.

9. Hizkuntza Modernoaren erabilera. 26/2002 FLren laguntzarekin eta irakasle-en erretiroez baliatuz, zentroek, ahal duten neurrian, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan hizkuntza irakasteko irakasle espezialistak sartuko dituzte.
10. Beste hainbat neurri. Haur Hezkuntzako jolas-garaietan irakasleek egiten dituzten zaintza-orduak sustatzeko konpromisoa hartu da. Era berean, 9 hilabetetik beherako haurrak dituzten irakasleen kasuan, edoskitze-orduak metatzeko aukera aztertze konpromisoa hartu da, guztira amatasunagatik 16 asteko baimena ordaindu bat lortuz.
11. Hobetzeko bermeak eta aukerak. Amaitzeko, 2004, 2005 eta 2006 urteetan urteko KPIren hazkundeak % 3,2 gainditzen badu, Hezkuntza Sailak, 2007an, ordainketa-analogiaren prozesuan eragindako kaltea konpontzeko behar diren kredituak eskatzeko konpromisoa hartu du.

Akordioaren edukia hobe daiteke, baldin eta Foru Parlamentuak aurreikusitako aurrekontu-hornidura areagotuko balu.

1.2.2.3.4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko Maisu-maistren Kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketaren deialdiko praktikaldia arautzen da. 153/2005 Foru Agindua, irailaren 20koa (NAO, 119. zk., 2005eko urriaren 5koa)

Praktika horiek martxoaren 24ko 23/2005 Foru Aginduak⁹⁸ onetsitako maisu-maistren kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako deialdiari dagozkio, eta horien xedea da oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaiek irakaskuntzarako gaitasuna ba ote duten egiaztatzea.

Batzorde kalifikatzailearen osaera, praktikaldian tutoreak izendatzeko prozedura eta horiei dagozkien aholkularitza- eta informazio-funtzioak zehazten dira.

Praktikaldia bukatzean, irakasle tutoreak, ikasketaburuak eta ikastetxeko zuzendariak txosten bana eginen dute, berariaz adierazten diren alderdiei buruzkoa. Era berean, beste txosten bana ere egingo dute, hautagaiak ikaslean duen jardunari buruzkoa. Horretarako, praktiketako funtzionarioaren bi kasetara joanen dira gutxienez. Gainera, hautagaiak praktikaldian egindako lanari, topatu dituen zailtasunei eta jaso dituen laguntzei buruzko azken memoria edo txostena idatziko du.

Ebaluazioa egiteko oinarritzat hartuko dira bi txosten-motak eta aipatu memoria-txostena. Kalifikazioa positiboa izango da arauan berariaz adierazitako adierazle guzti-guztietan 2. maila eskuratzen duenean. Bestela, negatiboa izango da.

Adierazleren batean kalifikazio negatiboa eskuratuko balu, praktikaldia errepikatu egin beharko luke 2006/2007 ikasturtean.

Batzorde Kalifikatzailearen erabakia “gai” eta “ez gai” terminoetan adieraziko da. Praktiketako funtzionarioari “Gai” kalifikazioa emanen zaio txostenetan kalifikazio positiboa dagoenean adierazle guzti-guztietan, betiere ikastetxeko ikuskatzaileak desadostasun txostena eman ez badu. “Ez gai” kalifikazioa hartzen duten praktiketako funtzionarioek karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko dituzte. Gainera, funtzionarioei azterketa medikoa eginen zaie irakas-kuntzan aritzeko behar diren baldintza fisiko eta psikikoak betetzen dituztela egiaztatzeko.

1.2.2.3.5. Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuarekin irakasle lanpostuetan arituko diren izangaien zerrendak kudeatzeko arauak. 156/2005 Foru Agindua, irailaren 23koa (NAO, 118. zk., 2005eko urriaren 3koa)

2004ko otsailaren 27ko 334/2004 Errege Dekretuan⁹⁹ hezkuntza sistemako eskola irakaskuntza ematen duten irakasleen kidegoetan eta hezkuntzako ikuskatzaileen kidegoan ingesatu, sartu eta espezialitate berriak eskuratzeko Erregelamendua onetsi zen.

Hori dela-eta, eta Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ituna kontuan izanik¹⁰⁰, nahitaezkoa da gai honen gaineko araudi erregulatzailea aldatzea.

Foru agindu honen helburua da aldi baterako kontratazioaren bidez lanpostuak betetzeko prozedura erregulatzea, eta mota honetako kontratazioetarako izangai zerrendak kudeatzea eta erregulatzea.

Erabiliko den kontratu modalitatea kontratu administratiboa izanen da, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuko¹⁰¹ 88. artikulurekin eta hurrengo artikuluekin bat. Kontratua bertan behera geldituko da betiere dagokion ikasturtea bukatzen denean.

Lanpostuen aldi baterako kontratazioa egiteko izangaien zerrenda bakarra izanen du oinarri, espezialitate bakoitzerako eta hizkuntza bakoitzerako, irakaskuntzako ondoko kidego bakoitzean: Maisu-maistrak, Bigarren Hezkuntzako irakasleak, Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleak, Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleak, Arte Plastikotako eta Diseinuko irakasleak, eta Arte Plastikotako eta Diseinuko Tailer maisuak.

Salbuespen gisa, espezialitate eta hizkuntza bateko zerrendak erabili ahal izanen dira hurbileko espezialitate bati dagozkion irakasle lanpostuak betetzeko.

Foru Aginduak zerrendak osatuko dituzten izangaiak bete beharreko eskakizun orokorrak eta titulazioa zehazten ditu.

Izangai berriak ikasturtearen lehenengo hiruhilekoaren hasieran egingo den merezimendu-lehiaketaren bidez sartu ahal izango dira. Horretarako, aplikatu beharreko merezimenduen baremoa zehazten da.

Ikasturte bakoitzaren hasieran ere deitu daiteke lehiaketa, izangaien zerrendan dauden horiek beren merezimenduak eguneratu ahal izan ditzaten.

Izangaien zerrendak prestatzeko jarraitu beharreko prozedura zehazten du. Lanbide Heziketako berariazko zerrendentzat probak gainditu beharra eta profil edo eskakizun berezi jakinetara egokitu beharra ezarri ahal da.

Musikako goi-mailako eta erdi-mailako espezialitateetarako irakaskuntzak emateko irakasleen zerrendak prestatzeko probak ere ezarri daitezke.

Deialdirako mekanismo orokorra eta kontratuak sinatzeko salbuespen egokiak ezartzen dira. Espezialitate edo hizkuntza batean dagokion xedeari uko egin ezina ezartzen da. Lanpostuari uko egiteko prozedura ere adierazten da, eta aurreko ikasturtean aukera hori gauzatu bada alegatu beharko diren baldintzak zehazten dira.

Izangaiak zerrendatik kanpo uzteko balizkoak arautzen dira eta baita ere kontratua gerora sorturiko arrazoiak direla-eta ebazteko balizkoak, kontrataturiko langileak ez duelako gaitasunik lanpostua betetzeko edo ez delako horretan moldatzen.

Izangaien zerrendan funtzio publikora sartzeko proben ariketaren bat gainditu duten horiek guztiak sartuko dira, prozesua erabat gainditu ez badute ere.

Bertan behera uzten da urriaren 23ko 395/2001 Foru Agindua¹⁰², hamaikagarren eta hamabigarren oinarria salbu, horiek 2005/2006 ikasturtean aplikagarri izango baitira. Indarrik gabe uzten dira, halaber, arau hauen aurka dauden xedapen guztiak.

Azaroaren 21eko 188/2005 Foru Aginduak¹⁰³ (NAO, 144 zk., abenduaren 2koa) irailaren 23ko 156/2005 Foru Aginduaren¹⁰⁴ zenbait alderdi aldatzen ditu, eta akats batzuk zuzentzen ditu.

1.2.2.3.6. EBko Sokrates Programaren ekintza deszentralizatueterako laguntzen deialdia. 1194/2005 ebazpena, azaroaren 28koa. (NAO, 153. zk., 2005eko abenduaren 23koa)

Sokrates programaren bigarren fasea Europar Parlamentuaren 253/2000/EE Erabakiaren bidez eta Kontseiluaren 2000ko urtarrilaren 24ko Erabakiaren bidez onetsi zen (2000ko otsailaren 3ko L28 zenbakiko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, EEAO).

Ekintza osagarrietan jasotako hezkuntza-lehentasanak ondorengo hauek dira:

- Bizitza osoan ikasteko gogoia bultzatzea.
- Herritartasuna, aukera berdintasuna eta gizarte kohesioa sustatzea.
- Ikasleen errendimendua hobetzea irakurriaren ulermeneko, atzerriko hizkuntzetako eta matematikako gaitasun gakoetan.

Ondorengo ekintza deszentralizatueterako laguntzen deialdia onesten da:

Comenius 1: Mugaz gaindiko eskola elkarteak. Horren xede nagusia eskolako hezkuntza hobetzea da, hala nola hezkuntzaren hedadura europarra bultzatu, hizkuntzen ikaskuntza sustatu eta kulturaren aniztasunaz ohartaraztea. Barruan hartzen ditu: 1.1. Eskola proiektuak, 1.2. Hizkuntza proiektuak, 1.3. Eskola garpenerako proiektuak; 1.4. Hizkuntza-laguntzaileak ikastetxeetan hartzea

Comenius 2.2: Ekintza honen bidez prestakuntzarako beka ematen zaizkie irakasleei, irakasle izatekoei eta eskolako irakaskuntzan bestelako eginkizunak dituzten langileei, asmoa delarik beste estatu batzuetara aldatzeko ekintzak egin daitezzen, haien hasierako prestakuntzari edo jardunbide profesionalari lotuak. Ekintza honetan hiru atal aurreikusi dira: Hasierako prestakuntzarako banakako beka (2.2.A); Hizkuntza-laguntzaileak (2.2.B); eta prestakuntzarako banakako beka, irakasleen prestakuntza etengabea (2.2.C).

Grundtvig: Xedea helduen hezkuntzaren kalitatea eta ikuspegi europarra zentzu zabalean hobetzea da, hala nola Europako herritarrei bidea ematea bizitza osoan zehar ikas dezaten. Ondorengo ekintza hauek hartzen ditu; Grundtvig 2: Ikaskuntza elkarteak; Grundtvig 3: Helduen irakasleen prestakuntzarako mugikortasuna;

Arion: Xede nagusia da erabakiak hartu behar dituzten arduradunek eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntzaren edozein sektoretako hezkuntza erakundetako zuzendaritza kargudunek ikasketa egonaldiak egitea, estatu kideentzat interesgarriak diren gaien inguruko informazioa eta esperientziak trukatzeko.

Deialdiaren oinarri orokorrak zehazten dira: xedea eta helburua, dokumentazioa, eskabideak aurkezteko modua eta epea, ekintzak eta jarduerak, balorazio-batzordea eta eskabideen aukeraketa, deialdiaren ebazpena, laguntza justifikatzea eta jasotzea, bidaia-asegurua, irakasleen baimenak, dokumentazioa kentzea, ziurtagiriak, balibideak, laguntza-kopurua.

Aurreikusi diren laguntzen xede diren proiektu edo ekintza guztiei lotutako gaiak ere zehaztu dira.

1.2.2.3.7. Irakaskuntza pribatu hitzartuko irakasleentzako hitzarmena. (Ez da argitaratu)

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, FSIE, FETE-UGT, OSO eta CCOO sindikatuekin batera, jarraian adierazten den hitzarmena sinatu zuten 2005eko azaroa-

ren 8an, "guztientzako eta guztien arteko kalitatezko hezkuntza eraginkorra sustatzeko" xedez.

Ikastetxe pribatu hitzartuetako irakasleen ordainsariak urrats desberdinetako irakasle estatalen ordainsariekin berdintze aldera egitearen inguruko 10 konpromiso hartu ziren. Ministerioak hitzarmen-moduluak areagotzea proposatuko du, izaera orokorrez funtzionario publikoentzat ezartzen diren ordainsari-gehikuntza berdinak bermatzeko; 2007. urtean bi irakasle-moten artean 2005. urtean eman ziren gehikuntza-desberdintasunak berreskuratzeko konpromisoa hartzen da (%0,7koa dela kalkulatzeko da); 2006. urtean 3,1eko gehikuntza egiteko konpromisoa hartzen du (gehikuntza hori funtzionario publikoentzat kalkulatu-takoa da); hitzarmen-moduluaren beste gastuen kontu-saila, neurri horiek administrazioko eta zerbitzuetako langileei aplikatzeko, berrikusteko konpromisoa hartzen da.

Ministerioak DBHko 1. eta 2. mailatan aritzen diren lizentziatuen ordainsariak Bigarren Hezkuntzako gainerako ikasturteetan aritzen diren horienekin berdintzen joatea proposatuko die Hezkuntza Administrazioei. Neurri bera proposatzen da DBHko 1. eta 2. mailatan aritzen diren maisu-maistrekin, ikasturte horietan irakasten jarduten diren maisu-maistra funtzionarioen ordainsariekin berdintze aldera.

Ministerioak hartzen duen beste konpromiso bat da LOE garatzen den heinean arlo eta gai desberdinetarako ordutegi-esleipenek ez dutela sortuko enplegua mantentzearen gainean eta, bereziki, DBHko 1. eta 2. maila aritzen diren maisuengan eragina izan dezaketen ordutegi-esleipenek ekarritako aldaketa gatazkatsurik. Irakasleek IV. Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako aparteko ordainsaria, antzinatasunagatikoa, jaso dezaten gauzatu beharreko kudeaketak abian jartzeko konpromisoa ere hartzen du.

Ministerioak prestakuntza iraunkorrerako planetan eta jardueretan hartuko ditu irakaskuntza hitzartuko irakasleak, eta Administrazio egokiei modu berean jardun daitezkeen eskatuko die.

Ikasle/irakasle ratioen berrikuspena eta horiek moduluen zenbatekoan duten eragina aztertzeke konpromisoa hartu du baita ere. Azkenik, Hezkuntza Berezi-ko ikastetxeetako langile osagarrien egoera aztertzeke konpromisoa hartu du, irakaskuntzako funtzioak betetzen dituzten horiek pixkanaka irakaskuntzako langile gisa txertatzen joateko xedez.

1.2.2.4. Irakaskuntzak

1.2.2.4.1. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Caja Navarra Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei etxetik etxeko eskola-laguntza ematekoa. 178/2005, azaroaren

9koa. (NAO, 8. zk., 2006ko urtarrilaren 18koa)

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Caja Navarra Fundazioaren artean lankidetzat hitzarmena sinatu da, 2006. ikasturtean etxez etxe-ko eskola-laguntza emateko programa ezartzekoa.

Hezkuntza Departamentuarentzat beharrezkoa da etxez etxe-ko eskola-laguntza emateko programa bultzatzea, eritasunagatik edo eriondoan egoteagatik denbora luzean ikastetxeetara joan ezin diren ikasleentzat. Fundazioaren helburu soziala gizartearen gizarte eta kultur jarduerak garatzea eta hedatzea da.

Bi interesak bat datozenez, Caja Navarra Fundazioak proiektu horretan lagunduko du 47.230 euroekin.

Hezkuntza Departamentua programaren kudeaketaz, antolaketaz eta funtzionamenduaz arduratuko da, hala nola etxeetan programa ematen duten irakasleei aholku emateaz.

Hitzarmenaren edukiari behar bezalako segimendua egiteko, Jarraipen Batzorde paritarioa eratuko da. Gainera, hitzarmen honetan itunduaz sortzen diren auziak konpontzeko, bi alderdiek onartzen dute Ekitaterako arbitraje kontseilu baten menpe jartzea.

Etxez etxe-ko laguntzaren kontzeptua zehazten da; gainera, programa Haur Hezkuntzan, Derrigorrezko Hezkuntzan eta Derrigorrezko Hezkuntzaren ondoko hezkuntza ez-unibertsitarioan eskolatuak dauden ikasleentzat da, hala ikastetxe publikoetakoentzat nola itunduetakoentzat. Etxez etxe-ko laguntza eskatzeko prozesua zehazten da; eta baita programaren arduradun den tutorearen eta irakaslearen erantzukizuna ere.

Tutorea arduratuko da irakasle taldeak ikaslearekin etxean landu beharreko curriculum proposamena prestatzen duela begiratzeaz. Programako irakasle arduraduna tutorearekin eta lan saioak emanen dituen irakasle arduradunarekin bilduko da, honako hauek finkatzeko: ikaslearekin etxean garatu beharreko curriculum diseinua, metodologia, astean izanen diren lan saioen kopurua, etxera joateko gurasoekin adostutako ordutegia eta hiru alderdiok izanen dituzten koordinazio saioak.

Hitzarmena 2005. urteko irailaren 1etik 2006. urteko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Epe hori iragan ondoren, hitzarmena indargabetu egingo da.

¹⁰⁵ 196/2001 Foru Dekretua, uztailaren 16koa, hizkuntzen irakaskuntza espezializatuen oinarriko zikloa antolatzen duena, eta bere curriculuma ezartzen duena (NAO, 106. zk., 2001eko abuztuaren 31koa).

¹⁰⁶ 272/2003 Foru Dekretua, uztailaren 28koa, lehenengo mailako hizkuntza-irakaskuntza espezializatuen goi-mailako zikloa antolatzen duena, eta bere curriculuma ezartzen duena (NAO, 108. zk., 2003ko abuztuaren 25ekoa).

1.2.2.4.2. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Caja Navarra Fundazioaren artean lankidetzaz hitzarmena, ikasleei eskolako laguntza emateko programa garatzeko. 179/2005 Foru Agindua, azaroaren 9koa. (NAO, 153. zk., 2005eko abenduaren 23koa)

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Caja Navarra Fundazioaren artean lankidetzaz hitzarmena sinatu da, Lehen Hezkuntzako ikasleei eskolako laguntza emateko programa garatzeko.

Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, aniztasunaren arretarako neurri orokorren osagarri modura, eskolako laguntza emateko programa sustatu nahi du. Caja Navarra gizarte eta kultur jarduerak garatzen eta hedatzen laguntzea du xedetzat.

Bi interesak bat datozenez, Caja Navarra Fundazioak proiektu horretan lagunduko du 14.000 euroekin.

Hezkuntza Departamentuak aholkularitza eskainiko die programan arituko diren irakasleei eta begiraleei, eta beharrezkoak diren gastu materialei erantzungo die. Horretarako, 2.000 euro ordainduko ditu programari lotutako ikastetxe bakoitzeko.

Hitzarmenaren edukari behar bezalako segimendua egiteko, Jarraipen Batzorde paritarioa eratuko da. Gainera, hitzarmen honetan itunduaz sortzen diren auziak konpontzeko, bi alderdiek onartzen dute Ekitaterako arbitraje kontseilu baten menpe jartzea.

Programa gizarte eta kultur egoera behartsuan dauden ikasleentzat da, curriculumean atzerapenak izanik, eskola ordutegia bukatutakoan estudiatzeko ingurune sozial edo familia giro egokirik ez dutenentzat. Programa kultur, gizarte eta hezkuntza egoera behartsuan dauden 10 eta 13 urte bitarteko ikasleen ehuneko handia duten Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batzuetan garatuko da. Helburu zehatzak

¹⁰⁷ 255/1999 Foru Dekretua, uztailearen 6koa, Helduen Oinarriko Hezkuntza arautzen duena, eta irakaskuntza horien Nafarroako Foru Erkidegoko berariazko curriculumaz ezartzen duena (NAO, 1999ko abuztuaren 30koa).

¹⁰⁸ 295/1999 Foru Agindua, abuztuaren 24koa, pertsona helduen Oinarriko Hezkuntzari dagozkion irakaskuntzen ezarpena arautzen duena, eta irakaskuntza horiek Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetan ikasten dituzten ikasleen sarbidea eta matrikulazioa arautzeko jarraibideak ematen dituena, 1997/2000 ikasturtetik aurrera (NAO, 1999ko urriaren 6koa).

¹⁰⁹ 79/2000 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Nafarroako Foru Erkidegoan pertsona helduen Oinarriko Hezkuntzako irakaskuntzak egiten dituzten ikasleen ebaluazioari eta kalifikazioari buruzko arauak ematen dituena (NAO, 2000ko apirilaren 12koa).

¹¹⁰ 592/2005 Ebazpena, ekainaren 28koa, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta Lanbide Hastapenerako Programetako bigarren zikloko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoan 2005-2006 ikasturterako antolakuntza eta funtzionamendua arautzen dituzten jarraibideak ematen dituena (NAO, 91. zk., 2005eko abuztuaren 1koa).

¹¹¹ 19/2002 Foru Legea, ekainaren 21koa, pertsona helduen hezkuntza arautzen duena (NAO, 78. zk., 2002ko ekainaren 28koa).

dira gaitasun oinarrikoen eta instrumentalen garapena sendotzea; norberaren lanerako gaitasuna eta ohiturak hartzen laguntzea; eskolako lanak egiteko aholku eta laguntza ematea; eta ikastetxean eta gizartean integratzeko aukerak hobetzea.

Programa ikastetxean berean eginen da, astean bi arratsaldetan, 90 minutuko saioretan. Ikasleak taldeetan antolatuko dira, eta talde bakoitzean 15 ikasle izanen dira gehienez, ikastetxe horretako irakasle baten eta kanpoko "begirale" baten ardurapean.

Irakaslearen edo begiralearen eta zuzendaritza-taldearen funtzioak zehazten dira, eta familiek hartu beharreko konpromisoak ezartzen dira.

Izaera esperimentalez 2005-2006. urtean programa hartuko duten ikastetxeak zein izango diren zehaztuko da.

Hitzarmenaren iraupena 2005eko irailaren 1etik 2006ko abenduaren 31 artekoa izango da. Epe hori iragan ondoren, hitzarmena amaitutzat emango da.

1.2.2.4.3. Haur Hezkuntzako Gaztelaniaren, D ereduko Euskararen, A ereduko Euskararen eta Matematikaren errendimendu-estandarrak ezartzea. 81/12005 Ebazpena, 2005eko irailaren 13koa (2005eko urriaren 3ko 118. zk. NAO)

Atlante Proiektuaren baitan, Haur Hezkuntzako Gaztelaniaren, D ereduko Euskararen, A ereduko Euskararen eta Matematikaren errendimendu-estandarrak lantzen dira.

Estandar horiek argi eta zehatz ezartzen dituzte ikasleek Haur Hezkuntza amaitzean lortu beharreko helburuak. Ebaluaziorako ezinbesteko erreferentzia dira.

1.2.2.4.4. Bigarren Hezkuntzako institutueterako frantseseko atal elebidunen programa esperimentalak. 298/2006 Ebazpena, martxoaren 21ekoa (NAO, 48. zk., 2006ko apirilaren 21ekoa)

¹¹² 287/2005 Ebazpena, apirilaren 7koa, Hezkuntza Saileko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako nahiz Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntza arautuak ematen dituzten ikastetxeen 2005-2006 ikasturterako eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko arauak onesten dituena (NAO, 52. zk., 2005ko maiatzaren 2koa).

¹¹³ 2/1995 Foru Dekretua, urtarrilaren 9koa, unibertsitatekoak ez diren mailatako ikastetxeen eta eskola-egoitzen nahiz eskola-erabilerara atxikitako kirol instalazioen erabilera arautzen duena (NAO, 1995eko urtarrilaren 23koa).

¹¹⁴ Ikus 85. zk.-ko oharra.

¹¹⁵ 24/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako Foru Erkidegoko lurralde-eremuan dauden Haur Hezkuntzako Eskola Publikoen, Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoen eta Haur

Hizkuntzen ikaskuntza Europar Batasunaren eraikuntzaren eta herritarren mugikortasunaren sustapenaren funtsezko osagaia da. Europako Batzordearen helburua gizarte egiazki eleaniztun bat da: gizarte bat, non herritar bakoitza ama hizkuntzan ez ezik gutxienez ere beste bi hizkuntzatan moldatzen ahal baita.

Hezkuntza Departamentuak atzerriko hizkuntzen jakite-maila sustatu eta hobetzeko ekintzak sustatzen ditu, bai Araubide Orokorreko, bai Araubide Berezi-ko irakaskuntzan. Hezkuntza sistemak bide ematen du atzerriko lehen hizkuntza hiru urtetik aurrera ikasteko.

Ebazpenean xedatutakoarekin Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzen ikaskuntza sustatzea eta hobetzea bilatzen da. Horrela, frantsesezko atal elebidunen programa bat abian jartzea proposatzen da, Frantziaren Enbaxadaren sostengu instituzionala edukirik, Espainiak eta Frantziak 2005eko maiatzaren 16an izenpe-
turiko lankidetzaren hitzarmenaren bidez.

Atal horietan, frantsesaz gain, curriculumeko ikasgaiaren bat edo bi ere emango dira frantsesez. Programa esperimentalak 2009/1010 ikasturtera arte luzatzen da.

Ebazpenak deialdia onesten du. DBHko 3. mailako ikasleei eta ondorengo ikas-
turteetako ikasleei zuzentzen zaie. 3. mailan hizkuntza horretan irakasten diren hizkuntzez kanpoko edukiak ulertzeko behar den hizkuntz osagarrietarako bi-
deratuko da. DBHko hirugarren mailatik aurrera, frantsesaz jasoko dituzte, par-
zialki edo osorik, curriculumeko ikasgai bat edo bi.

Programa, hala ere, DBHko lehen mailan hasiko da. Horretarako frantseseko ikasgaiaren eskola ordutegiari astean ordu bat edo bi gehituko zaizkio. Ordute-
gi luzatuari etapa osoan eta, hala bada, Batxilergoan eutsiko zaio. Ataleko hiz-
kuntzez kanpoko ikasgaiaren ordutegia ez da behin ere luzatuko.

Ikasle parte-hartzaileek DBHko lehen mailan matrikulaturik egon beharko dute, horretarako egiten duen hasierako proban ebaluazio positiboa lortu beharko dute, eta gurasoen edo tutoreen idatzizko baimena beharko dute. Batxilergoko 1. mailako ikasle berriak ere sartu ahal izango dira programan, baldin eta DBH-

Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoen Araudi Organikoa onesten duena (NAO, 1997ko martxoaren 14koa).

¹¹⁶ 257/1998 Foru Agindua, uztailaren 16koa, Haur Hezkuntzako Eskola Publikoen, Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoen eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Eskola Publikoen Araudi Organikoa garatzeko (NAO, 1998ko abuztuaren 26koa).

¹¹⁷ 417/1992 Foru Dekretua, abenduaren 14koa, unibertsitatekoak ez diren ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituena (NAO, 7. zk., 1993ko urtarrilaren 15koa).

¹¹⁸ 191/1997 Foru Dekretua, uztailaren 14koa, unibertsitatekoak ez diren ikastetxeetako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua aldatzen duena (NAO, 1997ko abuztuaren 1ekoa).

¹¹⁹ 6/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, tabakoaren kontsumoari aurrea hartzeko, aire arnasgarria babesteko eta tabakoari dagokionez osasuna sustatzeko (NAO, 2003ko otsailaren 21ekoa).

ko 4. mailan Hizkuntzan eta atal elebiduneko ikasgaietan gutxienez ere “ongi” kalifikazioa lortu badute. Gainera, ikasleek aukera izanen dute frantsesezko DELF Scolaire berriazko diplomako probetara aurkezteko.

Ondorengo hauek ere zehazten dira: atalean parte hartuko duten irakasleen baldintzak, atala baimentzeko baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea, hautapenerako irizpideak eta batzordea, irakasleen prestakuntza eta planaren jarraipena, ikasturte amaierako memoria eta luzapena, eta parte-hartzea amaitzeko mekanismoa.

1.2.2.4.5. Nafarroako Hizkuntz Eskola Ofizialetan emandako hizkuntza-irakaskuntzen proba ziurtatzaileak prestatzeko eta aplikatzeko jardunbidea arautzekoa. 1234/2005 Ebazpena, abenduaren 1ekoa (2006ko urtarrilaren 4ko 2. zk. NAO)

Uztailaren 16ko 196/2001¹⁰⁵ eta uztailaren 28ko 272/2003¹⁰⁶ Foru Dekretuek Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizialetan ematen diren hizkuntza ikasketen curriculumak ezartzen dituzte, bai eta Nafarroako Hizkuntza Eskola Ofizial guztietan oinarritzko eta goi mailako zikloetako ziurtagiriak lortzeko gainditu behar den proba bateratua ere. Proba bateratuak prestatu beharrak berarekin dakar funtzionamendu prozedura bat ezartzea, horrela ikasketa maila bakoitzeko ebaluazio probak prestatu eta egitearen ardura duten hizkuntza bateko departamentu guztien koordinazioa eta adostasuna bermatzeko.

Beraz, hizkuntza ikasketen ziurtagiria lortzeko probak prestatu eta aplikatzeko prozedura onesten da, eta lan horiek egiteko Koordinazio Batzordea eratzen da. Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendaria eta ikastetxetako hizkuntza departamentuen buruak dira Batzordeko buruak.

1.2.2.4.6 Helduen Oinarritzko Hezkuntzaren zuzeneko modalitatean I., II., eta III. mailako ikasketak eta urrutiko modalitatean III. mailakoak 2005-2006 ikasturterako garatzeko jarraibideak. 689/2005 Ebazpena, uztailaren 12koa. (NAO, 108. zk., 2005eko irailaren 9koa)

Jarraibide hauek eta uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretua¹⁰⁷, abuztuaren 24ko 295/1999 Foru Agindua¹⁰⁸, martxoaren 6ko 79/2000 Foru Agindua¹⁰⁹ eta ekainaren 28ko 592/2005 Ebazpena¹¹⁰ osagarriak dira.

1. eranskinean ageri diren jarraibideak helduen oinarritzko hezkuntzako ikastetxe publikoei eta helduen oinarritzko hezkuntzako ikasgelei aplikatuko zaizkie. 2. eranskinean ageri direnak helduen oinarritzko hezkuntzaren zuzeneko modalitatean III. mailako ikasketak garatzekoak dira. 3. eranskinean ageri direnak, berriz,

¹²⁰ Ikus 43. zk.-ko oharra.

¹²¹ Ikus 86. zk.-ko oharra.

helduen oinarritzko hezkuntzaren urrutiko modalitatean III. mailako ikasketak garatzekoak dira.

Helduen Oinarritzko Hezkuntzako ikastetxe publikoek eta ikasgelek, bai eta Helduen Oinarritzko Hezkuntzako III. maila ematen duten Bigarren Hezkuntzako institutuek ere, jarraibide hauetan ageri ez den orotan, ekainaren 28ko 592/2005 Ebazpenaren 1. eta 3. eranskinetan izaeraz orokorraz ezarritakoa bete beharko dute.

1. eranskina. Helduen Oinarritzko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoen eta Helduen Oinarritzko Hezkuntzako Ikasgelen antolaketa eta jarduna arautzekoa.

Prestakuntza-eskaintzak Departamentuak esleitutakoak dira. Lehenasunezko prestakuntza jarduerak dira 19/2002 Foru Legearen¹¹¹ 5. artikuluko a), f) eta g) ataletan aipatzen direnak. Prestakuntza pertsonaleko jarduerak izango dira, berriz, 19/2002 Foru Legearen 5. artikuluko c), d), e), h) eta i) ataletan aipatzen direnak.

Irakaskuntza-modalitate horietan onartuak izateko adin-baldintzak adierazten dira. Ondorengo hauek ere zehazten dira: eskariari erantzuteko nahikoa plaza-eskaintza ez dagoenean erabili beharreko onarpen-irizpideak; irakaskuntza-talde desberdinak eratu ahal izateko ratioak; programatutako jarduera desberdinen asteko ordutegiak; ikaslearen hasierako balorazioa (IHB) egin beharra; eta garatutako jarduerak ziurtatzeko moduak.

Eskola-egutegia apirilaren 7ko 287/2005 Ebazpenean¹¹² aurreikusitakoari eta 2005eko maiatzaren 10eko zirkularrari jarraiki prestatuko da.

Ikastetxe guztiek Urteko Programazio Orokorra eginen dute; programazio horrek hezkuntzako jarduera guztiak koordinatuko ditu. Programazio horrek barruan hartuko ditu: ikastetxearen ordutegi orokorra, ikastetxea zein ordu eta baldintzatan egonen den irekita barne (urtarrilaren 9ko 2/1995 Foru Dekretuan¹¹³ ezarritakoaren arabera); eskola jardueren eta eskolakoak ez direnen arteko banaketa; hezkuntza-proiektua eta curriculum-proiektua, 2005-2007 urte-etarako hobekuntza-planak; irakasleen prestakuntza-plana; jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak; eta memoria administratiboa (IAD). Programazio Orokor hori prestatzeko, onesteko eta ebaluatzeko jarraibideak ematen dira.

Irakasleei dagokienez, ondorengo hauek zehazten dira: lanaldia; asistentziaren kontrola; eta taldeak eta ordutegiak esleitzeko irizpideak. Asteko ordutegia 30 ordukoa izango da; horietatik 25 eskola-orduak izango dira, eta bost, berriz, osagarriak. Eskola-ordutegia uztailaren 5ko 225/1998 Foru Dekretua¹¹⁴ aldatzen duen azaroaren 4ko 229/2002 Foru Dekretuan adierazitakora doituko da. Zerbitzuak hainbat lekutan ematen dituzten irakasleen ordutegiak ere antolatzen dira, eta baita ere zuzendaritza-taldeko kide desberdinen, taldeko buruen, maila

¹²² Ikus 82. zk.-ko oharra.

bakoitzeko koordinatzaileen, berariazko jardueren irakasleen nahiz 58 urtetik gorako irakasleen ordutegi-murrizketak. Bereziki arautzen dira “Mentor ikasgele-tako” eta espetxeetako irakasleen funtzioak eta ordutegiak.

Helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxe publikoetako kide bakarreko nahiz ki-de anitzeko gobernu-organoak adierazten dira. Horiek osaera eta funtzioak otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretuan¹¹⁵ adierazitakoak izango dira. Gainera, uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuko 34.5 artikuluan adierazitakoaren arabera zehazten diren irakasle-taldeen buruak egongo dira.

Irakaslan koordinatzeko organoak ere antolatzen dira: tutoreak, mailako talde-ak eta koordinazio pedagogikorako batzordea. Horiei otsailaren 10eko 24/1997 Foru Dekretuaren II, III eta IV. Kapituluetan eta uztailaren 16ko 257/1998 Foru Aginduko¹¹⁶ II. Izenburuan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Ikasleen eskubide eta betebeharreri dagokienez, abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua¹¹⁷ eta aurrekoa aldatzen duen uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretua¹¹⁸ aplikatuko dira. Ikasleak klasetara joatea eskubide bat eta betebehar bat da aldi berean. Ikasleen hutsegite-kopuru jakin bati lotutako zenbait balizko ezartzen dira, baja ematea eragin dezaketenak.

Bizikidetasuna, osasuna eta higiena tabako kontsumoari buruzko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legean¹¹⁹ ezarritakoaren arabera izango dira. Ikastetxe-tatik kanpoko jendea sartzeko ikastetxeko zuzendariaren baimena beharko da.

II. eranskina. Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren zuzeneko modalitatean III. maila-ko ikasketak 2005-2006 ikasturterako garatzeko jarraibideak.

Curriculumua uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuaren IV. Kapitulua ezarritakoa da. Ikasketak bi ziklotan antolatzen dira eta bakoitzak bi lauhileko hartzen ditu. Edukia lau esperientzia esparrutan antolatzen da: Komunikazioa, Matematika, Natur Ingurunea eta Gizarte Ingurunea. Horiek 20 modulutan banatzen dira: nahitaezkoak 16 (4 esperientzia esparru bakoitzeko) eta aukerakoak 4. Modulu- en eskaintzak Hezkuntza Departamentuaren baimena beharko du, eta modu-

¹²³ Ikus 85. zk.-ko oharra.

¹²⁴ Ikus 108. zk.-ko oharra.

¹²⁵ 79/2000 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Nafarroako Foru Erkidegoko Pertsona Helduen Oinarrizko Hezkuntzako irakaskuntzak egiten ari diren ikasleen ebaluazioari eta kalifikazioari buruzko arauak ematen dituena (NAO, 2000ko apirilaren 12koa).

¹²⁶ 687/2006 Ebazpena, ekainaren 28koa, 2006/2007 ikasturtean zehar Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbide Hastapeneko Programetako bigarren zikloko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolakuntza eta funtzionamendua arautuko dituzten jarraibideak onesten dituena (NAO, 95. zk., 2006ko abuztuaren 9koa).

¹²⁷ 689/2005 Ebazpena, uztailaren 12koa, 2005/2006 ikasturtean zehar Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Lanbide

lu bakoitzeko ikasle-kopurua nahiz irakasleen eskuragarritasuna hartuko dira kontuan. Moduluko ikasle-ratioa 15koa da.

Ikasleek irakaskuntza-modalitate honetan sartzeko bete beharreko adin-eskakizunak ezartzen dira, abuztuaren 24ko 295/99 Foru Aginduaren 4. puntuko 4, 5, 6, 7 eta 8. atletan ezarritako baldintza akademikoen arabera. DBHko titulua eskuratu ez dutenei, baldin eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzan sartu nahi badute, gaindituztat emanen zaizkie esperientzia esparruak osatzen dituzten moduluak, 295/1999 Foru Aginduaren I. eranskinean ageri diren baliokidetzen arabera. Edozein esperientzia esparrutako modulu bat gaindituztat emanen zaie, moduluaren integratutako arlo edo irakasgai guztiak gainditzen direnean. Ondorio horietarako, Plastika eta Ikus-hezkuntzaren arloa, Matematikaren esperientzia esparruan integratuztat jotzen da; Musika arloa Gizarte Ingurunearen esperientzia esparruan; eta Gorputz Hezkuntzaren arloa Natur Ingurunearen esperientzia esparruan.

Ikasleei Hasierako Balorazio bat (IHB) egingo zaie, agiri bidez egiaztatutako ikasketak baloratzeko, horien ezagutzak baloratzeko eta prestakuntza-ibilbidea zehazten lagunduko duen buruz buruko elkarrizketa bat egiteko. Ebaluazioaren ondoren, gaindituztat eman diren moduluak berriz egiteko aholkua ematen ahalko zaio ikasle bati.

Irakaskuntzen ordutegi-banaketa abuztuaren 24ko 255/1999 Foru Dekretuko V. eranskineko A) eta B) ataletan ageri da.

Ikasleak klaseetara joatea eskubide bat eta betebehar bat da aldi berean. Ikasleen hutsegite-kopuru jakin bati lotutako zenbait balizko ezartzen dira, baja ematea edo ebaluatua izateko eskubidea galtzea eragin dezaketena.

Ikasleen ebaluazioari eta hurrengo modulura igarotzeari buruzko guztian martxoaren 6ko 79/2000 Foru Aginduan ezarritakoari jarraitu behar zaio. Lauhileko bakoitza bukatutakoan, irakasleek beren ikasle taldearen azken ebaluazioko saioa eginen dute. Irakasleak dira, bakoitza bere moduluaren, ikasleen kalifikazioa ematen dutenak. Hala ere, ikasleak beste ziklo batera pasatzeko edo titulua emateko erabakiak modu kolegiatuan hartuko dira. Lehenengo mailatik gora igoko da derrigorrezko nahiz hautazko modulu guztiak gainditu direnean. Salbuespenez, moduluren bat gainditzeke geratzen zaion ikasleren bat igaro daiteke mailaz, mailari dagozkion helburu orokorrak lortu dituela eta hurrengo mailan apro-

Hastapeneko Programetako bigarren zikloko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolakuntza eta funtzionamendua arautuko dituzten jarraibideak onesten dituena (NAO, 108. zk., 2006ko irailaren 9koa).

¹²⁸ 362/2006 Ebazpena, apirilaren 12koa, Eskola Irakaskuntzen eta Lanbide Heziketako Zuzendari Nagusiarena, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako, eta Arte Plastikoen eta Diseinu irakaskuntzen 2006/2007 urterako eskola-egutegia eta ordutegi orokorra ezartzen dituena (NAO, 54. zk., 2006ko maiatzaren 5koa).

¹²⁹ Ikus 3. zk., I. I. I. epigrafea.

betxamenduarekin jarrai dezakeela irizten bada. Irizpide berdinak aplikatuko dira titulazio-proposamenari dagokionez.

Ikastetxeak Urteko Programazio Orokor bat izango du; bertan xehetasunez zehaztuko dira III. mailako irakaskuntzak.

LOGSEren¹²⁰ hamargarren xedapen gehigarrian eta laugarren xedapen iragan-korreen aurreikusitako irakasleak izanen dira irakaskuntza hauek emango dituztenak. Lehenbiziko zikloko moduluak maisu-maistren kidegoko irakasleek ematen ahalko dituzte. Horien lanaldia martxoaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuaren¹²¹ VI. Eranskinean eta hori aldatzen duen azaroaren 4ko 229/2002 Foru Dekretuan zehazten da.

Koordinazio-organoak otsailaren 19ko 25/1997 Foru Dekretuan¹²² ezarritakoak dira. Esperientzia-esparru bereko irakasleak bildu egingo dira, lauhileko bakoitzean behin, gutxienez, arau horretan zehazten diren gaiak jorratzeko.

Ikasleen eskubide eta betebeharreri dagokienez, abenduaren 14ko 417/1992 Foru Dekretua eta aurrekoa aldatzen duen uztailaren 14ko 191/1997 Foru Dekretua aplikatuko dira. Irakasleak klaseetara joatea eskubide bat eta betebeharrer bat da aldi berean. Ikasleen hutsegite-kopuru jakin bati lotutako zenbait balizko ezartzen dira, baja ematea eragin dezaketenak.

Bizikidetasuna, osasuna eta higiena tabako kontsumoari buruzko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabekoak izango dira. Ikastetxeetatik kanpoko jendea sartzeko ikastetxeko zuzendariaren baimena beharko da.

III. eranskina. Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren urrutiko modalitatean III. mailako ikasketak 2005-06 ikasturterako garatzeko jarraibideak

Curriculumua uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuan eta abuztuaren 24ko 295/1999 Foru Aginduan ezarritakoa da. Irakaskuntzak uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretuaren 16.1 artikuluan zehaztutako esperientzia esparruen arabera antolatzen dira. Lau esperientzia esparruetako bakoitzak lau modulu izanen ditu: bi derrigorrezkoak eta beste bi hautazkoak. Moduluak ikasturte bat iraunen dute. Irakasleek nahi dituzten moduluak egiten ahalko dituzte urte batean.

Moduluen eskaintzak Hezkuntza Departamentuaren baimena beharko du, eta modulu bakoitzeko ikasle-kopurua nahiz irakasleen eskuragarritasuna hartuko dira kontuan. Moduluko ikasle-ratioa 15koa da.

¹³⁰ 253/2004 Foru Agindua, irailaren 16koa, Nafarroako Foru Erkidegoko ikasle atzerritarren eta sozialki nahiz kulturalki kaltetuen dauden gutxiengoaren hezkuntza-arreta arautzen duena (NAO, 129. zk., 2004ko urriaren 27koa).

Zuzeneko irakaskuntzan bezala antolatzen da ikasleak irakaskuntza-modalitate honetan sartzeko eta hasierako balorazioa (IHB) egiteko bete behar dituzten baldintzei dagokien guztia.

Ikasleen arreta tutoretzen bidez gauzatu da, eta borondatezkoa izanen da ikasleentzat. Tutoretza bi eratakoa izanen da: banakakoa eta taldekoa. Taldeko tutoretzen helburua modulu bakoitzeko trebetasunak garatzen laguntzea da. Modulu bakoitzaren hasieran, saio bat plangintzako izanen da; jarraipenerako tarteko saio bat egingen da prozesuan, eta azken saio bat, ebaluazioa prestatzeko. Matematikaren, Natur Ingurunearen eta Gizarte Ingurunearen esperientzia esparruetako modulu bakoitzerako eta aukerako modulu bakoitzerako, taldeko tutoretza bat izanen da asteen, ordubetekoa. Komunikazioaren esperientzia esparruko moduluetarako, ordubeteko bi tutoretza saio programatuko dira: bat Gaztelania eta Literaturarako eta beste bat Hizkuntzarako.

Ikasleek beren borondatez parte hartuko dute jarduera horietan.

Ikasleen ebaluazioari eta hurrengo modulura igarotzeari buruzko guztian martxoaren 6ko 79/2000 Foru Aginduan ezarritakoari jarraitu behar zaio.

Ikastetxeak Urteko Programazio Orokor bat izango du; bertan xehetasunez zehaztuko dira III. mailako irakaskuntzak.

LOGSEren hamargarren xedapen gehigarrian eta laugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako irakasleak izanen dira irakaskuntza hauek emango dituztenak. Esperientzia-esparruak uztailearen 6ko 255/1999 Foru Dekretuaren VI. Eranskinean zehaztutakoaren arabera esleitu da.

Ikasketa-buruaren eta irakasle-tutoreen funtzioak zehazten dira.

Berriazko jarduketa eta programetan dauden ikasleei (Espetxea, Gizakia Helburu, Oasis, Antox, Ibarre-Multzoa, Caritas) berriazko irakasleek eskainiko diete arreta. Horiek NHBHlko irakasleekin koordinatuko dira. Ikasle horien ebaluazioa ikastetxe horretako irakasleek egingo dute, berriazko irakasleen laguntzarekin.

Irakaskuntza-modalitate hori "Félix Urabayen" NHBHlko irakasleek egingo dute. Ikastetxe horrek zehaztuko ditu irakaskuntza-modalitate hori garatzeko beharrezkoak diren berriazko material didaktikoak. Irakasleek laguntzarako materialak presta ditzakete.

¹³¹ 350/2004 Foru Agindua, abenduaren 9koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten duten ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen duena (NAO, 4. zk., 2005eko urtarrilaren 10ekoa).

¹³² 6/2001 Legea, abenduaren 21ekoa, Unibertsitatei buruzkoa (BOE, 2001eko abenduaren 24koa).

¹³³ 743/2003 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, 25 urtetik gorakoek unibertsitatera sartzeko egin behar duten proba arautzen duena (BOE, 159. zk., 2003ko uztailearen 4koa).

1.2.2.4.7. Helduen Oinarrizko Hezkuntzaren zuzeneko modalitatean I., II., eta III. mailako ikasketak eta urrutiko modalitatean III. mailakoak 2006-2007 ikasterako garatzeko jarraibideak. 753/2006 Ebazpena, uztailaren 19koa (NAO, 101. zk., 2006ko abuztuaren 23koa)

Jarraibide hauek eta uztailaren 6ko 255/1999 Foru Dekretua¹²³, abuztuaren 24ko 295/1999 Foru Agindua¹²⁴, martxoaren 6ko 79/2000 Foru Agindua¹²⁵ eta ekainaren 28ko 687/2006 Ebazpena¹²⁶ osagarriak dira.

Jarraibideak aurreko urterako onetsitakoan (689/2005 Ebazpena¹²⁷, uztailaren 12koa) berdinak dira, ondorengo alderdi hauetan izan ezik:

1. I, II eta III mailatan izena emateko eta matrikulatzeko baldintzen artean, zuzeneko modalitatean nahiz urrutikoan, desagertu egin da aurretiaz Espainiako hezkuntza sisteman eskolatuta ez zeuden eta oinarrizko prestakuntzan ga-beziak zituzten eta gaztelania ikasi beharra zuten adin nagusiko atzerritarren aipua. Gainera, 16 urtetik gorakoei araubide orokorreko ikastetxeetara joatea eragozten dien lan-kontratua izatea edo errendimendu handiko kirolariak izatea eskatzen zaie.
2. I eta II mailako irakaskuntzen jarduera desberdinen asteko ordutegien artean prestakuntza instrumentalerako irakaskuntza ez arautuen ordubete gehiago ematea ahalbidetzen da.
3. Eskola-egutegia apirilaren 12ko 362/2006 Ebazpenean¹²⁸ aurreikusitakoari egokituko zaio.
4. III. mailako zuzeneko irakaskuntzez arduratzen diren irakasleak maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko¹²⁹ 94. artikuluan eta I. Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoak izango dira.
5. Irakasleen prestakuntzarako planaren lehentasunezko ildoan artean, kanpetik etorritako pertsonen zuzendutako prestakuntza-jarduerak abiaraztea gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea sustatzen duten jarduerengatik ordeztuko da.
6. Eskola-ordutegia estaltzeko zehazten diren jardueren artean zailtasun berezia duten taldeei hezkuntza-laguntza ematea dago.
7. Ikastetxe bateko edo gehiagoko II. mailako lehenengo zikloan eskola-karga duten irakasleen betebeharren bat zehaztu egiten da, klaustroetan edo departamentuko bileretan parte hartzeari dagokionez, eta Eskola Kontseiluko kide hautagai izateko nahiz kideak hautatzeko eskubideari dagokienez.

¹³⁴ Ikus 43. zk.-ko oharra.

2

Jarduera parlamentarioa

2.1. Hezkuntzari buruzko Jarduera Parlamentarioa 2005eko maiatzaren 25etik 2006ko maiatzaren 25era

Parlamentuaren eremuan hezkuntza ez-unibertsitarioaren inguruan sortzen den jarduera parlamentarioa, Parlamentuak sustatzeko eta kontrolatzeko duen zereginaren barruan, Hezkuntza eta Kultura Batzordean edo Parlamentuko Batzarrean gertatzen da.

Hezkuntza eta Kultura Batzordea hurrengo kideek osatzen dute:

Eratze-data: 2003ko irailak 16

Mahaia

Lehendakaria: Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)

Lehendakariordea: Miguel José Izu Belloso jn. (IUN-NEB)

Idazkaria: Aurelia Lumbreras Íñigo and. (SPN)

Batzarkideak

- UPN - Josefina Bozal Bozal and.
- UPN - Pedro Eza Goyeneche jn.
- UPN - Esteban Garijo Pérez jn.
- UPN - José Antonio Rapún León jn.
- UPN - Begoña Sanzberro Iturriria and.
- UPN - Jesús Angel Mendaza Marrodán jn.
- SPN - José Luis Izco Biarge jn.
- SPN- Helena Berruezo Valencia and.
- SPN - Carlos Cristóbal García jn.
- ARALAR - Patxi Telletxea Ezkurra jn.
- CDN - Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn.
- EA - Maiorga Ramirez Erro jn.
- MISTOA - José Luis Etxegarai Andueza jn.

Egindako saioak

Gai ugari landu da. Batzordearen izenak berak adierazten duen bezala, hezkuntza, unibertsitarioa barne, helburu duela kontuan hartu behar da. Ondoren

aurkezten diren datuak Nafarroako Parlamentuaren Jardueraren txostenean azaldutakoaren laburpena besterik ez da. Denboraldia 2005eko maiatzaren 25etik 2006ko maiatzaren 25era bitartekoa da. VI. legealdia dagozkio eta hezkuntza ez-unibertsitarioa aipatzen da.

Batzordeak 29 saio egin ditu.

2.1.1. Parlamentuaren batzarrean landutako gaiak

Jarduera-mota	Zk.	Oharrak
Foru Lege proiektuak	5	5 onetsita
Foru Lege proposamenak	2	2 ez dira kontuan hartu
Interpelazioak	1	-
Mozioak	13	5 onetsita
Hitzarmenak	4	4 onetsita
Galderak, ahozko erantzunarekin	9	1 atzera bota da

Foru Lege Proiektuak: 5

1. 15/2005 Foru Legea, abenduaren 5koa, Adin Txikikoaren Arreta Integralari buruzkoa. Batzarrean onetsia: 05-11-24 NPAO zk.: 129, 05-12-12koa. Saioen egunkariaren zk.: 60. Bozketen emaitza: BAI-27; EZ-0; ABS.-22. Zk. eta argitalpen ofizialak: NAO zk.: 149, 2005eko abenduaren 14koa. Akatsen zuzenketa: NAO zk.: 7, 2006ko urtarrilaren 16koa.
2. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Diru-laguntzei buruzkoa. Batzarrean onetsia: 05-10-27 NPAO zk.: 118, 05-11-11koa. Saioen egunkariaren zk.: 58. Bozketen emaitza: artikuluka onetsia. Zk. eta argitalpen ofizialak: Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, NAO zk.: 136, 2005eko azaroaren 14koa.
3. 21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatearen ebaluazioari buruzkoa. Batzarrean onetsia: 05-12-23. NPAO zk.: 1, 06-1-4koa. Saioen egunkariaren zk.: 65. Bozketen emaitza: artikuluka onetsia. Zk. eta argitalpen ofizialak: NAO zk.: 4, 2006ko urtarrilaren 9koa.
4. 1/2006 Foru Legea, martxoaren 3koa, 2004ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzkoa. Batzarrean onetsia: 05-11-10. NPAO zk.: 122, 05-11-23koa. Saioen egunkariaren zk.: 68. Bozketen emaitza: BAI-27; EZ-19; ABS.-1. Zk. eta argitalpen ofizialak: NAO zk.: 30, 2006ko martxoaren 10ekoa.
5. 18/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2006. urteko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Batzarrean onetsia: 05-12-22 eta

05-12-26. NPAO zk.: 137, 05-12-30. Saioen egunkariaren zk: 64 eta 65. Bozketen emaitza: artikuluka onetsia. Zk. eta argitalpen ofizialak: NAO zk.: 156, 2005eko abenduaren 30ekoa.

Foru Lege Proposamenak: 2

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5, b) artikulua aldatzekoa. Ez da kontuan hartu: 05-6-30eko Batzarrean. NPAO zk.: 75, 05-07-12koa. Saioen egunkariaren zk: 52.
2. 0 urtetik 3 urtera bitarteko irakaskuntzari buruzko neurriena. Ez da kontuan hartu: 05-12-15eko Batzarrean. NPAO zk.: 135, 05-12-23koa. Saioen egunkariaren zk: 63.

Interpelazioak: 1

1. Iruñeko eskualdeko ikastetxeak handitzeko edo instalatzeko aurreikuspenei buruzkoa. Eztabaida batzarrean: 06-2-16. Saioen egunkariaren zk: 67

Mozioak: 13

1. Nafarroako Gobernuari Iruñeko eskualdeko gune euskaldunaren mugak berrikus ditzan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05-6-9. Saioen egunkariaren zk: 49. Bozketen emaitza: BAI: 39; EZ: 2; ABS: 5. Onetsia. Ebazpena: NPAO zk.: 66, 05-6-21ekoa.
2. Nafarroako Gobernuari euskararen Foru Legea alda dezan eskatzekoa, euskaldunak ez diren guneetako udalerriak alde mistoa osatzera pasa daitezzen. Eztabaida batzarrean: 05-6-9. Saioen egunkariaren zk: 49. Bozketen emaitza: BAI: 10; EZ: 35; ABS: 0. Baztertua: NPAO zk.: 66, 05-6-21ekoa.
3. Nafarroako Gobernuari EHN salmentaren diruaren zati bat 0-3 urteko haur eskoletara xeda dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05-6-23 Saioen egunkariaren zk: 50. Bozketen emaitza: BAI: 18; EZ: 23; ABS: 0. Baztertua: NPAO zk.: 73, 05-7-1ekoa.
4. Hezkuntza Departamentuari Ezkaban ikastetxe publiko berri bat eraikitzen has dadin eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05-6-30. Saioen egunkariaren zk: 52. Bozketen emaitza: BAI: 22; EZ: 23; ABS: 0. Baztertua: NPAO zk.: 7, 05-7-12koa.
5. Nafarroako Gobernuari 0-3 hezkuntza-zikloa arautzen duen Foru Lege proiektu bat aurkez dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05-6-30. Saioen egunkariaren zk: 52. Bozketen emaitza: BAI: 9; EZ: 35; ABS: 0. Baztertua: NPAO zk.: 75, 12-7-05ekoa.

6. Nafarroako Gobernuari 3 urte baino gutxiagoko haurrak eskolatzea susta dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 9-6-05. Saioen egunkariaren zk: 49. Bozketen emaitza: BAI: 44; EZ: 0; ABS: 0. Bozketen emaitza: BAI: 44; EZ: 0; ABS: 0. Onetsia. Ebazpena: NPAO, 92. zk., 05-9-26koa.
7. Nafarroako Gobernuari 2006-2015 aldirako hezkuntza-sistema bat garatzeko plan nagusia presta dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05-10-6. Saioen egunkariaren zk: 55. Bozketen emaitza: BAI: 43; EZ: 0; ABS: 0. Onetsia. Ebazpena: NPAO zk.: 103, 05-10-14koa.
8. Nafarroako Gobernuari hizkuntzen ikaskuntza susta dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 06-2-2. Saioen egunkariaren zk: 66. Bozketen emaitza: BAI: 26; EZ: 23; ABS: 0. Onetsia. Ebazpena: NPAO zk.: 9, 05-2-10ekoa.
9. Nafarroako Gobernuari Europako Kontseiluak euskarari dagokionez eman dituen gomendioak aplika ditzan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05.11.24. Saioen egunkariaren zk: 60. Bozketen emaitza: BAI: 7; EZ: 32; ABS: 0. Baztertua: NPAO zk.: 129, 05-12-12koa.
10. Nafarroako Gobernuari euskararen erabileraren inguruko zenbait neurri har ditzan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 06-2-2. Saioen egunkariaren zk: 66. Bozketen emaitza: BAI: 47; EZ: 1; ABS: 0. Onetsia. Ebazpena: NPAO zk.: 9, 06-2-10ekoa.
11. Nafarroako Gobernuari hezkuntza sistema hizkuntza-eredu desberdinen elkarbizitza-irizpideari jarraiki planifika dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 06-4-6. Saioen egunkariaren zk: 72. Bozketen emaitza: BAI: 15; EZ: 26; ABS: 7. Baztertua: NPAO zk.: 3, 06.4.12koa.
12. Nafarroako Gobernuari Cardenal Illundain Ikastetxean D ereduko ildo bat ireki dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 06-5-4. Saioen egunkariaren zk: 74. Bozketen emaitza: BAI: 8; EZ: 22; ABS: 9. Baztertua: NPAO zk.: 44, 06-5-10ekoa.
13. Nafarroako Gobernuari Hezkuntza Departamentuaren barruan Prebentziorako eta Baloreetan Hezteko Zerbitzua izeneko zerbitzu berri bat sor dezan eskatzekoa. Eztabaida batzarrean: 06-5-11. Saioen egunkariaren zk: 75. Bozketen emaitza: BAI: 11; EZ: 27; ABS: 11. Baztertua: NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.

Hitzarmenak: 4

1. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Erkidegoko Hezkuntza Departamentuaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, lurralde-lankidetzarako programen barruan irakurketa sustatzea bultzatzekoa. Eztabaida batzarrean: 05-6-30. NPAO zk.: 75, 05-7-12koa. Saioen egunkariaren zk: 52. Bozketen emaitza: BAI-39; EZ-0; ABS.-0. Onetsia.

2. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Nafarroako Foru Erkidegoko Hezkuntza Departamentuaren arteko lankidetzaz hitzarmena, 2004-2005 ikasturtean "literatur ibilbideak" izeneko lurralde-lankidetzarako programa garatzekoa. Euztabaida batzarrean: 05-6-30. NPAO zk.: 75, 05-7-12koa. Saioen egunkariaren zk: 52. Bozketen emaitza: BAI-39; EZ-0; ABS.-0. Onetsia.
3. Estatuko Enplegurako Zerbitzu Publikoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko lankidetzaz hitzarmena, Lanbiderako Prestakuntzarako Ikastetxe Nazionalen ingurukoa. Euztabaida batzarrean: 05-9-15. NPAO zk.: 92, 05-9-26koa. Saioen egunkariaren zk: 53. Bozketen emaitza: BAI-41; EZ-0; ABS.-3. Onetsia.
4. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko lankidetzarako aldebiko hitzarmena, 2005-2006 ikasturtean zehar "ingeles hizkuntzan murgiltzea" izeneko lurralde-lankidetzarako programa garatzekoa. Euztabaida batzarrean: 06-5-11. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa. Saioen egunkariaren zk: 75. Bozketen emaitza: BAI-36; EZ-0; ABS.-9. Onetsia.

Galderak ahozko erantzunarekin: 9

1. 0-3 urtekoen ikasgelen finantzazio-modulari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 05-6-9. Saioen egunkariaren zk: 49.
2. D ereduko irakaskuntzak euskalduna ez den aldean duen hedapenari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 05-10-5. Saioen egunkariaren zk: 55.
3. Tafallako ikastolari bikoizketa ukatzeari buruzkoa. Atzera botata Mahaia: 05-10-27 NPAO zk.: 133, 05-12-21ekoa.
4. Lantxotegi eta Illundain Fundazioa ikastetxe berezien harremanen markoari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 06-3-16. Saioen egunkariaren zk: 70.
5. Hezkuntzan egiten den biztanleko gastu publikoari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 06-5-11. Saioen egunkariaren zk: 75.
6. Mendillorriko Elorri ikastetxe publikoan hezkuntza-ildoak irekitzeari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 06-5-11. Saioen egunkariaren zk: 75.
7. Ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeei buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 06-5-11 d. Saioen egunkariaren zk: 75.
8. Ikastetxe itunduetan 2006-2007. ikasturterako aurretiazko izen-emateari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 06-5-11. Saioen egunkariaren zk: 75.
9. Gobernuko presidentea ikasleak sexuaren arabera bereizten dituen ikastetxe batean agertzeari buruzkoa. Erantzuna Batzarren aurrean: 06-5-11. Saioen egunkariaren zk: 75.

2.1.2. Batzordean landutako gaiak:

Ekimen-mota	Zk.	Oharra
Mozioak	4	2 onetsita
Agerraldiak	12	-
Galderak, ahozko erantzunarekin	6	-
Lan-saioak	19	6 atzera bota dira

Mozioak: eztabaida batzordean: 4

1. Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikan zenbait aldaketa proposatzekoa. Bozketen emaitza: BAI: 4; EZ: 9; ABS: 1. Baztertua : NPAO zk.: 58, 05-6-8koa.
2. Nafarroako Gobernuari Nafarroako Eskola Kontseiluan edo Hezkuntzako Goi ikastetxe guztietako zuzendariak egon daitezen beharrezkoak diren neurriak har ditzan eskatzekoa. Bozketen emaitza: BAI: 6; EZ: 7; ABS: 0. Baztertua: NPAO zk.: 92, 05-9-26koa.
3. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, Itun Sindikal berri batetara iristeko xedez, sindikatuetakoa eragileekiko elkarriketak has ditzan eskatzekoa. Bozketen emaitza: aho batez. Onetsia. Ebazpena: NPAO zk.: 107, 05.10.25koa.
4. Estatuko Gobernuari Europako Kontseiluko hizkuntza gutxituen inguruko adituen batzordean duen ordezkariak euskararen inguruko ezagutza kontrastatuak dituen pertsona bat izatea eskatzekoa. Bozketen emaitza: Aho batez onetsia. Ebazpena: NPAO zk.: 119, 05-11-14.

Agerpenak: 12

1. Hezkuntzako Kontseilariak datozen hamar urteetarako hezkuntza-premien berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko ekainak 28.
2. Hezkuntzako Kontseilariak 0-3 urteko hezkuntza-eskaintza mantentzearen berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko ekainak 28.
3. Hezkuntzako Kontseilariak ikasle etorkinei harrera eta arreta eskaintzeko aplikatzen diren neurrien berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko urriak 19.
4. Unibertitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendari Nagusiak eremu ez euskalduneko ikastolei buruz prentsan egindako adierazpenen berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko urriak 20.

5. Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendari Nagusiak Nafarroako Gobernuak Europako Kontseiluko hizkuntza gutxituen adituen batzordeak igorritako txostenari buruz egindako balorazioaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko azaroak 4.
6. Hezkuntzako Kontseilariak Zizur Nagusiko haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berriaren eraikuntzaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko otsailak 1.
7. Hezkuntzako Kontseilariak Sarrigureneco eskola-plangintzaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko otsailak 1.
8. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiak ikastetxeetako ga-bezia materialen berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko otsailak 15.
9. Hezkuntzako Kontseilariak Arturo Campi3n eta Garc3a Galdeano ikastetxe publikoetan dauden hizkuntza-ereduen berrantolaketaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko otsailak 22.
10. Hezkuntzako Kontseilariak Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako programaren etorkizunaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko martxoak 15.
11. Hezkuntzako Kontseilariak 0-3 urteetako zikloko hezkuntzaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko martxoak 15.
12. Hezkuntza Kontseilariak 0-3 urteetako haurren tarifetarako errenta-tar-teak aldatzeko xedez onetsi den ebazpenaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2006ko martxoak 15.

Galderak ahozko erantzunarekin: 6

1. Ezkaba ikastetxe publikoaren egitura-egokitzapenari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 05-5-31. Saioen egunkariaren zk: 34.
2. Euskararen murgilketa-ereduak dituzten ikastetxe publikoen behin-behinekotasunak, masifikazioak eta planifikazio-ezak matrikulan eragina izan duten. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 05-5-31 Saioen egunkariaren zk: 34.
3. Tafallako Sancho III el Mayor institutuko komunak zaharberritzeko lanei buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 05-10-19. Saioen egunkariaren zk: 38.
4. "Cardenal Illundain" ikastetxean libre dauden ikasgelak "Patxi Larraintzar" ikastetxeari uzteari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 05-10-20. Saioen egunkariaren zk: 39.

5. Patxi Larraintzar ikastetxe publikoan 2006-2007 ikasturterako dauden eskola-plazen eskaintzari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 06-4-11. Saioen egunkariaren zk: 45.
6. Eremu mistoko azterlan soziolinguistikoari buruzkoa. Erantzuna Hezkuntza Batzordearen aurrean: 06-5-17. Saioen egunkariaren zk: 46.

Lan-saioak: 19

1. Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren ordezkari-tza batek urteko txostena aurkez dezan. Agerpenaren data: 2005eko ekainak 15.
2. Berako "Toki Ona" BHIko ordezkari-tza batek ikastetxe horretan aplikatu den drogen mendekotasunerako programaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko ekainak 15.
3. UPNAko Euskara Batzordeko kide izan zirenek dimititzeko izan zituzten arrazoiak berri eman dezaten. Agerpenaren data: 2005eko irailak 9.
4. Zizur Nagusiko "Erreniega" IPko ordezkari-tza baten ikastetxearen egoeraren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko irailak 23.
5. CCOO, UGT, STEEEILAS, CSIF, AFAPNA, LAB, ELA-STV eta ANPE sindikatuen ordezkari-tza batek hezkuntza-sistema azter dezan. Agerpenaren data: 2005eko irailak 23.
6. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako langileen batzordearen ordezkari-tza batek ikastetxe publikoaren aurrekontu-trataeraren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko irailak 23.
7. Nafarroako Ikastolen Federazioko lehendakariak euskalduna ez den eremuko ikastolak legez-tatzeko prozesuaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko ekainak 28.
8. Nafarroako musika-eskolen elkarteko ordezkari-tza batek bere premien berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko irailak 23.
9. Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionaleko kide den Gascó doktoreak Iruñeko Basoco BHIIn ezarri den nerabeei zuzendutako tabakismoaren prebentziorako planaren berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko urriak 25.
10. Lodosako Ibaialde ikastolaren ordezkari-tza batek bere egoeraren berri eman dezan. Atzera botata: Mahaia: 2005eko abenduak 27.
11. Fontellas-Tuterako Argia ikastolaren ordezkari-tza batek bere egoeraren berri eman dezan. Atzera botata: Mahaia: 2005eko abenduak 27.

12. Vianako Erentzun ikastolako ordezkariak batek bere egoeraren berri eman dezan. Atzera botata: Mahaia: 2005eko abenduak 27.
13. Berako Labiaga ikastolako ordezkariak batek bere egoeraren berri eman dezan. Atzera botata: Mahaia: 2005eko abenduak 27.
14. Irunberriko Arangoiti ikastolako ordezkariak batek bere egoeraren berri eman dezan. Atzera botata: Mahaia: 2005eko abenduak 27.
15. Berriozarko "Mendialdea" ikastetxe publikoko ordezkariak batek gai desberdinen berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko urriak 26.
16. Antsoingo "Ezkaba" ikastetxe publikoaren ordezkariak batek gai desberdinen berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko urriak 26.
17. "Patxi Larrantzar" ikastetxe publikoko ordezkariak batek gai desberdinen berri eman dezan. Agerpenaren data: 2005eko urriak 26.
18. Armendariz Castien andreak hizkuntza politikaren eredu berriaren inguruko ez-legezko proposamenari buruz duen iritzia azal dezan. Baztertua.
19. Kolektibo eta aditu desberdinek hezkuntza-eremuan ematen den drogen kontsumoaren berri eman dezaten. Agerpenaren data: 2006ko martxoak 22 eta 29 eta apirilak 4.

2.1.3. Kontroleko beste jarduerak

Ekimen-mota	Zk.
Galderak, idatzizko erantzunarekin	53
Informazio-eskaerak	6

Galderak, idatzizko erantzunarekin: 53

1. 0-3 urtekoentzako ikasgelen finantzazio-modulari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-6-13. NPAO zk.: 121, 05-11-21ekoa.
2. Milagron ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-6-13. NPAO zk.: 121, 05-11-21ekoa.
3. Droga-mendekotasunen tratamendurako ikastetxe hitzartuei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-6-21. NPAO zk.: 127, 05-12-2koa.
4. Kontserbatorioaren eraikin berriaren eraikuntzari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-6-22. NPAO zk.: 134, 05-12-22koa.
5. Iruñeko Eskolatzte Batzordeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-6-23. NPAO zk.: 134, 05-12-22koa.

6. Ikerketa-bekei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-7-12. NPAO zk.: 3, 06-1-24koa.
7. Ikastetxe publikoetako eta pribatuetako eskola-matrikulazioari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-6-30. NPAO zk.: 134, 05-12-22.
8. Hezkuntza Departamentuak arlo sozialean eta publikoan euskararen erabilera sustatzeko gauzatutako jarduketei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18: NPAO zk.: 8, 06-2-9koa.
9. Hezkuntza Departamentuak familia arloan euskararen erabilera sustatzeko gauzatutako jarduketei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18: NPAO zk.: 8, 06-2-9koa.
10. Hezkuntza Departamentuak komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko gauzatutako jarduketei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18: NPAO zk.: 8, 06-2-9koa.
11. Hezkuntza Departamentuak Buztintxurin, Artikaberrin, Berriozarren eta Sarrigurenen ikastetxeak ezartzeko gauzatu dituen jarduketei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-26. NPAO zk.: 15, 06-2-24koa.
12. Tuterako “Virgen de la Cabeza” ikastetxe publikoko irakasleei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.
13. Hezkuntza Departamentuak drogen erabilera eta kontsumoa prebenitzeko gauzatu dituen jardueri buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.
14. Hezkuntza Departamentuak euskararen erabilera Nafarroako administrazio publikoen aurrean sustatzeko gauzatu dituen jardueri buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.
15. Hezkuntzako Departamentuak euskara komunikabideetan ager dadin gauzatutako jardueri buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.
16. Hezkuntza Departamentuak herritarrek Nafarroako eremu mistoko administrazio publikoetan euskara erabiltzeko duten eskubidea bermatzeko gauzatutako jardueri buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.
17. Ikasle atzerritarrei hizkuntza irakasteko irakasleen prestakuntzari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.
18. Aniztasunaren Arretarako programa esperimentalak ezartzei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-10-18. NPAO zk.: 12, 06-2-15ekoa.

19. Donibaneko BHIIn zurgintza-nabe bat eraikitzeko obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
20. Tuterako Valle del Ebro BHI handitzeko obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
21. Zizur Nagusiak ikastetxe berri bat eraikitzeko obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
22. Berriozarko Mendialdea ikastetxean gertatutakoari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 50, 06-5-22koa.
23. Ikastetxe publikoetan egiten diren obretan segurtasun-neurriei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-11-11. NPAO zk.:27, 06-3-30koa.
24. Nafarroako Hezkuntza Sistemako ikasgela aurrefabrikatuei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-11-25. NPAO zk.: 27, 06-3-30koa.
25. 0-3 urteko haurrei zuzendutako hezkuntza-zerbitzu pribatuei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-11-24 NPAO zk.: 27, 06-3-30koa.
26. Haur eskolei eta haurtzaindegi izenez ezagutzen diren horiei buruzkoa. Idatzizko erantzuna:05-11-18. NPAO zk.: 27, 06-3-30koa.
27. Eskola-ordutegi barruko mediku-larrialdiei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-11-24. NPAO zk.: 27, 06-3-30koa.
28. Hezkuntza Departamentuaren aholkularitza-funtzioei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-11-30. NPAO zk.: 33, 11-4-06koa.
29. Mendillorriin lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleen egoerari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-12-19. NPAO zk.: 36, 06-4-20.
30. Maila desberdinetan hezkuntza-sistema uzten duen ikasleen portzentajeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-12-28. NPAO zk.: 36, 06-4-20koa.
31. Hezkuntza Departamentuaren publizitate-kanpainei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-12-23. NPAO zk.: 36, 06-4-20koa.
32. Hizkuntza-ereduen araberako hezkuntza-eskaintzari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-12-23. NPAO zk.: 36, 06-4-20koa.
33. Ikastetxe desberdinak eraikitzeko edo zaharberritzeko obren burutzape-nari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 05-12-23. NPAO zk.: 36, 06-4-20koa.
34. Bigarren Hezkuntzako Institutu batzuetan kirol-pabilioirik ez egoteari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-16. NPAO zk.: 46, 06-5-12koa.
35. D ereduko curriculumaren dibertsifikazio-eskaintzari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.

36. Patxi Larraintzar eta Ave Maria ikastetxe publikoak handitzeko obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.:48, 06-5-17koa.
37. Arartekoak San Fermin ikastolaren inguruko hainbat kontzepturen inguruan emandako gomendioei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
38. Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaritza Nagusiak Caja Navarra Fundazioarekin lankidetzeta-hitzarmen bat sinatzeko duen eskumenari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
39. Ezkabako ikastetxe publiko berria eraikitzeke obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
40. Agoitzeko ikastetxe publikoan ikasgela berriak eraikitzeke obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
41. Lizarran Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzak ikastetxe berri bat edo institutu bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
42. Larraga ikastetxe publikoa handitzeko eta gimnasio bat eraikitzeke obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
43. Otsagabian DBHI handitzeko obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-2-28. NPAO zk.: 48, 06-5-17koa.
44. Oteitzako ikastetxe publikoa handitzeko obrei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-3-7. NPAO zk.: —
45. Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeetako irakasleei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-3-16. NPAO zk.: —
46. 0-3 urteetako zikloa ezartzeko laguntzei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-3-16. NPAO zk.: —
47. Helduen Oinarrizko Hezkuntza arautzen duen Foru Legearen aplikazioari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-3-16. NPAO zk.: —
48. etorkinak integratzeko eta horiek hezkuntza-laguntza eskaintzeko jasotzen diren laguntza ekonomikoei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-3-24. NPAO zk.: —
49. ikastetxeen, udalerrien eta ereduaren arabera eskola-matrikulazioaren datuei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-4-11. NPAO zk.: —
50. Pablo Sarasate Orkestrak, Iruñeko Orfeoia eta bakarlariek eskainiko duten kontzertu sinfonikorako aurrekontuari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 06-4-24. NPAO zk.: —

- 51. Europar Batasunaren inguruko gaietan trebatzeko bekak emateko deialdia onesten duen 78/06 Foru Agindua dela eta Administrazioaren esku da goen dokumentazioaren eskaerari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: —NPAO zk.: —
- 52. Sarrigurenako bizilagun berrien matrikulazio-eskariari erantzuteko aurreikusten diren ikastetxeei eta aurrematrikulazio-eskaerei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: —NPAO zk.: —
- 53. Altsasuko 0-3 urteko ikastetxeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: —NPAO zk.: —

Informazio-eskaerak: 6

- 1. Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutua eraikitzeko espedienteari buruzkoa. Informazioaren igorpena: 2005eko urriaren 18an.
- 2. 2005-2006. ikasturtean Nafarroako hezkuntza-sisteman dauden ikasle etorkinei buruzkoa. Informazioaren igorpena: 2005eko urriaren 18an.
- 3. 0-3 urteko haurrak dituzten ikastetxe pribatuen zerrendari buruzkoa. Informazioaren igorpena: 2005eko azaroaren 4an.
- 4. 2005-2006 ikasturtean hezkuntza-maila guztietan izan diren matrikulazio-datuei buruzkoa. Informazioaren igorpena: 2006ko otsailaren 28an.
- 5. Cardenal Illundain eta Elvira España ikastetxe publikoetako irakasleei buruzkoa. Informazioaren igorpena: 2006ko apirilaren 6koa.
- 6. “Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas SA” enpresa publikoaren Administrazio Kontseiluaren osakerari, pertsona bakarreko zuzendaritza-organoei eta 2003., 2004. eta 2005. urteetan egindako kontratuei buruzkoa. Informazioaren igorpena: 2006ko apirilaren 24an.

Kontrolako Jardueren Laburpena	Zk.	Oharrak
Foru Legeak	5	5 onetsita
Lege proposamenak hartu	2	Ez dira kontuan
Hitzarmenak	4	4 onetsita
Mozioak	17	7 onetsita
Interpelazioak	1	-
Galderak, ahozko erantzunarekin	15	1 atzera bota da
Galderak, idatzizko erantzunarekin	53	-

Hezkuntza Batzordeko kideen informazio-eskaerak	6	-
Planak	0	-
Gobernuak Hezkuntza Batzordearen aurrean izan dituen agerraldiak	12	-
Lan-saioak, agerraldiekin, Batzordearen aurrean	19	6 atzera bota dira
Batzordeak egin dituen saioak	29	-
Bisitaldiak	6	-

3

Zerbitzu Orokorrak

3.1. Administrazioa. Egituraren alderdiak

Hezkuntza Sailaren egituraren Nafarroako Hezkuntza Sistemaren 2004-2005 ikasurteko txostena jaso da, 141. orrialdetik 144 orrialdera.

Ez da egin aldaketarik, urtarrilaren 28ko 119/2005 Foru Aginduan jasotako okeraren zuzenketa izan ezik¹³⁵.

3.2. Hezkuntza Sistemaren kalitatea

3.2.1. Ikastetxe publikoak

I. Sareen egitura

Ikasturte honetan ez da aldaketa garrantzitsurik egin pasa den urtean abian jarritako kalitate-sareen egiturari. Hona hemen berrikuntzarik adierazgarrienak:

- N2 sareko ikastetxeetan zonako antolaketaren irizpidea (sare bat Iruñean eta beste bat Tuteran) bertan behera utzi da. Sarea bereizi egin da ISO ziurtagiria eskuratu ahal izateko. Bi sare eratu dira, N2 ISO sarea, ziurtagiri hori lortzeko xede zehatzarekin (sei ikastetxe, hiru Iruñean eta hiru Tuteran) eta N2 sarea, xede hori ez duten ikastetxeekin (sei ikastetxe).
- “Inverstors in People” estandarra ezartzeko helburua duen sare berriaren sorkuntza, pertsonak hobetu ahal izateko. Hiru ikastetxek osatzen dute (IIP sarea).

Gainerako sareetan, pasa den ikasturteko egiturari eutsi zaio, betiere egokitza-pen txikiekin, horiek bertan behera uzteagatik edo ikastetxeen kokapena aldatzeagatik, kudeaketa-sistemaren ezarpen maila kontuan hartuta.

Hurrengo taulan 49 ikastetxe parte-hartzaileen zerrenda jaso dugu (horietatik 3 bi sareetan parte hartzen dute:

¹³⁵ Ikus 8. puntua, 1.1.2.2 epigrafea, I. kapitulua.

I. taula

Kalitatearen prestakuntza-sareetan parte hartzen duten ikastetxeak, 2005/2006 ikasturtea

NI sarea	N2 ISO sarea	N2 sarea	N3P sarea	N3T sarea	N4 Gaz sarea	N4 Eus sarea	liP sarea
"Toki Ona" BHI	"Caro Baroja" BHI	"Ibaialde" BHI	"Berriozar" BHI	"Cerro de la Cruz" BHI	"Benain" LBHIP	"Ezkaba" IP - Ansoain	"Donapea" BHI
"Donapea" BHI	"Donibane" BHI	"Basoko" BHI	"Askatasuna" BHI	"Alhama" BHI	"Otero Navascués" LBHIP Cintruénigo	"Alaitz" IP - Barañain	"Iturrama" BHI
"Iturrama" BHI	"Politécnico" BHI Tafalla	"M ^a Ana Sanz" BHI	"Mendaur" (Doneztebe) BHI	"La Paz" BHI	"San Miguel" LBHIP Noain	"Ermitaberri" IP - Burlata	"Navarro Villoslada" BHI
"Navarro Villoslada" BHI	"Benjamín de Tudela" BHI	"Virgen del Camino" BHI	"Politécnico" BHI Lizarra	"Marqués de Villena" BHI	"Mendillorri" LBHIP Iruña<	"Amaiur" Ikastola - Iruña	
"Plaza de la Cruz" BHI	"ETI" BHI	"Ribera del Arga" BHI	"Zizur" BHI	"Sancho III El Mayor" BHI	"Victor Pradera" LBHIP Iruña	"Elorri" IP - Mendillorri	
	"Valle del Ebro" BHI	"Sierra de Leyre" BHI (Sangüesa)		"Ega" BHI	"San Bartolomé" LBHIP Ribaforada	"Sanduzelai" IP - Iruña	
					"Lorenzo Goicoa" LBHIP Villava	"Virgen Blanca" IP - Uhart	
					Azagra BHI	Arargi IP - Zizur	
					"San Miguel de Aralar II" BHI Altsasua	Elizondo BHI	
					"Energías Renovables" BHI Imarcoain		
					"Sierra de Leire" BHI Lumbier		

2. "Kalitateari buruzko kudeaketa-sistemen hedapena"

Ikasturte honetan izan dugun berrikuntza garrantzitsuenetakoa Hezkuntza Sailak martxoaren 6ko 230/2006¹³⁶ Ebazpenaren onspena izan da. Ebazpen horren arabera, "Kalitateari buruzko Kudeaketa-sistemen Hedapena" izeneko programa abian jartzeko baimena eman da.

3. Kanpo-aintzatespenak

Ikasturte honetan, KADINET sarearen kide diren ikastetxe batzuetan kanpo-aintzatespenen sariak eman dira. Aintzatespen horiek 7 ikastetxek jaso dituzte, modu honetan bananduta:

¹³⁶ Ikus 28. zk., 1.1.3.5 epigrafea, kapitulua eta iruzkina 1.2.2.4 epigrafean.

Nafarroako Bikaintasun Saria (Erakunde publikoak)	Kalitaterako Nafarroa Fundazioa	"Navarro Villoslada" BHI, Iruña
Kalitate Saria (Ikastetxe publikoak)	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa	"Navarro Villoslada" BHI, Iruña
Zilarrezko EFQM saria (400 puntu)	Kalitaterako Nafarroa Fundazioa	"Navarro Villoslada" BHI, Iruña
ISO 9001 ziurtagiria	BVQI	"Caro Baroja" BHI, Iruña "Donibane" BHI, Iruña "Benjamín de Tudela" BHI, Tuterá "ETI" BHI, Tuterá
Brontzezko EFQM zigilua (200 puntu)	Kalitaterako Nafarroa Fundazioa	"La Paz" BHI, Cintruénigo "Cerro de la Cruz" BHI, Cortes "Caro Baroja" BHI, Iruña "Donibane" BHI, Iruña

4. Sareen lanak

NI sarea

Ikasturte honetan bost saio egin dira. Aurreko urteetako bost ikastetxek parte hartu dute eta funtsezko xedea kudeaketa-sistema sinplifikatu nahiz prozesuen araberrako kudeaketa-mapa berria eratzea izan da.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

2005/2006 ikasturterako xedea	Betepen maila	Gaur egungo egoera
Hausnarketa estrategikoan sakontzea eta politikaren nahiz strategiaren oinarritzko prozesuak berrikustea: Xedea, Plan Estrategikoa eta Urteko Plana	Eginda	Kike Intxaustiren aholkularitzarekin Plan Estrategikoa egiteko metodo berria ikasi zen. Plan Estrategikoaren eta Urteko Planaren prozesuak berrikusi dira
Ikastetxearen kudeaketa-prozesuak berrikusi eta sinplifikatzea: Prozesuen araberrako kudeaketa, adierazleen panela	Eginda	Prozesu eta makroprozesu guztiak berrikusi eta sinplifikatu dira
Talde interesdunen asebetetze maila neurtzeko berrikustea	Egiteko dago	Hurrengo ikasturtearen prestakuntzan barneratuta
EFQM ereduari begira prestakuntza aurreratua egitea	Egiteko dago	400 puntuko oroitidazkia idazteko sare zehatza eratzea aurreikusit da
ISO 9001:2000 ziurtagiriari eustea (ziurtatutako ikastegiei begira)	Eginda	

"INVESTORS in PEOPLE" (I i P) sarea.

"Investors in People" estandarra praktika egokiak dituen kudeaketa-tresna da, batik bat, pertsonen lanbidea kudeatu eta garatu ahal izateko. Kasu horretan, funtsa antolaketaren ebaluazio kualitatiboa da, enplegatuen zuzeneko pertzepzioaren bidez eskuratutakoa. Nazioarteko estandarra da eta horrek praktika egokien maila zehazten du, pertsonen lanbide-prestakuntzari eta garapenari dagokienez.

Halaber, 2005-2006 ikasturtean, Nafarroako hiru institutuk "Investors in People" proiektuari ekin diote, Irakasleen Prestakuntza Alorraren babespean eta NO-VOTEC aholkularitza-enpresaren lankidetzarekin batera. Izatez, egiaztatutakoaren ariora, estandar horrek ikastetxeen kanpo-ebaluazioa egiteko ahalmen izugarria du, bereziki, langileen kudeaketarekin zerikusia duten alderdiei dagokienez.

2005eko abenduan, Iruñako Iturrama, Donapea eta Navarra Villoslada bigarren hezkuntzako institutueta horri buruzko diagnostikoa egin da.

Proiektuaren balorazio osoa positiboa izan da eta hurrengo ikasturtean modu horretan aurrera egitea aurreikusi da.

N2 sarea

Ikasturte honetan bi sare egituratu dira. N2 ISO sarea, sei ikastetxek eraturakoa, ISO 9001 ziurtagiria prestatzeko helburuarekin. Bestetik, N2 Sarea, sei ikastetxek eraturakoa, kudeaketa-sistemaren ezarpena osatzeko nahiarekin, ziurtagirik eskuratu gabe.

N2ISO Sarea

N2ISO sareak bost bilera egin ditu, Iruñean eta Tuteran. Xede nagusia ikastetxeak ISO 9001 ziurtagiria eskuratzeko prestatzea izan da eta behar bezala bete da: lau ikastetxek ziurtagiriaren auditoretzak gainditu dituzte eta beste bi ikastetxek hurrengo udazkenean egingo dute.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

Sarearen helburuak	Eskuratuta BAI/EZ	Balorazioa/Proposamena
KKren ezarpena osatzea.	BAI	Balorazioa positiboa izan da, ikastetxe guztietan egin da.
Sistemaren aurreziakko auditoretzak egitea eta antzemandako kontraesanen tratamendua erraztea.	BAI	Sarearen ikastetxeen arteko auditoretzak egin dira: Benjamín-Valle de Ebro; Donibane-La granja eta Tafalla-ETI (azken bi horiek NI sarearen kanpoko laguntzarekin)
ISO 9001-2000 arauari begira prestatzea.	BAI	ISO 9001 eta ISO 19011 arabei buruzko prestatuntza bi saiotan eman da
Ziurtagiriaren prozesua burutzeko izapideak erraztea.	BAI	Ikastetxeetako koordinatzaileak aurrekontuak eskatu ditu eta Prestatuntza Alorrek izapideak egin ditu, ikastetxeei lan hori egiteko zamatik askatuz
ISO 9001-2000 ziurtagiria eskuratzeko.	BAI	Tuterako Benjamín BHI, Valle del Ebro BHI, Donibane BHI eta La Granja BHI ikastetxeek ziurtagiria Bureau Veritasekin eskuratu zuten 2006ko ekainean
Sarean talde gisa lan egitea esperientziak eta praktika egokiak eskualdatuta.	BAI	Balorazio positiboa, praktika egokiak aurkeztu dira intranet, prestatuntzaren kudeaketari, adierazleen panelari buruz...
Sistema sinplifikatzea.	Zati bat	Ikastetxeek prozesuetan zenbait sinplifikazio egin dute, baina auditoretzarako kalitate-eskuliburua ez aldatzeko erabakia hartu zen. Zeregin hori hurrengo ikasturterako bete behar da
EFQM ereduari begira prestatuntza jasotzea eta Adierazleen panela.	Gutxi	Adierazleen panela EFQM ereduaren ikuspuntutik berrikusi da, baina postan ez da sakondu. Zeregin hori hurrengo ikasturterako bete behar da
Kontraesanak arauaren irizpideen mende jartzea	BAI	Sarean bilerak egin dira hasieratik ISO ziurtagiriari begira prestatzeko

N2 Sarea

Ikasturte honetan N2 sarea sei ikastetxek osatu dute.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

Sarearen helburuak	Eskuratuta BAI/EZ	Balorazioa/Proposamena
Hezkuntzaren eskaintza-prozesua ikasturte honetan erabat diseinatu, dokumentatu eta ezarrita dago.	BAI	Balorazioa positiboa da, ikastetxe guztietan eginda baitago.
Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua ikasturte honetan erabat diseinatu, dokumentatu eta ezarrita dago.	BAI	Balorazioa positiboa da. Ikastetxe guztietan egin da, baina Elkarbizitza eta Jarduera Osagarriak bezalako prozesu berriak ezarri behar dira.
Prozesuak, azterketa eta hobekuntza kontrolatzeko prozesua ikasturte honetan erabat diseinatu, dokumentatu eta ezarrita dago.	BAI	Balorazio onargarria. Izan ere, ikastetxe gehienetan diseinatu eta ezarri da, baina Kontraesanen ezarpena sakoneman jorratzeko dago.
Dokumentazioa kudeatzeko prozesua ikasturte honetan erabat diseinatu, dokumentatu eta ezarrita dago.	BAI	Balorazio positiboa. Sistema hori behar bezala dokumentatu dago eta datu-baseak osatzen ari dira.
Plangintza estrategikoaren prozesua hurrengo ikasturtean ezartzeko baldintzetan diseinatu da.	BAI	Balorazio positiboa. Hausnarketa egin da eta prozesua diseinatu da. Ikastetxe batzuetan ezarrita dago.
Laguntza-prozesuak hurrengo ikasturtean ezartzeko baldintzetan diseinatu dira.	BAI	Balorazio positiboa.
Ikastetxeen barruko auditoretza egin da hezkuntzaren eskaintza-prozesuak eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ezarrita dituzten ikastetxeetan.	BAI	Balorazio onargarria. Prestakuntza egin da eta lau ikastetxeek auditoretza egin dute, batzuk beste prozesu batzuetakoak. BI ikastetxeetan zeregin hori hurrengo urtean egin behar da.

N3 Sarea

Sarean ikastetxeen arteko ezberdintasun nabariak ageri dira. Hain zuzen ere, horietako batzuk zailtasun asko dituzten sistema ezarri ahal izateko.

N3T Sarea

Guztira bost bilera egin dira. Bi ikastetxetan prozesu gehienak aurten ezarri dira. Hori dela eta, hurrengo urtean Sailaren ziurtagiria eskuratzeko ebaluazioa egiteko baldintza guztiak bilduko dituzte.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

2005/2006 ikasturterako xedea	Betepen maila	Gaur egungo egoera
Hausnarketa estrategikoa egitea eta politikaren eta estrategiaren oinarritzko prozesuak egitea: Xedea, Plan Estrategikoa eta Urteko Plana.	Zati bat	Sarean hori landu da eta bi ikastetxeek soilik osorik ezarri dute.
Barruko auditoretzei buruzko prestakuntza jasotzea eta prozesuak ezarrita dituzten ikastetxeen barruko lehenengo auditoretza egitea.	Zati bat	Auditoretzen ikastaroa egin dira, hiru ikastetxeek parte hartu dute eta bi ikastetxeek barruko auditoretza egin dute.
Homogeneitateari eta kalibrazioari buruzko prestakuntza jasotzea eta prozesua ezartzea.	Zati bat	Ikastaro bat egin da, eta hiru ikastetxeetako irakasleak bertaratu dira.
Langileen prozesuak diseinatzea; kudeaketa ekonomikoa eta erosketak; mantentzea eta arriskuaren prebentzioa.	Eginda	Sarean hori landu da eta ikastetxeek hurrengo ikasturtean ezartzeko egokitzapenak egin dituzte.
Kontraesanen prozesuak, bezeroen asebetetze mailaren neurketa eta dokumentazioaren kontrola osatu eta jarraipena egitea.	Zati bat	Sarean hori landu da, baina bi ikastetxeek soilik ezarri dute.
Hezkuntzaren eskaintza-prozesuen eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen jarraipena egitea.	Eginda	Ikastetxe guztiek I/I prozesuak ezarrita dituzte, Ebazpenean ezarritako berriak izan ezik.

N3P Sarea

Bost lan-bilera egin dira gehi bi saio beste sareei begira, bata Kudeaketa-sistemaren barruko auditoretzaren prestakuntza jasotzekari buruzkoa, eta, bestea, Homogeneitateari eta Kalibrazioari buruzkoa, SAREKAKo pertsona baten eskutik eskainitakoak.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

Sarearen helburuak	Eskuratuta BAI/EZ	Balorazioa/Proposamena
Hezkuntzaren eskaintza-prozesua ikasturte honetan erabat diseinatuta, dokumentatuta eta ezarrita dago.	BAI	Balorazioa positiboa da, ikastetxe guztietan eginda baita-go.
Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesua ikasturte honetan erabat diseinatuta, dokumentatuta eta ezarrita dago.	BAI	Balorazioa positiboa da. Ikastetxe guztietan egin da, baina Elkarbizitza eta Jarduera Osagarriak bezalako prozesu berriak ezarri behar dira
Prozesuak, azterketa eta hobekuntza kontrolatzeko prozesua ikasturte honetan erabat diseinatuta, dokumentatuta eta ezarrita dago.	EZ	Balorazio onargarria. Izan ere, ikastetxe gehienetan diseinatu eta ezarri da, baina Kontraesanen ezarpena sakon-ean jorratzeko dago
Dokumentazioa kudeatzeko prozesua ikasturte honetan erabat diseinatuta, dokumentatuta eta ezarrita dago.	EZ	Balorazio positiboa. Sistema hori behar bezala dokumentatuta dago eta datuen baseak osatzen ari dira
Ikastetxe guztietan hausnarketa estrategikoari ekin diote, hurrengo ikasturtean osatu ahal izateko	BAI	Balorazio positiboa. Hausnarketa egin da eta prozesua diseinatu da. Ikastetxe batzuetan ezarrita dago
Ikastetxe guztiek laguntza-prozesuen dokumentazio sinplifikatua dute, hurrengo ikasturtean hori landu eta ezarri ahal izateko.	BAI	Balorazio positiboa
Ikastetxeen barruko Homogeneitateari eta Auditoretzari buruzko prestakuntza eskaini da.	EZ	Prestakuntza bi ikastetxeetan soilik eskaini da eta auditoretza inork ez du egin

N4 Sarea

Aurreko ikasturtearen egitura berari eutsi zaio, banaketa-irizpidea hizkuntzaren arabera ezarrita.

N4C Sarea

Ikasturte honetan, guztira zazpi bilera egin dira. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen lan-sarean osatu dira, lana hezkuntzaren eskaintza-prozesuekin hasi da eta ikastetxearen xedea bete da.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

2005/2006 ikasturtearen xedea	Betepen maila	Gaur egungo egoera
Irakaskuntza-ikaskuntzari buruzko prozesuen diseinua osatzea eta horien ezarpen sistematikoa abian jartzea	Eginda	Sarean irakaskuntza-ikaskuntzaren bost prozesuak landu dira, eta ikastetxeetan guztiak ezarri dira
Irakaskuntzaren plangintza-prozesuak egitea: hezkuntza-eskaintza, aurrematrikula eta matrikula, eskolako ikasturtearen antolaketa	Zati bat	Hezkuntza-eskaintza, aurrematrikula eta matrikula soilik landu dira, zehaztapenak barne.
Ikastetxeen xedea egitea.	Eginda	Sarean osorik dago. Ikastetxeetara egokitzapena egin behar da.
Sarean talde gisa lan egitea, esperientziak eta praktika egokiak eskualdatuz eta abikitako zereginak betez.	Eginda	
Irakasleak sentibilizatu eta prestatzea, hobekuntza-taldetan horien parte-hartzea bultzatuz.	Zati bat	Hastapenerako hitzaldiak sarean parte hartzen duten hamaika ikastetxeetatik zortzi ikastetxeetan eskaini dira.

N4E sarea

Ikasturte honetan, guztira zazpi bilera egin dira. Bilera horien bidez, sarean irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuetako lana osatu da, hezkuntza-eskaintzaren prozesuak lantzen hasi dira (ikasturteetako zehaztapenak jorratzen hasi dira) eta ikastetxearen xedea eratzeko prozesua azaldu da, sarean eredu orokorra eratuz. Bilera batzuetan talde-lanari buruzko prestakuntza barnean hartu da.

Halaber, arreta berezia eman zaio irakaslearen koaderno propioa egiteko zereginari, bai eta ikasleentzako agenda egiteari ere.

Sarearen lana xede hori lortzeko garapenean murgiltzea da, hurrengo taulan jasotakoa aintzat hartuta:

2005/2006 ikasturterako xedea	Betepen maila	Gaur egungo egoera
Irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuen diseinua osatzea eta ezarpen sistematikoari ekitea	Aurreratua	Sarean irakaskuntza-ikaskuntzaren lau prozesu landu dira, eta ikastetxeetan gehienbat horietako bi ezarri dira. Hauek ezarri gabe daude: tutoretza eta orientabidea, dibertsitateari eman beharreko arreta...
Irakaskuntza-plangintzaren prozesuak egitea; hezkuntza-eskaintza, aurrematrikula eta matrikula, eskolako ikasturtearen antolaketa	Zati bat	Hezkuntza-eskaintza, aurrematrikula eta matrikula soilik landu dira, zehaztapenak eta aurrematrikularen fasean sartu berri diren ikasleen eta familien harrera barne.
Ikastetxeen xedea egitea.	Aurreratua	Sarean osorik dago. Ikastetxeetara egokitzapena egin behar da.
Sarean talde gisa lan egitea, esperientziak eta praktika egokiak eskualdatuz, eta atxikitako zereginak eginez.	Eginda	Ikasturte honetan, ikastetxeen arteko esperientzien eta agiriaren eskualdaketa arrakasta izan du. FTP eremuan eduki baliagarria jaso da eta azken inkestak balorazio positiboa izan du.
Irakasleak sensibilizatu eta prestatzea, hobekuntza-taldeen artean horien parte-hartzea bultzatuz.	Zati bat	Hastapenerako hitzaldiak sarean parte hartzen duten hamar ikastetxeetatik hiru ikastetxeetan eskaini dira.

5. KADINETen inkesta

Hirugarren urtez jarraian “Nafarroako Bigarren Hezkuntzan kalitate-sistema ezartzeko esperientziaren azterketa” inkesta egin dute KADINET sare ezberdinetan parte hartzen duten ikastetxe publikoetan. Horren xedea sareen prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen iritzia jakitea da, batik bat, proiektu honek ikastetxeen gain izan duen eraginari edo inpaktuari dagokionez. Aldi berean, prestakuntza-beharrizanak antzeman eta sareen xedea definitzeko baliagarria izan da.

Inkestan 50 item jaso dira, 0 eta 10 punturen artean baloratuta, eta 6 galdera ireki, sarearen funtzionamenduari eta parte-hartzaileen igurikimenei buruzkoak.

2006an, guztira 121 galdera-sorta jaso dira.

Ondorio esanguratsuenak aurreko ikasturtean jasotako antzekoak izan dira:

- Orokorrean, mailen lanen batezbesteko balorazioa nahiko positiboa da, eta proiektuak guztira 8,18ko balorazioa lortu du. Halaber, itemetan emaitzak zehatzago adierazi dira.
- Batezbesteko balorazioen arabera, erantzunak aurreko ikasturtean lortutako antzekoak eta/edo hobetu egin dira.
- Mailen arabera banandutako erantzunen kasuan, erantzunei atxikitako puntuazio-mota ezberdinetan koherentzia handia nabari da. Hala ere, N-1 eta N-2 mailen sarean erantzunek batezbestekoa baino puntuazio handiagoak jaso dira.
- N-4 mailaren erantzunak, denbora laburragoa daramaten ikastetxeak, alegia, oso koherenteak dira gainerakoekin erkatuta, eta batezbestekoaren antzeko balioak erakusten dituzte proiektuaren balorazio osoari, sarearen prestakuntzari nahiz lanari dagokienez. Zernahi gisaz, ikastetxean kalitate-sistemak ezartzeko eraginari buruzko gaiak neurtzen dituzten ataletan, emaitzak zertxobait jaitsi dira batezbestekoarekin alderatuta. Atal horretan, puntuazioa modu nabarian igo da aurreko urtearekin erkatuta eta sakabanaketa oso handia izan da. Hori dela medio, sistema ikastetxeetan ezartzen ari dira, baina erritmo ezberdinetan.
- Sarean parte hartu edo ikastetxeetan praktika egokiak hedatzeko zioei eta zailtasunei buruzko galdera irekietan harrigarria dirudi bertaratuen adostasuna. Bertaratuak bat etorri dira arrazoiak zehazteko uanean.

Hona hemen kalitate-sarearen bilakaera, horren sorrera abiapuntu hartuta:

2. taula

Ikastetxe publikoen kalitate-sarea datuetan adierazita, 1999-2000tik 2005-2006ra

Ikasturteak	1999-2000	2002-2003	2003-2004	2004-2005	2005-2006
Ikastetxe parte-hartzaileak	16	35	31	52	49
Eskainitako prestakuntza-orduak	90	427	441	449	636
Parte-hartzaileen kopurua	150	207	291	187	389
Jasotako prestakuntza-orduak	3.730	7.710	9.578	7.029	12.138
Mailen araberako bilera-kopurua:					
N1	8	7	7	7	5
N2	8	4	6	11	11
N3		6	8	10	11
N4		6	7	14	14
IIP					8
Bilerak guztira	16	23	29	42	49

3.2.2. Ikastetxe pribatuak

Hona hemen ikastetxe pribatuek eskuratutako kanpoko aintzatespenak:

Kalitatearen Sari Nazionala (ikastetxe pribatuak)	Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa	“San Cernin” ikastetxea ¹³⁷
Zilarrezko EFQM zigilua (400 puntu)	Kalitaterako Nafarroa Fundazioa	“San Cernin” ikastetxea
Brontzezko EFQM zigilua (200 puntu)	Kalitaterako Nafarroa Fundazioa	“Santo Tomás” ikastetxea

3.3. Ikuskapena

3.3.1. 2005-2006ko Ikuskapen Teknikoaren Zerbitzuaren eta Zerbitzuen jarduerari buruzko txostena

Urtean-urtean ikuskapenak egiten dituen ohiko eta ustekabeko zereginenez gain, 2005-06 ikasturteko eginkizun hauek nabarmendu daitezke:

- PISA ebaluazioa, Nafarroa eredu hartuta. Horrela, gure emaitzak Espainiako gainerako herriekin eta beste herri parte-hartzaileekin alderatu ahal izango ditugu.
- Atlante Planaren funtzionamendua, jarraipena eta ikuskapena abian jartzea, betiere ikastetxeek garapen-prozesuan horien aholkularitza eskura izanez.
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Prestakuntzako (LP) irakas-kuntzak ikuskatzea, ikastetxeak eredu gisa erabilia.
- Ikasturtearen hasiera ikuskatzea EDUCA programa berriaren bidez, Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duten ikastetxe publikoetan.
- EDUCAk eskolako egutegia kudeatzea.
- Europako Gizarte Funtsaren 3. helburua gainbegiratzea:
- Europako Gizarte Funtsak finantzatutako Lanbide Prestakuntzaren jardueren informazioari eta publizitateari buruzko arauak betetzea.
- Adostasun-agiria Bigarren Hezkuntzaren programazio didaktikoen berrikuspenean jasotzea.
- Eskolako elkarbizitzari eta diziplina-prozesuei buruzko gatazkak eta erreklamazioak ebaztea.

¹³⁷ Ikastetxe batek sari hau bigarren aldiz jasotzen duen lehen aldia. Izan ere, sari hori “San Cernin” ikastetxeak 1999-2000 ikasturtean jaso zuen.

Helburu orokorrak eta zehatzak:

Urriaren 3ko 890/2005 Ebazpenaren bidez zehaztu dira¹³⁸. Ebazpen horren deskripzioa 1.2. “Lege-iruzkinak” paragrafoaren 1.2.2.1.1. epigrafean jaso da.

Plantilla:

Ikuskatzaileen plantillaren bilakaera hurrengo taulan jaso da:

3. taula

Ikuskapen-plantillaren bilakaera, 1999/2000tik 2005/2006ra

Ikasturtea	1999/00	2002/03	2003/04	2004/05	2005/06
Lanpostuak	20	23	23	23	23
Okupatuak	16	20	21	23	23

Iturria: Ikuskapen Teknikoaren eta Zerbitzuen Zerbitzua

Ikuskatzaileen Ikuskapen Zerbitzura egin duten zuzkidura ez da aldatu aurreko ikasturtearekin alderatuta. Ikasturte honetan plantilla osoa bete den lehen aldia da.

3.3.2. Prestakuntza- eta Hobekuntza-plana, 2005-2006 ikasturtea. 2005eko iraila – 2006ko ekaina

4. taula

Nafarroako Ikuskapen Zerbitzuaren Prestakuntza eta Hobekuntza, 2005eko iraila – 2006ko ekaina

Jardueraren antolatzailea	Jardueraren izendapena	Ikuskatzaile-kopurua	Ordu-kopurua
AENOR	Kalitatearen kudeaketa-sistemaren auditoretzen ikastaroa	21	15
AENOR	ISO 9001:2000 kanpo-auditorea	1	40
INECSE	INECSEren helburuak eta planak	1	10
Madrilgo Ikuskapen Zentrala	Ikastetxeen autonomiari buruzko ikuskapen-jardunaldiak	3	21
INAP	Hizkuntzen hobekuntza	4	Ikasturte osoan zehar
INECSE	PISA Estatistiken Iberoameriketako Tailerra	1	30
Ikuskapen-zerbitzua	Eskolako Erasoaren Tratamenduari buruzko jardunaldia	23	4
Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua	Euskal Herriari KKS duten ikastetxeetara bisita egitea	1	10

Iturria: Ikuskapen Teknikoaren eta Zerbitzuen Zerbitzua

¹³⁸ Ikus 12. puntua, 1.1.2.3 epigrafea, I. kapitulua.

3.4. Orientabidea

3.4.1. Ikastetxe publikoetako orientatzaileak

5. taula

kastaroa	Ikastetxeetako orientatzaile-kopuruaren bilakaera				
	1999/00	2002/03	2003/04	2004/05	2005/06
Orientatzaileak	107	108	111	116	120

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua.

Hezkuntza-sarean eskuragarri dauden orientatzaileen kopurua areagotzen ari da. Aurten plantillaren hazkundea %3,4koa izan da.

6. taula

Tokia	Orientatzaileen banaketa ikastetxe publikoetan. 2005/2006 ikasturtea			Guztira
	Bigarren Hezkuntzako Institutua	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua	Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa	
Iruña	21	4	30	55
Lizarra	4	3	6	13
Tafalla	4	1	9	14
Irurtzun	3	1	5	9
Tutera	6	2	11	19
Elizondo	2	1	4	7
Sangüesa	2	0	1	3
Guztira				120
Orientatzaileak CREENAn				
Ikusmen-arlokoak				1
Entzumen-arlokoak				1
Mugimendu-arlokoak				1
Lehen Hezkuntzako orientatzaile psikikoak				1
Bigarren Hezkuntzako orientatzaile psikikoak				2
Orientatzaile psikikoak, euskaraz				1
Jokabidearen orientatzaile psikikoak				1
Laguntza goiztiarraren modulua				3
Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak				2
Tuterako CREENA				1
Guztira				14
Orientatzaileak Eskolako Orientabidearen UTan				
Negoziatu-burutza				1
Aholkulari teknikoa				1
Elkarbizitza Aholkularitza				1
Guztira				3
Orientatzaileak guz				
Ikastetxeetarako zuzeneko arreta				120
CREENA				14
Orientabide-arloko burua				3
Guztira				137

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua

3.4.2. Orientatzaileak itunpeko ikastetxeetan:

7. taula

Hezkuntza maila	Orientabidearen bilakaera Nafarroako Itunpeko Ikastetxeetan, 2001-02tik 2005-06ra									
	2001/2002 ikasturtea		2003/2004 ikasturtea		2005/2006 ikasturtea		2004/2005 ¹³⁹ ikasturtea		2005/2006 ikasturtea	
	Ikastetxe-kopurua	Ordu-kopurua	Ikastetxe-kopurua	Ordu-kopurua	Ikastetxe-kopurua	Ordu-kopurua	Ikastetxe-kopurua	Ordu-kopurua	Ikastetxe-kopurua	Ordu-kopurua
Lehen hezkuntza	45	537	45	534	45	499	44	501	44	505
Bigarren hezkuntza (DBH, Batxilergoa)	37	453	54	444	39	452	38	442	38	442
LH eta LHP	5	66	9	68	5	68	6	69	6	68
Guztira	*	1.056	*	1.046	*	1.019	*	1.012	(*)	1.011

*Ez da agertzen ikastetxe-kopuru osoa, horietako batzuk irakaskuntzak partekatzen dituzte eta (DBH, Batxilergoa, LH eta LHP).

Iturria: Ikerketarako Zentroen eta Diru-laguntzen Zerbitzua

Ez da aldaketarik gertatu aurreko urtearekin alderatuta orientabidean aplikatutako ordu-kopuruari dagokionez.

3.5. Eskolako antolaketa eta berrikuntza. ILZ

3.5.1. Irakasleak Prestatzeko Urteko Plana, 2005/2006 ikasturtea

Irakasleak prestatzeko urteko plana, 2005-2006 ikasturtea, hain zuzen, 2005eko uztailaren¹⁴⁰ 14ko 697/2005 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

3.5.1.1. Helburu orokorrak, jarduketa-ildoak, motak

Helburu orokorrak:

Erdietsi nahi diren helburuak hurrengoak dira:

1. Kalitatea Kudeatzeko Sistemak garatzea ikastetxeetan eta hezkuntza-zerbitzuetan.
2. Talde-lanaren kultura sustatzea, batez ere, autoikaskuntza, erabakiak nahiz akordio partekatuen hartzea eta lanbideko praktika egokien eskualdaketa bultzatu ahal izateko.

¹³⁹ Ez da jasotzen Baztán Ikastola, udalaren titulartasunpekoa da eta. San Agustín ikastetxea (Lehen hezkuntza, DBH eta Batxilergoa) desagertu da. Prestakuntza Politeknikorako Ikastetxea LHn agertu da.

¹⁴⁰ Ebazpen hori ez da argitaratu. Datuak "Irakasleen Prestakuntza-plana" koadernotik atera dira, Hezkuntza Sailak idatzitakoa (Sailaren webgunean ere agertzen dira: www.pnte.cfnavarra.es/caps).

3. Estrategia metodologikoak eta antolatzaileak hedatzea, curriculumaren eta prestakuntzaren eremu ezberdinetan irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuetan esku hartu eta horiek hobetzeko, eta, bereziki, eskumen gakoen gain eragina izango du.
4. Aniztasunaren tratamendu egokia eta elkarbizitzaren hobekuntza ahalbidetzen duen ikastetxearen planen diseinua eta praktika bultzatzea.
5. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera bultzatzea curriculumaren alderdi ezberdinak ikasi ahal izateko.
6. Irakasleei balio anitzeko prestakuntza malgua eskaintzea, Lanbide Prestakuntzaren eremuan eduki berritzaileen edukietara egokitu daitezten.
7. Prestakuntza iraunkorreko prozesuak ebaluatzeko prozedurak eta estrategiak ezartzea, irakasleen hezkuntza-praktikara egindako egokitzapenarekin, gardentasun maila alderatu ahal izateko.

Jarduketa-ildoak:

1. Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek prestakuntza bermatzea zuzendaritza-proiektu egokia proposatzen duen ikastetxearen diagnostikoa egiteko xedearekin.
Oinarrizko edukiak 4 modulutan bereizten dira: eskolako antolaketa, buruzagitza pedagogikoa, giza baliabideen kudeaketa eta baliabide materialen kudeaketa.
Zuzendaritza-proiektu bat proposatu da, erreferentziazko tresna praktikoa gisa.
2. Hezkuntza Saileko ikastetxeetan eta zerbitzuetan, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan Kalitatearen Kudeaketa Sistemak sustatzea.
Programa bat ezarri da gai hauek jorratuz: helburuak, batzorde teknikoak eta horren eginkizunak, sareen antolaketa (sarbidearen betekizun orokorrak eta zehatzak, laguntzak, jarraipena), ebaluazioa eta ziurtagiria.
3. 2005/2007ko biurteko hobekuntza-plana, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan garatutako Atlante proiektuaren ondoriozkoa. Ikuskapen Zerbitzuak ebaluazioen ondorioz sortutako ikastetxeetako prestakuntza-beharrrizanak (matematikak, gaztelania eta zientziak, Lehen Hezkuntzako 2. eta 4. mailan) jorratu ditu.
4. Irakasleei balioak eta bakearen kultura barneratzen dituen hezkuntza sustatzeko zeharkako gaiei buruzko prestakuntza ematea.

Prestakuntza-motak:

Proiektu pilotuak	-	-	-	-	-	1	1

1999. urtean, 20 ikaslek parte hartu zuten. Urte horietan parte hartu zuten ikasle parte-hartzaileen kopuruaren %71 emakumezkoak ziren eta %25 gizonezkoak.

226 ikasle Ingalaterrara joan dira, 310 Italiara, 38 Irlandara, 23 Frantziara, 9 Alemaniara, 1 Finlandiara eta 1 Islandiara.

Aurreko ikasturteko (203. orrialdea) txostenean adierazitako programan parte hartu duten ikastetxeei Argako Ribera BHI eta Aralarreko San Miguel BHI ikastetxeak gehitu zaizkie, eta iaizko programetan beste hiru ikastetxe gehiago ditugu: "Salazar", "Atalaya" eta "Ebro".

3. "Leonardo da Vinci" programa: LPko irakasleen mugikortasuna

- VIANA PROIEKTUA: Frantzia, Irlanda, Italia eta Erresuma Batuko enpresetan prestatzeko egonaldiak, lanbide-prestakuntzako irakasleei zuzenduta. Egonaldien iraupena 4 astekoa da irakasleen espezialitatea eskaintzen duten enpresetan garatuko dira. Parte-hartzaileak: 9 irakasle.

Mugikortasun-prozesuan dagoen irakasle-kopurua: 9 irakasle.

4. EUROPASS-FORMACIÓN agirian izandako parte-hartzea

Europass-Formación Europar Erkidegoko agiria da. Agiri hori 1998. urteko abenduaren 21eko Erabakia aplikatuta indarrean jarri da, txandakako prestakuntzaren Europako ibilbideen sustapenari buruzkoa.

Horren xedea, erkidego mailan, pertsona batek bere jatorrikoa ez den EBko estatuetan egindako prestakuntza-ibilbideak ziurtatzea da. Modu horretan, atzerrian egindako prestakuntza-epeldiak ikus daitezke.

Espanian 2002ko Europako ekimen hori ezarri dela kontuan hartuta, "Leonardo da Vinci" Espainiako Agentzia, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren mende dagoena, Europass-Formación agiria nazio mailan hedatzeko arduraduna da.

Nafarroako Foru Erkidegoan "Europass-Formación" Europako ekimena kudeatzeko organo eskuduna Hezkuntza Saileko Prestakuntza Zerbitzua da.

2006ko ekaina arte, Nafarroan 504 EUROPASS-FORMACION ziurtagiri igorri dira, 20 ikastetxeetako ikasleentzat.

4.3.3. Europako bestelako hezkuntza-proiektuak

I. Sócrates

EBko programa da, batez ere, Hezkuntza eremuko nazioz gaindiko lankidetzarako. Sócrates Nazioko Agentziak kudeatzen du eta horren xedea EBko herrieta-ko ikastetxeen irakasleen nahiz ikasleen mugikortasuna bultzatzea da.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak jarraian zehaztutako Ekintza Deszentralizatuak soilik kudeatzen ditu.

2. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailak hauek kudeatuko ditu:

- Comenius I

Helburu orokorrak hurrengoak dira: Eskolako Hezkuntzaren kalitatea hobetzea, Europako hedapena hobetzea, hizkuntzen ikaskuntza bultzatzea eta kultura-aniztasuna sustatzea.

Ikastetxeek hiru proiektu-motarako diru-laguntzak eska ditzakete:

- Eskolako proiektuak
- Hizkuntza-proiektuak
- Eskola-garapenerako proiektuak

- Ikastetxeek hizkuntza-arloko laguntzailea eska dezakete

Proiektu horiek aurrera eramateko, ikastetxeek atzerriko bazkideen esku-hartzea izan beharko dute.

- Comenius 2.2.

Hezkuntza Saileko langileentzako Etengabeko Prestakuntzaren Jardueretarako diru-laguntzak:

- Irakasleen Hasierako Prestakuntza
- Atzerriko irakurlegoa
- Prestakuntzarako banakako diru-laguntzak: 22 diru-laguntza, gehienez ere, 1.500 eurokoak (guztira 33.000 euro)
- Atzerriko hizkuntzetako irakasleentzako diru-laguntzak: %70
- Edozein gai eta mailako irakasleentzako diru-laguntzak: %30
- Eskabideak: 29

- Arión

Arduradun eta espezialistentzako ikasketa-bisitak, Hezkuntzari begira erabakiak hartzeko; bi eskabide onetsi dira (guztira 2.600.euro).

- Grundtvig

Helduen Hezkuntza: bestelako hezkuntza-ibilbideak

Grundtvig 2: irakaskuntza-elkarteak (proiektuak egitea): 3 proiektu aurkeztu eta onetsi dira, 20.000 euroko zenbatekoarekin.

Grundtvig 3: Helduen Prestakuntza-jardueretarako diru-laguntzak (banakako prestakuntza-ikastaroak). 4 parte-hartzaile onetsi dira, gehienez ere, 1.500 euroko zenbatekoarekin.

- Europako Batzordearen Bekak

Beka horietarako deialdia urtean bi aldiz egiten dira (abenduan eta ekainean) eta Bruselan Europako Batzorderen programaren barruan daude. Zio hori dela eta, Europako Batzordearen web orrian edo MECen bidez hedatuko da.

Espanian urtean-urtean gutxi gorabehera 60 beka ematen dira.

- Behin-behineko ekitaldiak

- Europako zigilua
- Unesco
- Europako udaberria
- Hizkuntzen eguna
- Comenius astea

4.4. Eskolaz kanpoko jarduerak

4.4.1. Eskolaz kanpoko jarduerak

62. taula

Eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak, 2000tik 2006ra

Urtea	Ikastetxe publikoak		Itunpeko ikastetxeak		Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
	Aurrekontuan jasotakoa	Atxikitakoa	Aurrekontuan jasotakoa	Atxikitakoa	Publikoak	Itunpekoak	Publikoak	Itunpekoak
2000	328.453	324.835	93.457	92.581	206	65	46.362	25.750
2003	203.254	202.841	76.928	76.628	222	67	52.318	29.960
2004	201.221	201.221	76.159	76.159	232	65	54.631	29.650
2005	100.000	100.000	50.000	50.000	228	63	57.386	30.074
2006	99.850	99.850	49.393	49.393	225	63	58.153	30.595

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua.

4.4.2. Bigarren hezkuntzako ikasle hoberenei emandako diru-laguntzen zenbatekoak, hezkuntzak hobetu, eskolako elkartrukeak egin eta eskola-bidaiarietarako:

63. taula

Ikasle hoberenei emandako diru-laguntzak, 2000tik 2006ra

Urtea	Egindako gastua
2000	272.466
2003	226.900*
2004	247.000
2005	150.000
2006	150.000

*Ez dira jaso eskola-bidaiarietarako diru laguntzak.

4.4.2.1. Bigarren Hezkuntzako ikasle hoberenei emandako diru-laguntzak, hizkuntzak atzerrian hobetzeko:

64. taula

Bigarren Hezkuntzako ikasle hoberenei Atzerrian Hizkuntzaren Udako ikastaroak egiteko emandako urteko zenbatekoak, 2000-2006

Urtea	Egindako gastua	Emandako diru-laguntzak	Diru-laguntza bakoitzaren zenbatekoa
2000	186.314	203	932
2003	184.700	195	900 (DBH) 1.000 (I. batxilergoa)
2004	212.600	193	1000 (DBH) 1.100 (I. batxil.)
2005	150.000	117	1.206 (I. batxil.) ¹⁹⁴
2006	150.000	117	1.250

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua.

Oharra: Ikastaro honen destinoak txosten honen 128. taulan jaso dira.

4.4.2.2. Eskolako elkartrukeak egiteko diru-laguntzak:

65. taula

Eskolako Elkartrukeak egiteko diru-laguntzak, 2000tik 2006ra

Urtea	Gastua (eurotan)	Ikastetxe publikoak		Centros Concertados	
		Zenbatekoa (eurotan)	Ikastetxe-kopurua	Zenbatekoa (eurotan)	Ikastetxe-kopurua
2000	75.952	36.812	11	39.126	11
2003	42.000	22.000	8	20.000	8
2004	45.600	14.000	7	31.600	8
2005(*)	-	-	-	-	-
2006(*)	-	-	-	-	-

(*) 2005 eta 2006. urteetan ez zen egon programa honetarako deialdirik.

4.4.2.3. Eskola-bidaiariak:

66. taula

Eskola-bidaiarien programarako diru-laguntzak, 2000tik 2006ra

Año	Ekarpena	Zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak	Ikasle onuradunak
2000	MEC	26.315	11	165
	Nafarroako Gobernua	18.777		
2003	MEC	28.476	11	165
	Nafarroako Gobernua	20.319		

¹⁹⁴ Diru-laguntza ikasturte osoaren kostuaren %50 izango da. Ikasleak beste %50 ordainduko du.

Año	Ekarpena	Zenbatekoa	Ikastetxe onuradunak	Ikasle onuradunak
2004	MEC	29.615	11	165
	Nafarroako Gobernua	20.725		
2005	MEC	30.505	12	180
	Nafarroako Gobernua	20.925		
2006	MEC	54.468	11	165
	Nafarroako Gobernua	26.000		

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua.

4.4.2.4. Kultura-ibilbideak:

67. taula

Kultura-ibilbideen programa, 2000tik 2006ra

Urtea	Gastua (eurotan)	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak	
		Publikoak	Itunpekoak	Publikoak	Itunpekoak
2000	113.939	129	34	2.827	1.622
2002	116.476	119	35	2.625	1.695
2003	121.135	122	36	2.777	1.681
2004	119.924	116	44	3.428	2.690
2005	119.999	89	31	2.535	1.445
2006	150.000	114	32	2.878	1.561

4.5. Bestelako hezkuntza-programak: Osasuna, Industria, Barne-arloa, Gizarte-ongizatea, Ingurumena, Mankomunitatea eta bestelakoak

• Osasun Saila

- Drogazaletasunaren Foru-plana.
 - Hezkuntza-sisteman drogei buruzko esku-hartze planak egin dira. Gainerako ekintzak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazi dira, 197. orrialdean.
- Osasun Publikoaren Institutua.
 - REEPSen (Osasuna Sustatzeko Eskolen Europako Sarea) parte hartzen duten ikastetxeen 18 proiektu kontuan hartu dira.
 - Gainerako ekintzak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazi dira, 197-198. orrialdeetan.

• Industria, Merkataritza eta Lan Saila

- Energia eta Kontsumo Arloa.

- Energia Arloak eta Kontsumo Arloak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazitako ekintzak garatu dituzte, 198. orrialdean.
- Horrez gain, Kontsumo arduratsuaren Foroan parte hartu da Kontsumo arduratsuaren gida egin ahal izateko.

• Barne Sails

- 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazitako ekintzak garatu dira, 199. orrialdean.
- Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusia
 - Educando en Justicia (Justiziari buruzko hezkuntza ematea) programa hedatu eta abian jartzea. Programa hori bi ikastetxeetan hasi da esperimentazioa pilotu gisa.

• Gizarte-ongizaterako Sails

- Emakumearen Institutua
 - Genero-indarkeriaren aurkako Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordean parte hartzea.
 - Gainerako ekintzak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazi dira, 198. orrialdean.
- Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutua
 - Eskolako erkidegoan lortasunaren prebentzioari buruzko proiektua abian jartzeko lankidetzan jardutea.

• Ingurumen Sails

- Ingurumen Hezkuntzaren Nafarroako Estrategia.
 - Prestakuntza-ikastaroak eta informazio-saioak antolatzeke proposamenak.
 - Gainerako ekintzak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazi dira, 198. orrialdean.

• Iruña/Montejurrako Mankomunitatea

- Ikastetxeetan egiten dituzten jarduketan aholkularitza
- Eskolako biztanleriari zuzendutako kanpainetan aurkeztutako lanen ebaluazioan parte hartzea

Bestelako programak:

• Trafikoko Probintzia Zuzendaritza

- Gainerako ekintzak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazi dira, 199. orrialdea.

• GKEn koordinatzailea Nafarroan

- Irakasleei eta familiei zuzendutako informazio-ikastaroen eta tailerretan lankidetzan jardutea
- Gainerako ekintzak 2004-2005 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza-sistemaren Txostenean adierazi dira, 199. orrialdea.

4.6. Gurasoen Elkarteak eta Ikasleen Elkarteak

4.6.1. Gurasoen Elkarteak

4.6.1.1. Gurasoen eta Ikasleen Elkartei nahiz Federazioei emandako diru-laguntzak

68. taula

Ikasleen Gurasoen Elkartei nahiz Federazioei emandako diru-laguntzak, 2000tik 2006ra (eurotan)

Urtea	Aurrekontuan jasotako zenbatekoa	Atxikitako zenbatekoa	Elkarteak	Federazioak
2000	239.804	231.318	180.268	51.050
2003	178.049	173.072	133.415	39.657
2004	176.269	172.247	132.985	39.262
2005	97.750	97.750	75.480	22.270
2006	146.625	146.625	113.220	33.405

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua.

69. taula

Ikasleen Gurasoen Elkarteak, 2000/2006 urteak

Federazioa	HERRIKOIA			CONCAPA			SORTZEN		
	Elkarte kopurua	Bazkideak guztira	Atxikitako zenbatekoa (eurotan)	Elkarte kopurua	Bazkideak guztira	Atxikitako zenbatekoa (eurotan)	Elkarte kopurua	Bazkideak guztira	Atxikitako zenbatekoa (eurotan)
2000	115	19.881	24.581	45	16.623	17.453	25	6.172	9.015
2003	124	28.000	21.062	41	16.500	11.922	33	5.900	6.673
2004	127	28.500	21.335	40	16.500	11.215	33	5.825	6.712
2005	127	28.500	11.856	40	16.500	6.478	35	6.200	3.935
2006	146	29.000	18.227	40	16.500	9.340	35	6.400	5.838

Iturria: Eskolako Antolaketa eta Berrikuntza Zerbitzua.

2006. urtea	Gurasoen Federazioak eta Elkarteak	Itunpeko ikastetxeen APYMAS	Ikastetxe publikoen APYMAS
Kopurua	3	93	152
Atxikitako zenbatekoa eurotan	33.405	53.193	60.027

Federazioetan eta Apymas elkartean prestakuntza-beharrizanen eta -eskarien gehikuntza nabaria gertatu dela egiaztatu beharra dago. Hori dela bide, gaur egun erakunde horien aukerak gainditzen dituzten egitura eta baliabideak eskuratu behar dira, Hain zuzen ere, ikasturte honetan gai horren inguruan esfortzu handia egin dute, baina ez da nahikoa eta boluntarioak baino zerbait gehiago behar da. Eskolan eta Familian hezkuntzaren inguruan sortzen diren zailtasunen ondorioz, beharrezkoa da hezkuntza-agintarien esku-hartzea, bai eta erakunde baliabideak ere, batik bat, hezkuntza-erkidegoko kolektibo guztien arteko elkarbizitza eta errendimendua sustatu ahal dadin.

Oraingoan ere Nafarroako Gobernuak Nafarroako ikasleen Gurasoen Elkarte eta Federazio bakoitzari atxikitako partidaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Ikasturte honetan, partida ekonomikoa gehitu egin 2005. urtearekin alderatuta. Horrenbestez, kolektibo horien lana eta parte-hartzea zaildu egin da, gutxieneko azpiegiturari eutsi ezin zaio eta. Nafarroa Apymas eta Federazioei aurrekonturik txikienetakoa ematen dien Estatuko Erkidegoa da.

4.6.1.2. Ikasleen gurasoak prestatzeko ekintzak

4.6.1.2.1. CONCAPAK antolatutako prestakuntza-jarduerak, 2005-2006 ikasturtea

CONCAPA gurasoen elkarte da eta historian 75 urte baino gehiago bete ditu. Elkarte hori Nafarroan sortutako hasieretako elkarte-erakundea da. Nafarroako ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxeetako Gurasoen 40 elkarte biltzen ditu, Nafarroako geografia guztian hedatuta.

Ikasturtean zehar, CONCAPAK zenbait ekitaldi antolatzen ditu, horietako batzuk beste erakundeekin lankidetzan, gurasoei euren prestakuntza-zereginean laguntzeko xedearekin. Bestalde, CONCAPAn federatutako APYMAS elkarteek euren ikastetxeetan 150 ekintza baino gehiago antolatzen dituzte, gurasoak eta ikasleak prestatzeko.

CONCAPAren prestakuntza-jarduerak funtsezko bi bidetan garatzen dira:

- CONCAPA-NAVARRA Nafarroako Federazio Autonomikoan antolatutako jarduera propioak
- NAZIOKO KONFEDERAZIOAREN eta PROFORFA FUNDAZIOAREN bidez egindako jarduerak.

Horrez gain, beste erakundeek antolatutako jardueren parte-hartzearekin, lankidetzarekin eta laguntzarekin.

I.- CONCAPA-NAVARRAK antolatutako prestakuntza-jarduerak:

a.- APYMASeko prestakuntza-ikastaroa:

APYMASeko Zuzendaritza Batzordeko kideak prestatzeko ikastaroen programa. Bi orduko hiru saio izango dira, hurrengo gaiei buruz:

- Hezkuntza-sistemaren konfigurazioa
- Gurasoen garrantzia ikastetxeetako eskola-kontseiluetan
- Talde-dinamikarako tresnen eskuraketa

b.- “Familia-Eskolaren arteko topaketak”

FAMILIA EKINTZAren lankidetzarekin batera, Fuerte del Príncipe Egoitzaren bileraren bitartean Familia-Eskolaren arteko topaketak 2005eko azaroaren 18 eta 19an ospatu ziren, LELO honekin: “Hezkuntzaren gaineko erantzukizunak”.

Saioak modu honetan antolatu ziren:

- Hitzaldia: “Nafar berrien eskolako eta eskolaz kanpoko integrazioa”, Marta Liliana Ruiz andrearen eskutik.
- Hitzaldia: “Irakasleen erantzukizuna gaur egungo hezkuntzan”; hizlaria Elvira Martínez Chacón andrea, NUeko Europako Ikasketa Zentroko zuzendariordea.
- Hitzaldia: “Gurasoen erantzukizuna hezkuntzan: aisia eta denbora libre (kontsolak, bideojokoak, internet)”; hizlaria Fernando García jauna, hezkuntza eta teknologia berrietako irakaslea eta aditua. Alternatiba gisa, Fúnes ikastetxe publikoko Apymasen parte hartzen duten gurasoen esperientzia (tradiziozko eta familiarreko jokoak).
- Mahai-ingurua: “Erakundeen eta administrazioaren erantzukizuna hezkuntzan”; parte-hartzaileak Pedro Pegenaute jn., Juan Andrés Ciordia jn. eta Ana Elizalde andrea.

Horrez gain, gurasoek irakasleei omenaldia eskaini zieten. Familia Ekintza eta Concapa Navarra elkarteetako presidentek Milagro Arzo batzordekidea nabarmendu zuten, Plaza de la Cruz institutuko irakaslea (45 urte lanean).

45 pertsonak parte hartu zuten.

c.- Hitzaldien zikloa

Urriaren 19 eta azaroaren 10 artean ikastetxe ezberdinetan zenbait konferentzia antolatu ziren, hezkuntzari buruzko ELO berria hizpide hartuta:

- Konferentzia Belagua Torre II Ikastetxe Nagusian
- Konferentzia Belagua Fase II Ikastetxe Nagusian
- Konferentzia Aldaz Ikastetxe Nagusian

- Informazio-konferentzia El Huerto ikastetxean.
- Informazio-konferentzia Irabia ikastetxean.

Azaroaren 7an, EL Oren ezarpenari buruzko informazio-konferentzia irekia, hezkuntzaren lege berria, Santiago Arellano jaunaren eskutik Mikael aretoan.

Apirilean, Udako Konferentzien Zikloan, Iruñako Mikael aretoan programa hau eskaini zen:

- “Bizitzaren kultura” Itxaropenaren bidea. Haurdunaldiko arazoek konponbideak, bizitzarako alternatiba irekia, José Miranda doktorearen eskutik. Apirilak 26.
- “Lagunduriko ugalketa. Klonazioa. Ama-zelulak. Faltsutasun zientifikoak lagunduriko ugalketan. Ama-zelula helduen eta enbrioizko ama-zelulen arteko ezberdintasunak. Arazo etikoak ikerketa zientifikoan, Esteban Santiago doktore eta katedradunaren eskutik. Apirilak 27.
- “Eugenesia. Ahulen aurkako gerra” Heriotzaren Kulturari buruzko ideologia, José Alfredo Elía Marcos jaunaren eskutik, Fisikan Lizentziaduna. Apirilak 28.

Bertaratuak guztira: 280.

d.- Familiaren jaialdia

Ekainaren 3an eta 4an Familiaren Jaialdiaren XXIV. edizioa Iruñako gotorlekuan ospatu zen San Francisco de Javierren V. mendeurrenarekin batera. Edizio horretan, elkarteko kide diren APYMAS elkarteek eta bestelako gazteen eta familien elkarteek parte hartuko dute. Gutxi gorabehera Familiaren Jaialdian 1.000 pertsona hurbildu ziren.

e.- Konferentzien, hitzaldien eta ikastaroen eskaintza:

Ágora Taldearen eta beste profesional batzuen lankidetzarekin, APYMAS guztiei eskainitako konferentzien, hitzaldien eta ikastaroen programa ezarri da eta eremu hauek jorratuko dira:

- Hezkuntza eta teknologia berriak (internet, telebista, bideojokoak, Chat...).
- Gurasoak prestatzeko programak.
- Gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak (nerabetasuna)
- Balioen hezkuntza
- Afektibotasun- eta sexu-hezkuntza
- Elkarbizitzarako hezkuntza
- Komunikazioa eta gizarte-trebetasunak
- Giza hezkuntza (kontsumoa, bide-hezkuntza, ingurumena...)
- Gaixotasunari begira izan beharreko sentsibilizazioa.

- Drogazaletasunaren Erkidego Prebentzioa
- Osasunerako hezkuntza (elikadura, loditasuna, bulimia, anorexia).

2.- Nazio Konfederazioarekin egindako jarduerak.

a.- Konfederazio Batzordearen eta Batzar Orokorraren aldizkako bileretara erregularitasunez bertaratzea.

b.- CONCAPAko Familien Jardunaldietara bertaratzea. Jardunaldi horien leloa "*Familia eztabaidapean*" da eta Gualdalajaran ospatu da urriaren 28tik 30era.

Biurteko topaketa; XXI. mendeko familiaren problematika aztertuko da (familiaren balioak, eskola eta gizartea). Hitzaldiak CONCAPAko hiru presidenteorde- en ardurapean eskaini ziren: José Manuel Martínez jn.; Luis Miguel Serrano jn.; eta Guillermo Pérezj jn.

c

Azaroaren 12an Madrilén hezkuntzaren alde egindako manifestazio handiaren antolaketan parte-hartzea eta bertaratzea, ELO "HEZKUNTZAK ERE GARANTZIA DU" lelopean, Ez; Espainia guztiko milioi bat eta erdi pertsona baino gehiago bildu ziren.

d.- CONCAPAren IRAKASKUNTZA-ASKATASUNAREN I. SARIAren banaketarako ekitaldia, urtean zehar Irakaskuntzaren Askatasuna bermatzaile gisa adierazitako erakundeak eta komunikabideak aintzatesteko.

Sarien banaketa Madrilgo Melia Princesa Hotelean egin zen 2005eko abenduaren 18an eta irabazleak hauek izan ziren: Telefónica Fundazioa, hezkuntza eta teknologia berriak bultzatzeagatik; El Mundo aldizkaria, adierazpen-askatasuna defendatzeagatik, eta COPE informazio-zerbitzuak, igorleak askatasunaren defentsan jasandako une zailengatik. Ekitaldi berean, Urrezko Intsignia Esperanza Aguirre andreari eman zitzaion, Madrilgo Autonomia Erkidegoko presidentea dena, ekimen pribatuko ikastetxeen sorrera sustatzeagatik. Horrek guztiak ikastetxeen aniztasuna ekarriko du, irakaskuntza-askatasunaren benetako egikaritza ahalbidetuz.

"Irakaskuntza-askatasuna eta eskolako txeketa" hitzaldia Jose Manuel Otero Novas ministro ohi jaunaren ardurapean eskaini zen. Hitzaldi horretan, irakaskuntza-askatasuna gurasoen eskubideen lehenengo beharrizan gisa azalduko dira.

e.- Vistalegre Jauregian (Madril) apirilaren 1ean egindako kontzentrazioan lankidetzan jardutea eta bertaratzea, hezkuntzaren lege egokiaren alde, "ASKATASUNA, KALITATEA, PRESTIGIOA"... ELO, EZ lelopean.

3.- Bestelako erakundeek antolatutako jarduerak

- Familiaren Zuzendaritza Nagusiak antolatutako jardunaldia: “Irakatsi telebista ikusten”, Baluarten. 2005eko irailak 21.
- Familiaren Espainiako Foroaren II. Kongresura bertaratzea, Madrilen, urriaren 8 eta 9an.
- *Elkarbizitzarako Hezkuntzan Gizarteak Esku Hartzeko Estrategiei* buruzko mahai-ingurua, Gizarte Eskubideei buruzko Tailerraren barruan, Herriaren Defentsariaren bulegoak antolatuta. Azaroak 22.
- Justiziaren eta Pobreziaren aldeko Martxa Solidariora bertaratzea, Kristauen Kultura Mugimenduak antolatuta.
- Iruñako Artzapezpiku-barruaren Osasuna Gizatiartzeko Ordezkaritzaren zerbitzu berriaren aurkezpena bertaratzea, abenduaren 17an egindakoa.
- Gizarte Zerbitzuen Lege berriaren zirriborroaren aurkezpena bertaratzea, Nafarroako Gobernuak. Abenduak 21.
- Los Furoseko (Sarasate Pasealekua) monumentuaren aurreko kontzentrazioa bertaratzea. Abortuaren ondoriozko biktima guztien oroimenez, martxoak 25 (larunbata): *Jaiotzeko dagoen haurren munduko eguna*. ANDEVI Gazteak antolatuta, “Jarri kandela bizitzaren alde” lelopean.
- FAMILIAREN NAFARROAKO FOROaren aurkezpena antolatu eta bertan parte hartzea, Baluarten, apirilaren 29an; bestelako familia- eta hezkuntza-erakundeekin batera.
- Familiako Pastoraltzaren Ordezkaritza Elizbarrutiaren lankidetzarekin batera Bizitzaren eta Familiaren aldeko Jardunaldia antolatu eta bertan parte hartzea, Javierren, apirilaren 30ean.
- Mahai-inguruan parte hartzea, Haur Loditasunari buruzko Jardunaldian, NUPak antolatuta. Maiatzak 25.
- Ekainaren 10ean (larunbata) Ikastetxe Publikoaren Kalitatearen aldeko Plataformaren I. Batzar Nazionalean esku hartu zen, Familiaren Espainiako Foroaren ekimen horren oinarriak finkatzeko xedearekin.

4.6.1.2. HERRIKOAK egindako prestakuntza-jarduerak, 2005-2006 ikasturtea

HERRIKOA, Nafarroako Ikasleen Gurasoen Elkarten Federazioa, gaur egun 129 Apymas baino gehiago ditu atxikita (2006ko ekaina).

Herrikoaren prestakuntza-programa Federazioaren jarduera garrantzitsuena da. Prestakuntzak ikastetxeetan eta bestelako organoetan izan beharreko parte-hartzea barnean hartzen ditu.

Hona hemen jarduerak:

- Ikasturte osoan garatutako Apymas guztiei zuzendutako prestakuntza-plana egitea.
- Jardunaldien eta Topaketen antolaketa, egitea eta ebaluazioa, ondorioak egitea.
- CEAPAREN eta bestelako erakundeen prestakuntza-programetara bertaratztea.
- “Gurasoen Eskolak” sustatzea.
- Nafarroako Eskola Kontseiluan eztabaidatutako gai ezberdinak prestatu eta aztertzea.
- Eskarian kontuan hartzeko profesionalen datu-basea mantentzea.

Ikasturte honetan Jarduera, Ikastaro edo Tailer hauek egin dira:

1. APYMAS topaketa-jardunaldia, Iruñan: “Ikastetxeetako elkarbizitza-plana”.

Xedea: “Ikastetxeetako elkarbizitza-plana” egiteko unean kontuan izan beharreko pausoak ekartzea, bai eta gainerakoekin bizi eta elkarbizitzeko gai direla aitortzen duten elkarbizitza- eta ikaskuntza-esperientziak ahalbidetzea ere.

Hizlariak: Rita Maeztuk, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saileko Elkarbizitzaren Orientatzaileak, Zergatik Ikastetxeetako Elkarbizitza-plana?ri buruz hitz egin zuen. Horrez gain, Ángel Gordok (Noaineko “Elortzibar” DBHlko irakaslea) “Eskolako elkarbizitzaren errealitatea eta zailtasunak” eta Carmen Nietok (Herrikoaren prestakuntza-eremua) “Gurasoen garrantzia eskolako elkarbizitzan”.

2. Gurasoen prestakuntza:

– *“Familiaren barruan ikasten” tailerra.*

Metodologia parte-hartzailearekin, eta egoerak modu eraginkorrean aurkitzeko xedearekin, bost saio dira, eta gai hauek jorratzen dira: Familiako gatazken prebentzioa, nerabetasuna, familiaren eginkizun hezitzailea, gatazka ulertzeko gakoak eta indarkeriaren prebentzioa.

Ikastetxe hauetan eskaini da: Mendillorri IP: “El Lago”, Puente La Reina IP, Aitzasuko San Miguel BHI eta Abiltas IP.

– *“Sexu-hezkuntza Haur eta Lehen Hezkuntzan” tailerra*

Xedea hezkuntzan sexualitateari buruz familiek duten garrantzia aintzat hartzea da, eta erantzukizun hau ikastetxearekin eta bestelako profesionalekin partekatuko dute. Bost saiotan garatzen da.

Ikastetxe honetan eskaini da: Mendillorri IP: “El Lago”,

– *“Ikasketa-teknikak”*

Ikastetxe honetan eskaini da: Mendillorri IP: “El Lago”.

– *“Lehen Hezkuntzatik DBHra, familiaren igurikimena”.*

Iruñako eta eskualdeko bost ikastetxeetan garatu ziren, gurasoen parte-hartzea handiagoa izan zedin: Villavako Lorenzo Goikoa IP, Iruñako Vazquez de Mella IP, Iruñako Victor Pradera IP, Iruñako El Lago de Mendillorri IP, Iruñako Mendillorri IP.

3. Parte hartzeko prestakuntza

– *Apymas Batzordeak Kudeatzeko Tailerra*

Iruñako José María de Huarte IPan, Azpilagaña IPan, Puente la Reina IPan eta Etxarri Aranaz IPan.

– *Eskolako Kontseiluak. Funtzionamendua eta parte-hartzea.*

Iruñako José María de Huarte IPan, Iruñako Donibane BHIIn, Azpilagaña IPan, Puente la Reina IPan eta Etxarri Aranaz IPan.

4. CEAPAren jardueretako parte-hartzea.

– *Prestatzaileen prestakuntza-ikastaroak*

– *“Osasuna garatzen” topaketa.*

Xedea: Prestatzaileen prestakuntza komunikazioen trebetasunen sustapenari buruz eta Drogak kontsumitzeko prebentzioan lan egiteko gatazken ebazpena.

– *Ikastaroa ebaluatzeko jardunaldia*

– *“Sexu-afektibotasunari buruzko Hezkuntza” tailerra.*

Xedea: Prestatzaileen prestakuntza.

Gisa bertsuan, Ceaparen jardueren barruan, eta horren ordezkari gisa, Nafarroako Batzordekide Autonomikoa Ceapan, Clara Rosas, Educaredeko (Telefonica Fundazioa) Kontseilu Exekutiboko kidea izan da. Gainera, Epaimahaiaren kide izan da FADek (Drogazaletasunaren aurka Laguntza emateko Fundazioa) antolatutako “Ekintza Magistralari Saria” lehiaketan.

Era berean, Pedro Rascón Educaredeko “Interneteko baliabideen eta teknologien erabilera pedagogikoa”ren lan-taldeko kidea izan da.

– *Jardunaldia Errioxan, LARDEROn.*

– *“Eskolako jardunaldia eta Eskolako garaiak”.*

5. Bestelako erakundeek antolatutako jarduerak:

– *Ikastaroak NUPan.*

“Hezkuntza bakean ematea”

Udako ikastaroa, “Gazteak: nortasunak, belaunaldien arteko harremanak eta gizarte-aldaketa”.

– *Osasun Saila.*

“Drogazaletasuna prebenitzeko bitartekariak” ikastaroa.

“Familiaren barruan prebenitzea” proiektua. Drogen gazte-kontsumora egingako hurbilketa Nafarroan: Testuinguruak, espazioak, prezioak...”

– *Herriaren Defendatzailea.*

Elkarbizitzarako tailerra: “Gizarteak Hezkuntzan egon beharreko Elkarbizitzan esku hartzeko estrategiak”

– *Gizarte-ongizatea.*

“Gizarte Zerbitzuen Foru Legea”ren agiriari buruzko lan-bileran parte hartzea.

6 – APYMAS federatuek antolatutako jardueren laburpena:

Apymas elkarteek, Eskolako Kontseiluetan eta ikastetxeetako jarduera ezberdinetan duten parte-hartzea alde batera utzita, aldi berean, hainbat jarduera antolatu eta egingo dituzte. Lehenbizi, eskolako jarduera osagarriak ditugu (“goizeko haurtzaindegia” bezala ezagutzen denaz gain), eta ikastetxe ugari eskolako jantokia antolatzeko erantzukizuna dute eta eskolako garraioa antolatu edo bertan parte hartzen dute, bereziki, derrigorrezko osteko etapetan.

Ikasleentzako eskolaz kanpoko jarduerak eta kirol-jarduerak antolatu eta koordinatzen dituzte eta, neurri handi batean, gurasoak prestatzeko nahiz horien aisiarako jarduerak. Landagunean, Apymas elkarteak udalerrriak sarritan toki-erakundeekin koordinazioarekin kultura dinamizatzeko erakundeak direla azpimarratu behar da.

2005-2006 ikasturtean egindakoak zerrendatzen dira:

Gurasoen prestakuntza-jarduerak (Gurasoen Eskolak):

Ikastetxeko gobernu-organoetan izandako parte-hartzea,

Gurasoen hezkuntza, Elkarbizitza hobetzeko modua, Bullyinga, Komunikazio-teknikak, Estresaren kontrola, Kirola ikasleen artean sustatzeko modua, Gure seme-alaben ikaskuntzan laguntza ematea, Lan- eta familia-bizitzak bateratzeko modua, Hezkuntza erantzukizunez ematea, Irudia eta autoestimua, Balioen Hezkuntza, Ikasketa-teknikak, Drogazaletasunaren prebentzioa, Sexualitatea, Lehen sorospenak,

Irakurketa sustatzeko tailerrak, teknologia berriak (informatika, kamera digitalak), arte plastikoak,

Topaketak, txangoak eta ikasturte-amaierako bidaiak.

Udalerrirako edo auzorako jarduerak: Kulturartekoa sustatzeko jarduerak; Erregeen desfilea; Olentzero, Ihauteriak, Buztingintza tailerra; Gaztaina-saltzailea; Zinema, Haur Antzerkia, Haurraren eguna, Eskolako kirolak; Igerilekuetako animazioa, udako jarduerak, ludoteka; Ipuinlariak, etab.

4.6.1.2.3. SORTZEN GURASOAK antolatutako jarduerak, 2005-2006 ikasturtea

Sortzen Gurasoak Apymasen federazioa da eta horietako 34 barnean hartzen ditu. 2005-2006 ikasturtean bi informazio-saio egin dira.

Lau orduko bat ELoren izenburuarekin, aurreko urtean egindakoen jarraipena. Hizlaria Kristina Andres izan zen. 18 pertsona bertaratu ziren. Horren xedea gurasoei lege horren azken aldaketei buruzko informazioa ematea da.

Bigarrena, lau orduko iraupenarekin, izenburu honekin: Drogak: familiaren plangintza. Hizlaria Gerardo Castillo izan zen. 30 pertsona bertaratu ziren. Gai horren inguruko kezka ikastetxeetan drogak prebenitzeko Gobernuak iragarritako neurrien ondorioz sortzen da.

Bi jarduerok Iruñako udalak finantzatu ditu.

Urte guztian Nafarroan gurasoei, Bigarren Hezkuntzako ikasleei eta irakasleei Euskal Curriculumari buruzko hitzaldiak eskaini zaizkie, bai eta Nafarroako ikastetxe publikoko D ereduaren egoerari buruzkoak ere.

4.6.2. Ikasleen elkarteak

Ekainaren 15ko 618/2006 ebazpenaren bidez¹⁹⁵, Bigarren Hezkuntzako 2006ra-ko Ikastetxeetako Ikasleen Elkarteen alde emandako diru-laguntzen deialdia ebatzi zen. Diru-laguntzaren zenbatekoa 3.375 eurokoa izan da.

70. taula

Ikasleen Elkartei eta Federazioei emandako diru-laguntzak, 2000tik 2006ra

¹⁹⁵ Ikus I46.1.1.1.7 epigrafea, I. kapitulua.

4.7. Familiarentzako Laguntza-plana

Nafarroako Gobernuak Familiarentzako Laguntza-plana 2001eko maiatzaren 17an onetsi zuen eta Legebiltzarrak 2002eko martxoaren 12ko eta apirilaren 11ko testuen alde egin zuen. Plan horren barruan eskolako adinean dauden ikasleek gurasoekin egindako hainbat ekintza jasotzen dira.

Nafarroako Hezkuntza-sistemaren txostenean, 2002/2003 ikasturtekoan, eskolako adinean dauden ikasleek gurasoen planean jasotako ekintzen laburpena ageri da. Txosten horiek 2003/2004 eta 2004/2005 ikasturteetan egindako planaren jarduketan isla argia izan ziren, Hezkuntza Sailari dagozkionak.

2005ekoak ekainaren 27an Familiarentzako Laguntza-planaren Jarraipenaren Batzorde Teknikoaren bosgarren bilera egin zen. Biler horretan, 2004ko irailaren eta 2005eko martxoaren artean egindako kanpo-ebaluazioari buruzko txosten xehea aurkeztu zen.

Ebaluazio horrek esku-hartzearen ziklo bat amaitzen du, 2001 eta 2004 urteen arteko epealdia, hain zuzen. Planaren balorazio orokorra eta esku-hartzearen eremu ezberdinen informazio sistematizatu aurkezten dira, bai eta bertan esku hartzen duten sailen eginkizunena ere.

Familiaren Zuzendaritza Nagusiak plan horren jarraipenaren eta ebaluazioaren inguruan egiten duen lana azaroaren 16 arte jarraitzen du, Familiarentzako Laguntza-planaren Zuzendaritza Batzordea egin zen data. Horrez gain, Gobernuak horren berri izateko ebaluazio-agiria ekarri zen.

“Hezkuntza eta Familia, elkarri laguntzen dioten bi erakunde” programa, beste 9 programekin batera, Familiaren Plana osatzen dute.

Sailen arteko izaera dela eta, Nafarroako Gobernuaren Sail guztiak horren garapenean lankidetzan jardun dute: Gizarte-ongizatea, Kirola eta Gazteria, Familiaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, Gizarte-ongizatearen Zuzendaritza Nagusia, Gizarte-ongizatearen Nafarroako Institutua, Kirolaren eta Gazteriaren Nafarroako Institutua, Emakumearen Nafarroako Institutua, Toki-administrazioaren Zuzendaritza Nagusia, Lanaren Zuzendaritza Nagusia eta Enpleguaren Nafarroako Zerbitzua, Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusia, Osasunaren Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Tributu Ogasuna, Informazioaren Gizartearen Zuzendaritza Nagusia, Ekonomiako Zuzendaritza Nagusia, Kulturako Zuzendaritza Nagusia eta Lehendakartzaren Zuzendaritza Nagusia.

Hona hemen ebaluazioaren ondorioz nabarmendutako informazioa.

- Planaren diseinua egokia, osoa, berritzailea eta beste autonomia-erkidegoei begira eredu dela adierazi da.
- Nafarroako familiak babestu eta horiei laguntzera zuzendutako politika publikoen neurrien multzoa osorik eta modu koordinatuan planteatzen den lehenengo aldia da.

- Planaren izaera unibertsala da, familia guztiei zuzenduta dago eta.
- Indarreko lau urte horietako eginkizuna baloratu ondoren, ezin da ezeztatu asmo handikoa izan dela. Izan ere, programa guztietan familien politiken balioren edo printzipioen multzoa islatzen dira.
- Horrek eskuratutako erdiespenen azken emaitza baldintzapean jarri du, arrazionaltasuna eta barruko koherentzia hobetuz. Horrenbestez, jarduketan, neurrien eta helburuen arteko lotura, beharrezkoa den definizio esplizitua, eta, batez ere, helburuekin eta ekintzekin neurtu daitekeena, jarduketan lehenespena, eta Nafarroako Gobernuak kudeatutako bestelako programekin eta planekin osatzeko beharra aurkitu behar da.
- Horrez gain, plangintzaren ikusmen eta aintzatespen orokorra ahalbidetzen duen komunikazio-plan egokia eskuratzeko beharrezkoa den hobekuntza nabarmendu da.
- Edozein kasutan ere, eskuratutako erdiespenen ikuspuntutik, orokorrean itxarondako emaitza betepen-maila egokituaren barruan dago, garapen onargarriarekin. Halaber, Familiaren Zuzendaritza Nagusiak eta programa ezberdinekin lotutako sail guztiek euren konpromisoak ondo gainditu dituzte eta planaren neurri guztiei begira egindako esku-hartzeen ehunekoa oso esanguratsua izan dela aintzat hartu behar da.
- 2001 eta 2004. urteen arteko esku-hartzeen eremuen araberrako betepen maila %70,81ekoa izan da.
- Planaren oinarri diren hamar eremuetatik bederatzitan lortutako betepen maila %65 baino handiagoa izan da.
- Sailen araberrako konpromisoen betepen mailak batez beste %86,89ko balioa lortu du.
- Finantza-jarraipenari dagokionez, Familiarentzako Laguntza-planaren eremuen araberrako justifikatutako gastuaren batezbesteko ehunekoa %68koa izan da. Hala ere, planaren justifikazio ekonomikoan %49tik gorako aldaketak gerta daitezke, batik bat, 2001. urtean abian jartzen denean, %84ra iritsi arte 2004. urtean.

Helburuen betepen maila, aurreikusitako eremu ezberdinen araberrako, hurrengo taulan adierazten da:

Hezkuntza Sailak aurreikusitako helburuen %76,19 bete duela adierazi da.

Planaren mendeko baliabide ekonomikoen balantzea hurrengo taulan adierazten da:

71. taula

Familiarentzako Laguntza-planaren gastuaren bilakaera

Gaur egun, Familiaren Zuzendaritza Nagusia, erakunde ezberdinen lankidetzarekin, horien artean, Hezkuntza Saila, Familiarentzako Laguntza-planaren 2. fasea egiten ari da. Denbora gutxi barru Nafarroako Gobernuak onetsiko du.

Bestalde, familiaren hezkuntza emateko plana onetsi da telebistek eskainitako programen kontsumoari buruz. Programa "Familia, Telebista eta bestelako pantailak" deitzen da.

4.8. Toki-erakundeen programak

4.8.1. Iruñako udala

Gurasoen elkarrekin prestatzeko programa

Programa hau, 1996-97an hasi dena, Iruñako haur eta lehen hezkuntzako ikas-tetxeetako (publikoak eta itunpekoak) ikasleen gurasoen (APYMAS) elkarrekin zuzenduta dago, Herri Hezitzaileen Gutunaren zortzigarren puntua garatzeko helburu orokorrarekin, Udaltzatzen bilkurak 1995eko abenduaren 22an izenpetutakoa. "*Herriak gurasoek euren seme-alabak hazi eta herria erabiltzeko laguntza emateko prestakuntza jasotzeko ahaleginak egingo dituzte, betiere elkarrekin errespetuaren barruan (...)*".

Gure ustez, gurasoek euren seme-alaben prozesu psiko-ebolutiboa ezagutzeaz gain, eskola-prozesuetara hurbildu eta horietan parte hartzea ahalbidetzen du-

¹⁹⁶ FIRA taldeak (Aisia- eta Arte-ekimeneen Sustapena) hezkuntza- eta kultura-programak jorratzen ditu. Lan-eremuak irakurketa eta ingurumen-hezkuntza bultzatzea da.

ten ikastetxeen funtzionamendurako barruko dinamiken berri ere izan behar dute.

Udal-ekimen horrekin, gurasoei edukien programa-esparrua eskaintzen zaie, hitzaldi monografikoen eta tailerren edo mintegien bidez hori sakondu ahal izateko, gai ezberdinen gaineko profesionalak gidatuta. Programa-esparru hori elkarrekin bakoitzaren beharrezanetara egokitzen da. Izan ere, horietako bakoitzarekin elkarriketa-prozesua egin ondoren, horien beharrezanetara eta igurikimenei begira egokitzen jotako gaiak eta hizlariak proposatu ahal izango dira.

2005-2006 ikasturtean, 42 elkartetek eta federaziok parte hartu zuten, Iruñean dauden 46 elkartetik, eta guztira 3.319 pertsonak parte hartu zuten, 120 informazio- eta prestakuntza-saioen bitartez, guztira 213 ordurekin. Gai ezberdinen inguruko 46 hizlari aurkeztu ziren.

Hitzaldien eta mintegien gaia epigrafe orokor hauetan zatitu ditugu:

Herri hezitzailea: sormena, aisia, denbora librea	Saio I (%0,83)
Komunikazioa: gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa, familiako elkarriketa	34 saio (%28,33)
Bizitza osasuntsua: elikadura, drogaletasunak, sexu-hezkuntza	27 saio (%22,50)
Menu irekia: bigarren hezkuntzarako sarrera, haur-oldarkortasuna, familia gaur egun	33 saio (%27,50)
Familien parte-hartzea: Gurasoen eskola	8 saio (%6,67)
Zeharkakoak: Kirola, Kulturartekoa	9 saio (%7,50)
Familia: gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, eredu berriak	8 saio (%6,67)

2005-2006 ikasturtean, programa otsailean hasi zen, hori esleitzeko data konputatuta, 5 hilabeteko iraupenarekin.

Parte-hartzaileen kopurua txikiagoa izan zen. Izatez, zenbait APYMAS elkartetek ikasturtean egin beharreko lan osoa edo zati bat bere kabuz prestatu zuten, eta orduak (gutxiago ikasturte honetan) gainerako elkarten artean banatu ziren.

4.8.2. Nafarroako Udalerrien Mankomunitatearen Programak

Irakurketa familian bultzatzeko prestakuntza-jarduerak

2005-2006 ikasturtean, FIRA¹⁹⁶ taldeak Irakurleen 6 Klub gidatu ditu, "Gurasoek haurtzako eta gazteentzako bildumetan argitaratutako liburuak irakurtzen di-

tuzte” izenburupean, toki hauetan: Lizarrako Liburutegi Publikoa, Lizarrako udalaren irakurketa bultzatzeko udalaren hezkuntza-programaren babespean (10 parte-hartzaile); Burlatako haur Liburutegia, Burlatako udalaren irakurketa bultzatzeko udalaren hezkuntza-programaren babespean (14 parte-hartzaile); Villavako Lorenzo Goicoa Ikastetxe Publikoa, Apymasek antolatuta (8 parte-hartzaile); eta Iruñako Larrana Ikastetxea, Apymasek antolatuta (16 parte-hartzaile). Oro har, 35 orduko iraupena izango du.

Era berean, 5 hitzaldi eskaini dira -Ablitas, Azagra, Mendavia eta Iruña (2)- eta horietan 160 gurasok parte hartu dute, kalitatezko balioak –gaia, hizkuntza edo egitura- nabarmentzeko helburuarekin. Horiek haurrentzako eta gazteentzako bildumetan argitaratutako liburuetan aurki daitezke, beste irakurleei gomen-datzeko aukeraketa ezarri dadin.

Lizarrako Liburutegiko Irakurleen Klubeko parte-hartzaileek irakurketen iruzki-nak argitaratu dituzte *Estella lee – Lizarrak irakurtzen du* buletinaren 3. zenbakian. Hain zuzen ere, 2.200 ale Lizarrako ikastetxeen ikasleen familien artean doan banatu dira. Gainera, Lizarrako eta Iruñako ILZetan irakasleekin eraturako Irakurleen Klubekin lana batera egiteko saioan parte hartu zuten, maiatzaren 31n Lacarren egin zena, eta bertan Alfredo Gomez Cerdá idazle madrildarrearekin “*Noche de alacranes*” eleberriari buruz hitz egiteko aukera izan zuten.

4.9. Nafarroako Eskolako Kontseiluaren eta Ikastetxeko Eskolako Kontseiluen arteko jardunaldiak

VII. Jardunaldia, 2006ko maiatzaren 13an egindakoa, “Ikastetxeetako elkarbizitza” gaiarekin

209 pertsona bertaratu ziren, horien %72 ikastetxe publikoetakoa zen eta %28 ikastetxe pribatuetakoa.

Programa hurrengoa da:

9:45 h. Irekiera ofiziala eta ongietorria: Hezkuntza sailburu jaun txit argia.

9:55 h. Jardunaldiaren eta hitzaldiaren aurkezpena: Nafarroako Eskolako Kontseiluaren Presidente jaun txit argia.

10 h. 00´ Hitzaldia **Eduardo López Lopez** jaunaren eskutik, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsearen Hezkuntzaren Zientzietan katedraduna, “Agintaritza eta diziplina ikasgelan” gaiarekin.

11 h. 15´ Solasaldia.

11 h. 45´ Atsedendaldia. Kafea.

12 h. 15' "Ikastetxeetako elkarbizitza" gaiari buruzko mahai-ingurua, hauen parte-hartzearekin:

- **Manuel Campillo** jauna, "Benjamin de Tudela" BHIko zuzendaria eta ADI Nafarroako Institutuetako Zuzendarien Elkartearen ordezkaria.
- **Jesús Gallego Herranz** jauna, Puente la Reinako "Centro Puente" ikastetxeko hezitzailea eta zuzendaria.
- **Antonio Rodríguez Fraile** jauna, aita.
- **Rita Maeztu Rodrigo** andrea, Elkarbizitza-arloko aholkularia Hezkuntza Sailean.

13 h. 15' Solasaldia.

13 h. 45' Ekitaldiaren amaiera.

Jardunaldien edukiari buruzko aipamena

Jardunaldiak inaugurazio-ekitaldian Luis Campoy Zueco Hezkuntza sailburu txit argiak zuzendu zituen. Sailburuak jardunaldietan jorrotutako gaiaren garrantziari buruzko gogoetak egin zituen. Jardunaldiaren xedea "oso garrantzitsua zela" adierazi zuen, eskolan gertatzen diren egoera zailei edo liskarrei eman beharreko arreta, ikasleek sistema (eskolakoa) ukatzeko adierazten dituen jarrerak, alegia, garrantzitsuagoak dira matematikaren eta filosofiaren metodologiarekin erkatuta. Nekazaritza-jarduerarekin alderatuz gero, fruitu ona jasotzeko, bilduma-teknikak ez dira esanguratsuak, ereintza-teknikak baizik. Garrantzitsua "ikaskuntza finkatu daitekeen haztegia konfiguratzeko" da.

Gai horrek hezkuntza-erkidegoaren multzoaren esku-hartzea galdatzen dela aipatu zuen. Ezinbestekoa da jakitea gizartean aldaketa sakonak gertatzen ari direla eta tradiziozko balioak krisialdian daudela. Horregatik, komenigarria da aurrera eraman eta igorri nahi diren balioak zehaztea eta horiek eredu gisa ezarri nahiz koherentzia pertsonalak aplikatzea. Bere ustez, gazteen hezkuntzaren azken helburuarekin zerikusia duten arazo horiei aurre egin behar zaie eta konpromiso pertsonalak hartu behar dira. Izan ere, "gizartea" ez da aldatzen, ezpada banaka aldatzen gara". Sailburuak nabarmendutakoaren arabera, familiak prestakuntza-prozesuan parte hartu behar du, lehenengo gizarteratze-prozesuan "eragile nagusia" delako. Hasieran, seme-alaben bat-bateko jarrerari mugak ezarri behar zaizkio, "pertsonak bezala heldu eta hazteko". Azkenik, irakasleei adierazitakoaren ariara, lanbide-teknikak gaurkotuta egon behar dituzte eta hezkuntza-erkidegoko gainerako kideekin batera lan egitera gonbidatu zituen, batik bat, "Ikastetxea erakundea" delako.

Eskolako Kontseiluaren presidentek bertaratuei esan zien, jardunaldia ospatu baino zortzi egun lehenago, José Manuel Esteve Zaragaz jaunak presako osasunlaguntzak eskatu zituela. Beraz, hizlari nagusi gisa bete beharreko betebeharrata-

tik aske geratu zen. Bere ordez, Eduardo López López aurkeztu zen. Lehenengo ahalik azkarren osatzeko erreguak egin zituen eta bere eskuragarritasuna eskertu zion. Hain zuzen ere, jardunaldietan hizlari nagusi gisa jarduteko jarrera eta esfortzua bereziki aintzatetsi zituen.

Eduardo López López jaunak ikasgelako agintaritzarekin eta diziplinarekin lotuta dagoen arazoaren oinarrian ageri diren zalantza batzuk argitzeko ahaleginak egin zituen. Hezkuntza kontzeptuaren edukari buruzko azalpen zabala eta interesgarria egin zuen, bai eta beste kontzeptu batzuk ere, hala nola, agintaritzaren, ahalmena, obediencia, irakaslea, maisua, ikastea, esfortzua eta errespetua. Horren guztiaren ondorioz hurrengo baieztatu zuen: "Elkarbizitza-estrategia egokia ikasleak eta irakasleak elkarri errespetua eskatzea da". Hiru ondorio atera zituen. Lehenengoaren kasuan, hezkuntza helburu axiologikoa izan behar da, baina ez da komenigarria edozein zehaztea. Bigarrenaren arioren, aurreko puntuaren ondorioz irakaslearen eta ikaslearen artean lotura asimetrikoa, hierarkikoa eta ezberdintasunen arabera da. Hori dela medio, bata jakintzaren gaineko agintaritzaren du eta beste batek ikasteko eskubidea eta betebeharra. Hirugarrenari dagokionez, errespetua, agintaritzaren, ahala, beharrezkoa izanez gero, diziplina, exijentzia, esfortzua eta antzeko helburuak lortzeko betekizunak dira.

Bestalde, ikasgelako giroa garrantzitsua da, hots, giro lasaia eta irakaslearen irakaskuntza-zereginean eta ikaslearen ikaskuntza-zereginean buru-belarri jarduteko oinarritzakoa da, emaitza egokia izan dadin.

Eskola eraginkorren alde egin zuen, batez ere, ikasleen ikaskuntza maila altuak eta ekitatiboak eskuratzeko egokienak direlako, hau da, ezagutza, kontzeptuak eta ondorengo mailetan eta osteko urteetan arrakasta izateko funtsezko trebakuntzak. Eskola horietan, xedeak eta helburuak argi eta garbi definituta izateaz gain, arrakastarako igurikimen altuak eta zuzendariaren buruzagitzaren argia agerrarazten dira, ikasketen aurrerapena sarritan ebaluatzen da, ikasteko aukera eman eta ikasteko zeregina bultzatzen da, giro zurrak, antolatua, helburuetara zuzenduta dago eta gurasoen ulermena eta laguntza eskuragarri dute oinarritzako xedea erdiesteko. Familiak ikaskuntza-prozesuan duen erantzukizuna azpimarratzen da. Amaitzeko, bere iritziak, giro egoki hutsa ez da nahikoa ikaskuntza behar bezala garatzeko. Hala ere, giro egokirik gabe ez dago ikaskuntzarik.

Gaur egungo eskolan baldintza horiek betetzen ez dituzten arrazoiak aztertu zituen. Gizarte- eta kultura-testuinguruan aldaketak adierazi zituen; aldaketak familian, gazteen portaeran eta interesean.

¹⁹⁷ "Nafarroako Eskolako Kontseiluaren eta Ikastetxeko Eskolako Kontseiluen arteko VII. Jardunaldia. Ikastetxeetako elkarbizitza".

5

Giza Baliabideak

5.1. Irakaskuntza-eginkizun publikoa

5.1.1. Ikastetxe publikoetako irakasle-plantillaren bilakaera

Aurretik aipatutako txostenetan, Giza Baliabideen Zerbitzutik jasotako irakasle-en datuak ageri dira, irakasleen eta irakaskuntza ematen duten pertsona ez-fisiko-en lanaldiak zenbatzen dituen. Txosten horretan, Nafarroako Hezkuntza Estatistikan argitaratutako datuen bilakaera jaso da, irizpide hauek kontuan hartuta:

- Datuek ikastetxearen 2005eko urriaren 15eko egoera zehazten dute.
- Pertsona fisikoak zenbatzen dira.
- “Ikastetxean eskaintzen diren irakaskuntza ofizialetan eskolako ordutegiaren barruan zuzeneko irakaskuntza ematen duten langileak” zenbatzen dira.
- Irakasle ibiltariak atxikita dauden ikastetxean soilik zenbatzen dira.
- Irakaskuntza mailen arabera irakasleen taulan irakasle ezberdinak eta beste inon agertzen ez direnak atal batean zenbatzen dira.

73. taula

Ikastetxe publikoetako irakasleen bilakaera, irakaskuntza mailak kontuan izanda¹⁹⁸, 1999/2000tik 2004/2005era

Irakaskuntza maila	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
Haur Hezkuntza bakarrik	561	653	670	680	686
Lehen Hezkuntza bakarrik	1.412	1.564	1.647	1.701	1.796
Haur eta Lehen Hezkuntza	419	524	513	539	576
Derrigorrezko Hezkuntza bakarrik	871	970	960	975	893
Lehen Hezkuntza eta DBH	76	46	61	43	55
Batxilergoa bakarrik	180	188	179	111	177
DBH eta Batxilergoa		-	950	914	877
Lanbide Heziketa bakarrik	506	626	665	679	638
DBH/Batxilergoa/LH	1.010	909	103	65	85
Batxilergoa /LH	124	105	-	-	-
Hezkuntza Berezi Zehatza	34	41	58	59	61
Bestelako aukerak (aurrekoen besteko mailen konbinazioak)	34	32	30	23	13
Guztira	5.227	5.658	5.836	5.789	5.857
Araubide Bereziko Irakaskuntzak	231	237	264	313	325
Helduen Irakaskuntza	-	-	87	98	91
Guztira	5.458	5.895	6.187	6.200	6.273

Iturria: Nafarroako Hezkuntza Estatistika, 1999-2000tik 2005-2006ra.

¹⁹⁸ Ez dira jaso Arte Eskoletako irakasleak (hori Araubide Bereziko Irakaskuntzen atalean jaso da), ezta Pertsona Helduentzako Félix Urabayen Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutua ere (hori Helduen Hezkuntzaren atalean jaso da)

74. taula

Araubide bereziko irakasleak, ikastetxearen arabera, 2005-2006 ikasturtea

Centro en el que imparte:		C. Públicos
Arte Eskolak	Batxilergoa bakarrik irakasten da	19
	“ Lanbide Heziketa bakarrik	2
	“ Batxilergoa eta Lanbide Heziketa	1
	“ Arte Plastikoak eta Diseinua bakarrik	36
	“ Batxilergoa eta Arte Plastikoak eta Diseinua	17
Musika Kontserbatorioak		155
Dantza-eskolak		14
Hizkuntza Eskola Ofizialak		81
Guztira		325
Helduen Hezkuntzaren Ikastetxeetako irakasleak		91
Musika-eskolak		541

Iturriak: Nafarroako Hezkuntza Estatistika, 2005-2006 ikasturtea.

5.1.2. Eginkizun publikorako sarrera eta espezialitate berrien eskuraketa, 2005/2006 ikasturtea

Maisuen kidegoan sartzeko lehiaketa-oposiziorako deialdiak. Praktiketarako izendapena

Ez da egin deialdirik

Maisuen Kidegoen karrerako funtzionarioek Kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura

Ez da egin deialdirik

Bigarren Irakaskuntzako Irakasleen Kidegorako sarrera

2005-2006 ikasturtean ez da egin deialdirik.

5.1.3. Irakaskuntza-langileen administrazio-kontratazioak (aldi baterako)

75. taula

Ikastetxeetako irakasleen kontratazioaren bilakaera, 1999-00tik 2005-06ra. Kidegoak

Kidegoa	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
Bigarren Hezkuntzako irakaslea	484	356	408	378	416
LHko Irakasle Teknikaria	134	104	104	78	75
HEOko irakaslea	16	13	13	12	13
Musika eta Arte Esztako irakaslea	37	50	55	62	94
Arte Plastiko eta Diseinuko irakaslea	24	22	19	18	20
Arte Plastiko eta Diseinu Tailerreko Maisuak	5	8	8	8	8
Eskolako orientatzailea	30	—	—	—	-
Bigarren Hezkuntza guztira	733	553	607	556	626
Maisua	385	665	583	794	553
DBHko maisua	64	98	94	124	127
Maisuak guztira	449	763	677	918	680
Guztira	1.182	1.316	1.284 ¹⁹⁹	1.474	1.308

Iturria: Giza Baliabideen Zerbitzua. Lan-arloko langileen negoziatua eta Bigarren Hezkuntzako negoziatua.

¹⁹⁹ Horietatik 152 irakaslek lanaldi partzialaren kontratua dute.

5.1.4 Erlijioako irakasleen kontratazioa

76. taula

Erlijioako irakasleen kontratazioaren bilakaera, 2000/01etik 2005/06ra

	2000/2001	2002/2003	2003/2004 ikasturtea		2004/2005 ikasturtea		2005/2006 ikasturtea	
	ikasturtea	ikasturtea	Lan. osoa ²⁰⁰	Lan. partzi.	Lan. osoa	Lan. partzi.	Lan. osoa	Lan. partzi.
Bigarren Irakaskuntza	55	59	47	10	45	17	47	13
Lehen Irakaskuntza	94	121	89	35	86	49	92	42

Fuente: Servicio de Recursos Humanos del Departamento de Educación.

5.1.5. Lekualdaketen lehiaketak

Banaketa hori 1329/1988³⁴³ Foru Aginduaren bidez egin da.

ALTE. Hizkuntzen Aztertzaileen Europako Elkarte

ALTE Europa Kontseiluko Nazioarteko Gobernuz kanpoko Erakundea da (GKE). Erakunde hori hizkuntza-azterketak kudeatzen dituzten erakundeek osatzen dute. Hain zuzen ere, 29 kide daude eta 24 hizkuntzetako azterketak kudeatzen dituzte. Hizkuntza-eskumena ziurtatzen duten erakunderik garrantzitsu gehienak ALTEn bildu dira.

2006ko martxoan, Nafarroako Gobernuak ALTEri erakundearen kide izateko eskaera egin zion, hasieran, Behatzaile gisa. ALTEko batzordeak Euskararen Zerbitzuak ekarritako agiriak aztertu zituen eta estatus hori emateko erabakia hartu zuen. Jarraian, Nafarroako Gobernuko bi ordezkari gonbidatu zituen aurkezpen ofiziala egiteko apirilean ospatutako ALTEren bileran.

Bilera horretan, Nafarroako Gobernuak EGA titulu eskuratzeko frogak baieztatu eta baliozkotzeko nahia agertu zuen, bai eta etorkizunean bazkide kategoria lortzekoa ere. Gisa berean, erakundearen barruko lanaren dinamikan parte hartu eta eskuratu nahi dugun maila ziurtatzeko beharrezkoak diren alderdiak kudeatu nahiz hobetzeko frogak baliozkotzeko ezarri prozedura egiteko nahia erakutsi zuen.

³⁴³ Abenduaren 23ko 1329/1998 Foru Agindua, OHOk irakasleen Prestakuntzarako Unibertsitate Eskolan euskaraz egindako ikasketetarako euskararen ezagutza (EGA) tituluaren baliokidetasuna aintzatetsi eta horren luzapena arautu duena (NAO, 13. zk. 1989ko urtarilekoa).

9

Hezkuntza-aurrekontuak

Epigrafe honetan Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren bilakaera ekonomia-aren ikuspuntutik azaldu nahi da, eta abiapuntutzat 2000. urtean exekutututako aurrekontua (100 oinarria) hartuko dugu. Datuen seriean 1990 eta 2000. urte arteko Nafarroako Hezkuntza-sistema jaso da.

“Alderatze-datu orokorrak” izenburupeko 8.1 atalean Espainia eta nazioarteko hezkuntza-arloan egin den gastua jasotzen da, bereziki, OCDEn. Bi kasuetan, informazioaz baliatuta nazioko hezkuntza-gastuaren eta beste herrialdeetan egindakoaren artekoa alderatu ahal izango da, bai eta Nafarroan nahiz Espainiako autonomia-erkidegoetan edo Espainiaren osotasunean egindakoaren artekoa ere. Datuen iturriak taula bakoitzaren oinean adierazi dira.

“Hezkuntza Saila. Gastuen aurrekontua” izenburupeko 8.2 atalean Nafarroa bakarrik aztertu da. Informazio-iturria, taula bakoitzaren oinean aipatutako salbuespenak izan ezik, Nafarroako Parlamentuak onetsitako kontu orokorrak izan dira. Horrenbestez, datuak exekutututako aurrekontuei buruzkoak dira, hasierako aurrekontuaren 2006ko aurrekontuari dagozkion zifrak izan ezik. Epigrafean ez da jaso tokiko edo familiako jardueren hezkuntza-gastua, gai garrantzitsua hezkuntza-gastua BPGrekin lotu nahi bada, bederen.

Epigrafe honetan azaldutako oharrak euro iraunkorretan adierazitako datuen taulatik atera dira. Horiekin batera, ez dira egin behar goitik beherako alderatzeak, hau da, irakaskuntza-publikoko jardueraren gain eragina izan duten gastuen eta itunpeko irakaskuntzaren artekoak. Bi sareok desberdinak dira, eta, bestelako inguruabarren artean, plangintza-arrazoi ezberdinak ageri dira eta homogeneousak ez diren lurraldeen gain jarduten dute. Beraz, modu horizontalean egindako alderatzeen bidez soilik (hezkuntza-sare bereko parametro baliokideen artean) adierazi ahal izango da sistemaren bilakaera, eta, egokitze jotzen bada, sistemaren kalitate objektiboari buruzko egiaztatze-arrazoiak nahiz ondoreak azaltzeko oharrak hartu ahal izango dira.

Bestalde, 8.3 atalean, aurrekontua osatzen duen kapitulu bakoitzaren (I, II, IV, VI eta VII) zenbait kontzeptu esanguratsuren aurrekontu-bilakaera jaso da.

8.2 eta 8.3 ataletan 1991 (Nafarroaren hezkuntza-eskumen osoen egikaritzaren lehenengo urtea), 2000 eta 2005. urteetan exekutututako aurrekontuaren datuak zenbait taulekin batera deskribatu dira. Hori guztia kontuan hartuta, 1990-2000ko Nafarroako Hezkuntza-sisteman jasotako 1990-2000. urte bitartean berrikusatikoa lotu nahi da.

9.1. Alderatze-datu orokorrak

223. taula

Nafarroako Barne Produktu Gordinari buruzko informazio orokorra, 2000/2005

Urtea	Nafarroako BPG (milioi euro)	NAFARROAko BPG per capita (eurotan)	ESPAINIAko BPG per capita (eurotan)	Naf./Es. x 100
2000	10.345,4	19.264	15.291	126,0
2001	11.049,5	20.457	16.240	126,0
2002	11.832,0	21.790	17.229	126,5
2003	12.555,3	23.004	18.250	126,1
2004	13.544,3	24.690	19.456	126,9
2005	15.472,2	26.489	20.838	127,1

Iturria: Espainiako Eskualde Kontabilitatea, 1995eko oinarria. EIN

224. taula

Hezkuntza-arloko gastuaren bilakaera eta Espainiako BPGrekin duen lotura

Urteak	Gastua guztira ³⁴⁴		Gastu publikoa ³⁴⁵		Familien gastuak ³⁴⁶		BPG ³⁴⁷ Milioi euro
	Milioi euro	% BPG ³⁴⁸	Milioi euro	% BPG	Milioi euro	% BPG	
1992	21.586,5	-	17.709,3	-	4.209,9	-	-
1993	23.105,4	-	18.810,3	-	4.734,1	-	-
1994	24.070,9	-	19.292,6	-	5.208,4	-	406,011
1995	25.836,4	5,78	20.608,6	4,61	5.697,0	1,27	437,787
1996	27.388,4	5,78	21.924,6	4,63	6.037,2	1,27	464,251
1997	28.621,6	5,68	22.785,3	4,52	6.438,0	1,25	494,140
1998	30.282,8	5,61	23.998,6	4,45	6.792,0	1,26	527,957
1999	32.339,8	5,58	25.688,4	4,43	7.128,0	1,23	565,419
2000	34.285,8	5,44	27.407,0	4,35	7.404,3	1,17	609,734
2001	36.344,0	5,35	29.208,2	4,30	7.693,3	1,13	653,927
2002	38.771,4	5,32	31.440,9	4,31	7.958,1	1,09	698,589
2003	41.384,2	5,30	33.938,1	4,35	8.202,3	1,05	744,754
2004 ³⁴⁹	43.628,7	5,23	36.031,7	4,30	8.558,5	1,02	798,672
2005	46.628,7	5,16	38.566,2	4,26	8.926,5	0,99	-

Iturria: Estatuako Eskola Kontseilua. Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko informazioa, 2004/2005 ikasturtea.

Oharra: Nazioko Kontabilitatearen oinarria aldatu ostean, BPGren hazkunde nabarmena gertatu da 1995eko oinarriarekin erkatuta. Ondorenez, hezkuntza-arloko gastuen ehunekoak jaitsi egin dira BPG berriari dagokionez. Zio hori dela bide, eta alderatze-ondoretarako, 2000. urteko oinarrien gain kalkulaturako BPGri buruzko gastuaren zerranda azaldu dugu.

³⁴⁴ Gastu oso bateratua (sektore publiko eta familietako transferentziak ezabatuta)

³⁴⁵ Herri Administrazioen hezkuntza-gastua (Likidaturako aurrekontuak), unibertsitateak barne. Iturria: Hezkuntza-arloko Gastu Publikoaren Estatistika.

³⁴⁶ EIN iturria, 1998. urte arte. 1999. urtetik balioetsi eta berrikusitako zifrak, Nazioko Kontabilitatearen irakaskuntza-zerbitzuetako familien azken kontsumoko gastuaren bilakaeraren arabera aurretik argitaratutakoiei begira.

³⁴⁷ EIN iturria.

³⁴⁸ 2000. urteko BPG oinarria. EIN iturria.

³⁴⁹ "Gastu Publikoa"ren zutabearen, 2004 eta 2005. urteetan, zifrak hasierako aurrekontuen oinarrien arabera balioetsi dira.

Hezkuntza-arloko gastu publikoa modu nabarian gehitu da azken hamahiru urteetan, %37,72ko hazkundearekin 1992. urtetik. Horrenbestez, horrek urtean %2,90eko hazkundera dakar; ikasleen %10,7ko jaitsiera gertatu arren. Hazkunde hori ez da izan uniformearekin epealdian zehar; eta urtean batez beste %1 baino gutxiago gehitu da 1996. urte arte, eta %3 baino gehiago gehitu da aipatu urtetik aurrera (balio errealetan zenbatuta).

Hezkuntza-arloko gastu publikoaren prezio finkekoen balioak inflazioaren urtearteko batez besteko tasa erabilita eskuratu dira, 273 taulan adierazi diren bezala.

225. taula

Hezkuntza-gastu publikoa eta pribatua Europar Batasuneko ikastetxeetan, BPGren ehunekoetan (%) adierazita, funtsen jatorria aintzat hartuta. 2002. urtea

Eremua ³⁵⁰	Gastu publikoa ³⁵¹ % BPG	Gastu pribatua ³⁵² % BPG	Guztira
Alemania	4,4	0,9	5,3
Austria	5,4	0,3	5,7
Belgika	6,1	0,3	6,4
Danimarka	6,8	0,3	7,1
Espainia	4,3	0,5	4,9
Finlandia	5,9	0,1	6,0
Frantzia	5,7	0,4	6,1
Grezia	3,9	0,2	4,1
Holanda	4,6	0,5	5,1
Irlanda	4,1	0,3	4,4
Italia	4,6	0,3	4,9
Luxenburgo	—	—	—
Portugal	5,7	0,1	5,8
Erresuma Batua	5,0	0,9	5,9
Suedia	6,7	0,2	6,9
OCDE guztira	4,9	1,2	6,1

Iurria: Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena, 2004-2005 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak eginda.

Aurreko taulan adierazitakoaren arioren, ikastetxeetako gastu publikoa Espainian BPGren %4,3koa izan da, OCDEko gastu osoaren azpitik kokatuta (%4,9). Gure herriko gastu pribatua BPGren %0,5koa izan da, eta erakunde horretan %1,2koa izan da. Halaber, aurreko ekitaldian indize bera lortu zen gastu publikoari dagokionez, eta gastu pribatua 0,1 jaitsi da.

³⁵⁰ Danimarka, Grezia eta Portugal, familiek jasotako diru-laguntza publikoak ez dira jaso gastu publikoaren barruan, gastu pribatuaren atalean baizik.

³⁵¹ Ikastetxeei zuzendutako familiek jasotako diru-laguntzak zehaztu dira. Gainera, nazioarteko jatorria duten zuzeneko gastuak ere jaso dira, betiere ikastetxeei zuzenduta.

³⁵² Ikastetxeei zuzendutako diru-laguntza publikoak jaso dira, ikastetxeei emandako diru-laguntza publikoak kenduta.

226. taula

Ikastetxeetako gastu publiko eta pribatua, BPGren ehunekoetan (%) adierazita, irakaskuntza maila aintzat hartuta. 2002. urtea³⁵³

Eremua	Haur Hezkuntza ³⁵⁴	Lehen eta Bigarren Hezkuntza	Goi mailako irakaskuntza	Guztira
Alemania	0,5	3,6	1,1	5,3
Austria	0,5	3,8	1,1	5,7
Belgika	0,6	4,3	1,4	6,4
Danimarka	0,8	4,2	1,9	7,1
Espainia	0,5	3,2	1,2	4,9
Finlandia	0,4	3,9	1,8	6,0
Frantzia	0,7	4,2	1,1	6,1
Grezia	x	2,7	1,2	4,1
Holanda	0,4	3,4	1,3	5,1
Irlanda	—	3,1	1,3	4,4
Italia	0,4	3,5	0,9	4,9
Luxenburgo	—	3,9	—	—
Portugal	0,3	4,2	1,0	5,8
Erresuma Batua	0,5	4,3	1,1	5,9
Suedia	0,5	4,6	1,8	6,9
OCDE guztira	0,4	3,8	1,7	6,1

Iturria: Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena, 2004-2005 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak eginda.

Oharra: x ikurrak datua beste zutabeetan jaso dela adierazten du.

Haur Hezkuntzako Espainiako gastua (%0,5) ez da aldatu aurreko urtearekin alde-ratuta, eta OCDEko herri guztien maila berean ageri da. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gastuaren ehunekoa (%3,2) OCDEko gastu osoaren azpitik kokatzen da (%3,8). Unibertsitateko hezkuntza-arloko gastuaren ehunekoa (%1,2) erakunde horretan dagoen ehunekoaren (%1,7) azpitik kokatzen da. Azkenik, hezkuntza maila guztien ehuneko osoa Espainian %4,9koa izan da, iaizko ikasturtean lortutako bera, baina OCDEn lortutakoa %6,1koa izan da.

227. taula

Hezkuntza maila guztieko ikastetxeei zuzendutako funts publikoen eta pribatuen proportzioa. 2002. urtea

Eremua	Finantzaketa publikoa	Finantzaketa pribatua ³⁵⁵
Alemania	83,1	16,7
Austria	93,3	6,7
Belgika	94,2	5,8
Danimarka	96,1	3,9
Espainia	88,4	11,6

³⁵³ Ikastetxeetako zuzeneko eta zeharkako gastuak jaso dira. Hala ere, ez dira jaso ikastetxeei zuzenean bideratutako sektore pribatuko eta familiako gastuak, ezta ikastetxeetako gurasoei zuzendutakoak besteko helburua duten ikasleek jasotako finantza-arloko diru-laguntzak ere. Goi mailako irakaskuntzako finantzetan ikastetxeetan izaera horrekin garatutako I+G gastuak jaso dira.

³⁵⁴ 3 urtetik gorako haurrentzako Lehen Hezkuntza baino lehenagoko etapa jaso da.

³⁵⁵ Jatorri publikoa duten diru-laguntzak jaso dira, ikastetxeei ordainketak egin ahal izateko.

Eremua	Finantzaketa publikoa	Finantzaketa pribatua
Finlandia	97,8	2,2
Frantzia	92,1	7,9
Grezia	95,4	4,6
Holanda	90,3	9,7
Irlanda	93,4	6,6
Italia	92,6	7,4
Luxenburgo	—	—
Portugal	98,4	1,6
Erresuma Batua	84,4	15,6
Suedia	96,7	3,3
Kanada	—	—
Mexiko	81,0	19,0
AEB	73,8	26,2
Herrialdeen batezbestekoa	88,4	11,6

Iturria: Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena, 2004-2005 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak eginda.

Aipatu ikasturtean, Espainian funts publikoen bidez ikastetxeei %88,4ko finantzaketa eskaini zitzairen, eta ikastetxe horiek jasotako funts pribatuak %11,6 gehitu ziren. OCDEko herrialdeen batezbestekoa Espainiako proportzio berdinetan azaltzen da. Finantzaketa %0,6 gehitu da aurreko urteari begira.

228. taula

Ikasleen urteko gastua ikastetxe publiko eta pribatuetan, 2002. urtea

Eremua	Lehen, bigarren, bigarren osteko eta unibertsitateko ez den hezkuntza ³⁵⁶	Goi mailako hezkuntza ³⁵⁷
Alemania	21.458	6.617
Austria	28.373	7.781
Belgika	13.937	7.781
Danimarka	15.730	11.604
Espainia	10.602	6.030
Finlandia	12.208	7.332
Frantzia	20.402	7.302
Grezia*	10.819	4.372
Holanda	18.253	7.977
Irlanda	15.883	7.721
Italia*	14.799	—
Luxenburgo	25.806	X
Portugal	11.861	4.693
Erresuma Batua	11.655	8.966
Suedia	18.495	8.520
OCDEko herrien batezbestekoa	12.265	11.945

Iturria: Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena, 2004-2005 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak eginda.

* Erakunde publikoak bakarrik jaso dira.

³⁵⁶ Hezkuntza-gastuak eta gastu osagarriak jaso dira (garraio-zerbitzuak, janaria eta bizilekua).

³⁵⁷ Hezkuntza-gastuak eta gastu osagarriak jaso dira (garraio-zerbitzuak, janaria eta bizilekua), bai eta ikerketa- eta garapen-arloan egindako gastuak ere.

Aurreko taulan jasotako datuak alderatuz gero, Espainian ikasle bakoitzak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan egindako gastua 3.845 dolarrekoa izan da, OCDEko herrien zenbateko osoaren azpitik kokatuta (4.922 \$).

Lehen Hezkuntzan egindako gastuaren kasuan, Espainian aipatu urtean 4.592 dolar eman ziren, eta OCDEko herrien gastu osoa 5.273 dolarrekoa izan zen.

Bigarren Hezkuntzan, Espainiak 6.010 dolar eman zituen ikasle bakoitzeko, eta aztertutako erakundeko herrietan zenbateko hori 6.992 dolarreko izan zen.

Goi mailako hezkuntzaren kasuan, I+G gastuak salbuetsita, Espainian ikasle bakoitzeko gastua 6.030 dolarrekoa izan da, erakundeko herrietan egindako 11.945 dolarreko gastutik urrun kokatuta.

229. taula

Nafarroa Espainian eta OCDEn OCDEko hezkuntza-adierazleak

Kontzeptua ³⁵⁸	OCDE					Espainia				Nafarroa		
Gastua/ikaslea ³⁵⁹	7.471					6.346				ed		
Ikaslearen gastua/BPG biz. ³⁶⁰	20	26	18	44	26	19	26	-	37	26	ed	
Hezkuntza-gastua/BPG ³⁶¹	3,9					1,4				ed		
Hezkuntza-gastua/BPG ³⁶²	6,3					4,7				ed		
Gastu publikoaren eta pribatuaren % ³⁶³	93,1					7,0				93,4	6,6	ed

³⁵⁸ Gastu horretan mota guztietako erakundeen funts publikoak eta pribatuak jaso dira, betiere helburua irakaskuntza bada. Dolarretan adierazi da PPari begira (erosteko ahalmenaren parekotasuna. Moneta ezberdinen erosteko ahalmena parekatzen duen indizea). Hala ere, ez dira bamean hartzen eskolako liburuak eta materiala, jantokia eta garraioa. Bestalde, I+G gastu pribatua eta publikoa jaso da.

³⁵⁹ Ikastetxeen 2003ko ikasle bakoitzaren urteko gastua jasotzen da. Unibertsitate maila ere jasotzen da.

³⁶⁰ Ikastetxeen 2003ko ikasle bakoitzaren urteko gastua, biztanle bakoitzaren BPGren proportzioarekin. Lehenengo zenbakia lehenengo hezkuntzari buruzkoa da, bigarrena bigarren hezkuntzari buruzkoa, hirugarrena unibertsitatekoa ez den bigarren hezkuntzaren ostekoari buruzkoa eta laugarrena A motako unibertsitate mailakoari buruzkoa, eta bosgarrena lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzara igarotzeko multzoari buruzkoa. Lotura horrek herriaren aberastasuna kontuan hartu du.

³⁶¹ Ikastetxeen 2003ko urteko gastua, BPGren proportzioarekin. Ikasleei eta familiei diru-laguntzak finantzatzeko beharrezkoa den gastua jasotzen da eskolako irakaskuntzei dagokienez, baldin eta ikastetxeetako bitartekariak hala proposatu badute. Gainera, unibertsitate-irakaskuntzen kasuan ikerketagastuak ere bamean hartzen dira. Hala ere, ez dira sartzen ikastetxearekin zerikusirik ez duten hezkuntza-gastuak, horiek irakaskuntzarekin lotuta badaude ere, halakoek diru-laguntza publikoa jaso arren. Lehenengo zenbakian lehen hezkuntzari buruz jarduten da, eta bigarrenean, aldiz, unibertsitateko irakaskuntzari buruz.

³⁶² Irakaskuntza maila guztietako gastu osoa biltzen da.

³⁶³ Gastu publikoaren eta pribatuaren banaketa eskolako irakaskuntzan. Lehenengo zenbakiak gastu publikoa adierazten du, eta bigarrenak gastu pribatua. Gastu publikoaren barnean diru-laguntzak jaso dituen gastu pribatua hartzen da, eta OCDEren kasuan %0,4koa izan da. Ikasleen diru-laguntzak zati batean jaso badituzte, orduan ikastetxeetako gastuen artean jasoko dira. Diru-laguntzak jaso dituzten ikasleen gastuak ez daude kenduta. Familien gastuaren barruan jaso dira.

Kontzeptua	OCDE			Espainia			Nafarroa		
Ikasleak /Lehen hezkuntzako ikasgela ³⁶⁴	21,5	19,3	20,7	19,3	24,6	22,0	16,8	23,5	-
Ikasleak/Bigarren Hezkuntzako ikasgela ³⁶⁵	23,8	23	20,9	24,0	27,4	22,7	20,9	25,5	-
Irakasleen soldata ³⁶⁶	25.727	42.347		31.381	45.334		33.508	44.500	
Irakasleen soldata	28.892	48.197		35.792	51.225		42.166	55.133	
Urteko ordutak/irakaslea ³⁶⁷	805	663		880	564		-	-	
Irakaslearen urteko lanaldia	1.698	1.690		1.425	1.425		-	-	

Iturria: Regards sur l'éducation. Les indicateurs de l'OCDE. 2006

230. taula

Hezkuntzako gastu publikoa eskolako irakaskuntzei begira, autonomia-erkidegoen arabera

	2000. urtea (mila eurotan)	2002. urtea (mila eurotan)	2003. urtea (mila eurotan)	2004. urtea (mila eurotan)	2005. urtea (mila eurotan)	2005eko ikasle-kopurua Araubide orokorra	2005ko gastua/ikaslea (eurotan)
Hezkuntza Saila	2.761.745	658.651	613.995	593.407	580.581	-	-
Andaluzia	3.014.795	3.419.116	3.633.058	3.928.308	4.306.267	1.403.200	3.069
Aragoi	455.781	557.244	583.781	621.989	665.696	183.804	3.622
Asturias	6.779	484.645	501.487	532.466	554.495	129.032	4.297
Balear Uharteak	325.870	358.186	378.612	406.756	551.616	147.909	3.729
Kanariak	1.000.388	1.033.345	1.087.540	1.144.538	1.220.139	327.035	3.731
Kantabria	223.795	260.395	282.056	304.877	328.866	77.414	4.248
Gaztela eta Leon	1.123.911	1.290.503	1.326.022	1.365.566	1.467.283	352.544	4.162
Gaztela-Mantxa	15.055	921.352	992.682	1.054.779	1.146.814	316.538	3.623
Katalunia	2.354.215	2.493.668	2.705.133	2.903.749	3.759.313	1.061.718	3.541
Valentziako Erkidegoa	1.645.420	1.761.854	1.936.731	2.056.483	2.412.467	712.690	3.385
Extremadura	9.278	555.601	614.651	642.563	690.490	188.034	3.672
Galizia	1.212.711	1.278.792	1.345.105	1.397.076	1.547.990	381.226	4.061
Madril	1.975.471	2.112.484	2.306.423	2.544.922	2.927.264	936.958	3.124
Murtzia	543.315	576.342	614.269	656.987	769.351	241.547	3.185
Nafarroa	302.982	334.578	338.210	352.844	407.894	90.213	4.521
Errioxa ³⁶⁸	1.215.913	1.303.545	1.412.439	1.496.284	1.643.592	310.578	5.292
Errioxa	112.463	122.629	134.354	140.914	158.550	42.354	3.743
Guztira	18.299.888	19.501.648	20.390.752	21.591.055	25.138.668	6.933.255	3.626

Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena, 2004-2005 ikasturtea, Estatuko Eskola Kontseiluak eginda.

³⁶⁴ Lehen Hezkuntzako ikasgeletako ikasle-kopurua zehaztu da (2003/2004 ikasturtea). Lehenengo zenbakiak ikastetxe publikoak adierazi ditu, bigarrenen diru-laguntzak jaso dituzten ikastetxe pribatuak eta hirugarrenean diru-laguntzarik gabeko ikastetxe pribatuak.

³⁶⁵ Bigarren Hezkuntzako ikasgeletako ikasle-kopurua zehaztu da (2003/2004 ikasturtea). Lehenengo zenbakiak ikastetxe publikoak adierazten dira, bigarrenen diru-laguntzak jaso dituzten ikastetxe pribatuak eta hirugarrenean diru-laguntzarik gabeko ikastetxe pribatuak. Parentesi barnean ez dauden Nafarroakoak DBHri buruzko datuak dira, eta parentesi artean Batxilergoko datuak jaso dira.

³⁶⁶ 2004ko urtean lehen edo bigarren hezkuntzako irakasle baten (katedraduna) (beheko lerroa) soldata adierazi da. Horrek bere lanbidearen hasieran lanaldi osoa (1. laukia) du eta lanbidearen amaieran (2. laukian) ere lanaldi osoa bete du. Bi kasuetan irakasleak gutxieneko titulazioa du irakaskuntza irakasteko. Dolarretan adierazi da PPAri begira. Nafarroaren kasuan, irakaslearen soldata karreraren amaieran 8 bosturtekoekin eta 5 mailekin zenbatu da. Espainiako PPAren balioa 0,76koa da 2004. urtean. Ez dira jaso Gizarte Segurantzako gastuak.

³⁶⁷ Irakaskuntza publikoko irakasleen urteko ikasketa-orduen kopurua. Lehenengo datuak lehenengo irakaskuntza adierazten du, eta bigarrenak bigarren hezkuntzako bigarren zikloa.

³⁶⁸ Luzatutako aurrekontuak.

Nafarroa, 2005-2006 ikasturtean, Euskal Herriarekin eta Asturiasekin batera, gastu/ikasle atalean agertzen diren autonomia-erkidegoen artean nabarmendu da. Kasu horretan, Espainian jasotako batez besteko gastua baino %24,68 handiagoa da, bai eta gastu gutxien duen autonomia-erkidegoan sortutako gastua baino %47,31 handiagoa ere.

9.2. Hezkuntza-gastuak Nafarroan

9.2.1. Hezkuntza Saileko gastuen aurrekontua

Hezkuntza Saileko aurrekontuaren barruan Nafarroako hezkuntza-sistemaren zuzendaritzaren gain eragina duten gastuez gain, sare publikoaren kudeaketa, sare publikoari emandako laguntza, unibertsitate-hezkuntzari begira xedatutakoa, dela publikoa dela pribatua eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren³⁶⁹ gastuak jasotzen dira. Zuzendaritza Nagusi horretan, 2004ko aurrekontutik, urte bereko aurrekontuari buruzko legearen 9. xedapen gehigarrian xedatutakoa bete ahal izateko, aurrekontu-funtsak gordailutu dira, batik bat, baimendu gabe eta Nafarroako zona ez-euskaldunean jarduerak garatzen dituzten ikastolen gastuei aurre egiteko.

Bestalde, Gizarte Ongizate Sailak 2000. urteko eta ondorengoetarako aurrekontu-gordailuak xedatu ditu, 2006ko aurrekontua eratu arte, bereziki, erakunde ezberdinekin hitzartutako 0-3 urte bitarteko ikastetxeei zuzenduta. Halaber, 2006ko aurrekontuan gordailu horiek Hezkuntza Sailaren aurrekontuan ageri dira.

Horrenbestez, txosten honetan inguruabar batzuk nabarmendu dira, Hezkuntza Sailaren edo eskola-sistemaren eragina jasan duten bestelako Sailen (LOCE baino lehenago unibertsitatekoak ez direnak) artekoak, hain zuzen, araubide orokorreko irakaskuntzak barnean hartuz, unibertsitatekoak ez direnak salbuetsita, bai eta araubide berezikoak ere.

2000. urteko Nafarroako aurrekontu orokorra ondoz ondoko urteetan hezkuntza-arloko aurrekontuen hazkunde absolutua eta erlatiboa egiaztatzeko erreferentziatzat jo da.

Kopuru ekonomikoak mila edo milioi euro arruntetan edo finkoetan adierazi dira, kasua kontuan izanda. Zifren azken digitua goranzko joerarekin biribildu da aurreko zifra bost baino handiagoa izan bada. Euro arruntak finko bihurtzeko, Nafarro-

³⁶⁹ 2003. urte arte, Sailak Kulturaren Zuzendaritza Nagusia barnean hartu du. Urte bereko ekainean Zuzendaritza horrek Sail propioa eratu du (Kultura eta Turismo Saila sortzeko ekainaren 17ko 31/2003 Foru Legea, NAO, 76. zk., 2003/06/18). Zernahi gisaz, 2003ko aurrekontua Hezkuntza Sailaren emaitzan jaso da.

an jasotako KPI ofizialak erabili dira, eta erreferentzia gisa 2000. urteko moneta-balioa erabili da, 281. taulan ikus dezakezuen bezala.

Datu orokor horien ostean, aurrekontuen informazioa 8.2.1 eta 8.2.6 arteko azpiegiraftan azaldu da, horietako bakoitza azaltzeko irizpideen arabera.

Azkenik, 8.2.7 epigrafean aurreko lerrokadan aipatutako epigrafe bakoitzaren gastu osoa jaso da eta sistemaren bilakaera ulertzeko indize esanguratsuenak azpimarratu dira.

Urte horietan, Hezkuntza-arloko aurrekontuaren egitura ez da asko aldatu. Horrela, 00, 10, 20 eta 30. programei eutsi zaie, jarraian deskribatutako helburu orokorrekin batera, eta oinarri gisa 2000. urtea hartu da.

Bada, 00. programaren kasuan, Sailaren hezkuntza-eremuan biltzen diren osagai pertsonal, tekniko eta material guztiak antolatu eta koordinatu nahi izan dira, horren jarduera orokorra eta zerbitzu orokorrak kudeatuz eta gidatuz. Horren bidez gainerako programei atxikitzea zailak diren Saileko funtzionamenduari buruzko gastu orokorrak finantzatzen dira. Programa horren zati txiki bat, beraz, 43 programari atxiki ahal izango lekiok (Unibertsitate-irakaskuntzak eta Ikerketa eta Hizkuntza Politika), eta 2000, 2001, 2002 eta 2003. urteak Kulturaren Zuzendaritza Nagusiaren programei atxiki ahal izango lekiok. Hain zuzen ere, gastu orokorren %10 hezkuntza-arloko programa ezberdinei atxiki ahal izango zaie³⁷⁰. Txosten horretan, atxikipen hori ez da kontuan izan, balio ekonomiko urria duelako eta %10 baino zehaztapen handiagoa behar duen aldaera ezartzeagatik, betiere joera gora-korrarekin kalkulata, 10, 20 eta 30. programen aurrekontuei eta 42, 50, 51 eta 52. programen aurrekontuei begira (2004. urtea baino lehen), eta 42. programa urte honetatik aurrera.

Programa horretan I. kapituluari aldi baterako kontratatutako langileen atalean ezarritako gastuak jaso dira, bai eta ordezpenak egiteko kontratatuen atalean (zuzeneko irakaskuntza-jarduerarekin lotuta daudenak), irakaskuntza arruntarekin zuzeneko loturarik ez duten bestelako jarduerarekin zerikusia duten kanpainen atalean eta horiei guztiei atxikitako gizarte segurantzaren ordainketaren atalean ezarritakoak ere.

Bestalde, 10. programaren kasuan, hezkuntza-sistemaren maila guztietako irakaskuntzaren kalitatea hobetu nahi da, bai sare publikoak bai gizarte-ekimeneko ikastetxeen sarekoak ere. Horrez gain, guztiok hezkuntza-arloko ondasunak auke-berdintasunaren printzipioa aplikatzen da. Inbertsioen kapituluari ikastetxe publikoetako ekipamenduak eta eskolatzearen baldintza materialak hobetu nahi dira, toki-erakundearen jabetzapeko ikastetxei edo itunpeko ikastetxeetako titularrei

³⁷⁰ Ehunekoa 2000-2003 epealdiko gastu orokorrei buruzkoa da. Urte horretatik aurrera atxikipena txikiagoa izango da, Kulturaren Zuzendaritza Orokorraren aurrekontua Kultura Sailean jasotzeagatik.

egindako transferentzien bidez³⁷¹. Programa horretan, derrigorrezko irakaskuntza osorik edo zati batean doan emateko helburua azpimarratzen da, Batxilergoan, Erdi edo Goi Mailako Prestakuntza-zikloetan eta Haur Hezkuntzako 2. zikloan. Halaber, 2004/2005 ikasturtetik aurrera, Bigarren Hezkuntzan urritasun psikikoak dituzten ikasleen Hezkuntza Berezirako unitate bereziak hitzartu dira. Gainera, ikaslea sustatu eta berari laguntzeko ekintzak diseinatu dira, batez ere, ekonomia-egoera ahuleko familien ikasleei bekak edo diru-laguntzak eskainiz eta Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikasleen garraio- eta jantoki-programak bultzatuz.

20, 21 eta 21. programei dagokienez, 2000. urteko aurrekontuan, "Hezkuntza-programen garapena unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan" izenekoa soilik konfiguratu zen. 2001. urtean, programa hori beste hiru azpiprogrametan zatitzen da: "Lanbide Heziketaren garapena" (20); "Hezkuntza-berrikuntza, hezkuntza-sustapena eta irakasleen prestakuntza" (21) eta "Araubide bereziko irakaskuntzen eta teknologia berrien sustapena" (22).

2004.ko aurrekontuan beste bi programa konfiguratu dira, "Aniztasunari arreta ematea" (23) eta "Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta kalitatea" (24), eta 21 eta 22. programak bat egin dira, 22. programa berria sortuz: "Hezkuntza-sistemaren plangintza eta garapena".

Hori dela bide, 20. programan, lanbide heziketaren garapena jorratzen da. Programa horren helburua hasierako lanbide heziketa lanbide heziketa osoaren ikuspuntutik garatzea da. Hiru jarduketaren eremu zehazten dira. Lehendabizi, enpresa, prestakuntza eta enplegua; bigarrenez, kalitatearen hobekuntza, eta, amaitzeko, lanbide heziketaren eredu berria: lanbide heziketa osoa. Lehenengo eremuan ogibide ezberdinen prestakuntzen eskariari aurre egin nahi zaio, hots, enpresa txiki eta ertainen lanbide heziketaren eskari zehatzak betetzen dira, balio anitzeko prestakuntzak lortzeko. Gainera, enpresek prestakuntzan gero eta parte-hartze handiagoa izango dute; ekoizpen-sektorean eskatutako prestakuntzak definitu eta garatzeko koordinazioa garatu eta lankidetzan jardungo dute; lantokiko prestakuntza bultzatu eta hobetuko da.

Bigarren eremuari dagokionez, lanbide heziketa enpleguaren politika aktiboekin eta pertsonen lanbide heziketarekin antolatzen da. Ondore horretarako, lanbide heziketaren eskaintzak ekoizpen-inguruneko beharrezanetara eta prestakuntzaren gizarte-eskaintzara egokitu dira. Berebat, tituluak egokituko dira eta prestakuntza-eskaintza aplikatuko da. Bestalde, tituluaren eskaintza hedatzen da eta energia berri-eremuen zentro osoaren garapena osatzen da, irakasleen prestakuntza sustatzen da eta laguntza-materialak nahiz lanbide heziketa Europa mailan bultzatuko dira.

³⁷¹ Haur Hezkuntzako (0-3 urte) lehenengo zikloko ikastetxeak eraikitzeko plana ere jaso da.

Hirugarren eremua lanbide heziketen egiturei buruzkoa da. Kasu horretan, hasierako eta etengabeko lanbide heziketan Industria Sailarekin, enpresa-elkarteekin eta sindikatuarekin izan beharreko lankidetzak bultzatzen da. 2001eko lanbide heziketari buruzko Nafarroako plana garatu behar da, eta Nafarroako lanbide heziketa kualifikatu eta prestatzeko nazioko sistema abian jarri behar da, bereziki, energiaren eta uraren sektoreari dagokienez. Amaitzeko, lanbide heziketako ikastetxeen ebaluazio-sistemen diseinua aurreikusi da, lanbide-esperientzia aintzat hartzeko eta LHko gizarte-beharrizanetara egokitutako lanbideari buruzko informazio- eta orientabide-sistema garatu da.

“Hezkuntza-sistemaren plangintza eta garapena” (22) programan araubide orokor eta bereziko irakaskuntzen garapena azpimarratzen da. Atal horretan, laguntza-orientabideak eta -materialak, irakasleen kualifikazioa eta prestakuntza, berrikuntza eta ikerketa, eskolako orientabidea, hezkuntza-gaiei buruzko argitalpenak, hizkuntzen irakaskuntzen garapena eta hobekuntza, irakaskuntza artistikoak (bereziki musikakoa), teknologia berriak hezkuntza-arloan duten integrazioa eta eskola kudeatzeko sistema zentralizatuen ezarpena biltzen dira.

“Aniztasunari arreta ematea” (23) programan araubide orokorreko irakaskuntzak jasotzen dira. Haur eta Lehen Hezkuntzako aniztasunari arreta emateko neurri arrunten funtzionamendua sendotu nahi da. Hezkuntza-beharrizan zehatzak jorratzen dira hezkuntza-beharrizan bereziak ez dituzten ikasleei arreta emateko helburuarekin, HBB jasaten dituzten pertsonak barne, horien artean, urritasun psikikoa, zentzumen-urritasuna edo mugimendu-urritasuna dutenak. Aparteko hornidura ere kontuan hartzen da. Ezin ditugu ahaztu etorkinak, gizarte-egoera ahuleko biztanleak, eskolako porrota murriztu ahal izateko. Beste sailekin eta erakundeekin lankidetzak eta parte-hartzea bilatu nahi da, Hezkuntza Beharrizan Bereziak dituzten ikasleei eman beharreko arreta hobetu dadin, bereziki, ezgaiak, etorkinak eta egoera ahuleko gutxiengoak. Pertsona helduak ere programa honetan arreta berezia jarri zaie.

“Hezkuntza-sistemaren ebaluazioa eta kalitatea”(24) programaren kasuan, garapena Ikuskapen Zerbitzuak burutuko da. Xedea ikuskatzaileak prestatzeaz gain, ikastetxeak ebaluatzeko programak, irakasleen programak, ikasleak eta agiriak prestatzea da.

Oro har, 30. programan irakaskuntza arruntan eta euskararen irakaskuntzan laguntza emateko zerbitzuak nabarmentzen dira. Irakaskuntza-jarduera gisa 00, 10, 20, eta, hala denean, 22, 23 eta 24. programetan babestuta ageri da. Izan ere, ekintzak ez dira desberdintzen gainerako irakaskuntzen hizkuntzen arabera. Beraz, hizkuntza birziklatzeko, irakasleen prestakuntza, aholkularitza pedagogikoa, euskara sustatzeko jarduerak eta helduak euskalduntzeko ekintza bereziak jaso dira, baita Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Legean eta hori garatzen duten arauetan babestutako diru-laguntza mota ezberdinak ere. Euskarako ikasgaien curriculumen garapen sustatu eta hizkuntza-eskumen mailak homologatu dira.

2005eko aurrekontuan, 30. programa 21. programa bezala kalifikatu da. Hala ere, txostena tauletan errazago irakur dadin, gordailuak 30. programan jaso dira. Ondorenez, 2004 eta 2005eko 21. programaren laukia hutsik ageri da.

I. kapituluaren langileen gastuak jaso dira; II. kapituluaren administrazioaren funtzionamendu arrunta deskribatzen da; IV. kapituluaren gastu arruntetarako hirugarrenei egindako transferentziak ageri dira; VI. kapituluaren administrazioaren inbertsio proiektuak azaltzen dira eta VII. kapituluaren inbertsio-gastuetarako hirugarrenei egindako transferentziak zehaztu dira.

23 I. taula


Nafarroako Aurrekontu Orokorrek Hezkuntzan, eskolako irakaskuntzetan, exekutututako gastu publikoaren zerrenda (mila euro arruntetan)

Urteak	Gastu osoa Nafarroako Gobernua	Gastu osoa Hezkuntza	Aurreko urteari begira gertatutako hazkundera	% Gobernuaren gastu osoari begira
2000	2.281.626	311.978	10,32	13,67
2002	2.565.790	356.771	6,06	13,90
2003	2.688.511	380.645	6,69	14,15
2004	2.808.133	402.081	5,63	14,31
2005	3.148.222	424.597	5,59	13,48
2006 (hasiera)	3.310.372	450.554	6,11	13,61


Iturria: garapen propioa.

Hezkuntza-gastuaren ehunekoari eutsi egin zaio Nafarroako aurrekontu orokor guztiari begira, baina azken bi urteetan aipatu epealdian jaitxi egin da. (LK sindikatuetak proposatuta jasotako testua).

Eskolako irakaskuntzetan exekutututako gastu publikoaren aurrekontua eta Nafarroako Gobernuak exekutututako gastu osoa



Hezkuntza Sailaren gastuaren aurrekontuan jasotako urteko hazkundeak eta gastu horrek Gobernuaren gastu osoarekin duen lotura



1999. urtean, hezkuntzan exekutututako aurrekontua 293.809 mila eurokoa izan da. Kasu horretan, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Sailak ekarritako 0-3 urte bitartekoen gastua eta legezko gabe dauden ikastolen finantzaketa eta Planetario-ko nahiz unibertsitateko partidak kanpoan utzi dira. 2006ko aurrekontuan partida hori Hezkuntza Saileko aurrekontuan jaso da.

232. taula

Hezkuntzari buruzko bestelako alderatze-datuak - (milioi euro arruntetan)

	1991	2000	2003	2004	2005
Nazioko BPG	-	609.734	744.754	798.672	-
Nafarroako BPG ³⁷²	5.460	10.345	12.555	13.544	15.472
Nafarroako biztanleria ³⁷³	520.217	543.757	578.210	584.734	593.472
Unibertsitatekoa ez diren eskolako ikasleak ³⁷⁴	105.804	81.794	83.332	84.937	86.030
Unibertsitatekoa ez den gastu nazionala ³⁷⁵	21.578 ³⁷⁶	34.286	41.384	43.629	46.629
Unibertsitatekoa ez den gastua Nafarroan ³⁷⁷	182.253	311.980	380.645	402.081	424.597
Ikasle eta urte bakoitzeko gastua Nafarroan	1.723	3.814	4.568	4.734	4.936

Iturria: garapen propioa.

233. taula

Hezkuntzari buruzko bestelako alderatze-datuak (milioi euro finkoetan)³⁷⁸

	1991	2000	2003	2004	2005
Nazioko BPG	-	425.792	474.668	500.108	-
Nafarroako BPG	5.460	7.244	8.002	8.481	9.377

³⁷² Aurrezki Kutxen Funtsetik eta ElNetik jasotako datuak.

³⁷³ Urtarrilaren 1eko errolda ofiziala.

³⁷⁴ Nafarroako hezkuntza-estatistikatik jasota.

³⁷⁵ Finkatutako gastu osoa, sektore publikoaren eta familien arteko transferentziak ezabatuta.

³⁷⁶ 1991. urteko datua. Iturria: Estatuko Eskola Kontseilua: Hezkuntza-sistemaren txostena, 1991-1992 ikasturtea

³⁷⁷ Mila eurotan

³⁷⁸ Euro arruntak euro finkoetara pasatzeko Nafarroan jasotako KPI ofizialak erabili dira, kapituluaren 275. taulan jaso direnak. 1991. urtea erreferentzia-urtea da.

	1991	2000	2003	2004	2005
Nafarroako biztanleria ³⁷⁹	520.217	543.757	578.210	584.734	593.472
Unibertsitatekoa ez diren eskolako ikasleak	105.804	81.794	83.332	84.937	86.030
Unibertsitatekoa ez den gastu nazionala	21.578	23.943	23.376	27.319	28.260
Unibertsitatekoa ez den gastua Nafarroan	182.253	217.863	242.604	251.772	257.332
Ikasle eta urte bakoitzeko gastua Nafarroan	1.723	2.664	2.911	2.964	2.991

Iturria: garapen propioa.

Azken hamabost urteetan ikasle bakoitzak urtean sortu duen hezkuntza-gastua Nafarroan %74 gehitu da, hau da, urtean 4,93 puntu.

Egia esan, 1991 eta 2004. urteen artean ikasle bakoitzak Nafarroan urtean sortu duen hezkuntza-gastuaren hazkundea (%69,96) azpimarratu behar da. Gastu hori eskolako ikasleen jaitsieraren (%8,03) eta bestelako esfortzuen (langileak, gastu arruntak eta inbertsio propioa) ondoriozkoa da, ondorengo tauletan ikus daitekeen bezala. Bada, 2004. urtean joera gorakor hori hautsi zen, eta alderantzizkoa gertatzen da, ikasle bakoitzak sortzen duen gastua %1,15 areagotu da.

9.2.1.1. Aurrekontu orokorren datuak

Aurrerago azaldu ditugun tauletan Nafarroako Gobernuak exekutututako gastu osoaren aurrekontuen bilakaera erakutsi dugu, bai eta Nafarroako hezkuntza-sistemarekin lotuta dagoen Hezkuntza Sailak exekutututako gastu osoari buruzkoa ere, Parlamentuak onetsitako Nafarroako kontu orokorretan jasotakoari helduta.

Hezkuntza-arloko aurrekontuak programen eta kapitulu ekonomikoen arabera bereizita ageri dira. Azken kasu horretan, gainera, programen arabera zatitzen dira. Horrez gain, txosten honetan jasotako ekintzen eta programen gain eraginik ez duten zenbait aurrekontu-gordailu ezabatu dira. Gordailu horiek ez dira zenbatu gastu publikoen barruan. Halaber, IV. kapituluaren (transferentzia arruntak) kasuan, Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusian kokatuta dauden baimendu gabeko ikastolei emandako diru-laguntzen partidak bildu dira (42. programa), bai eta Gizarte Ongizate Sailak haur hezkuntzako irakaskuntzak antolatzeke erabilitakoak ere (70. programa), 2006ko aurrekontua eratu arte. Izatez, urte horretan Hezkuntza Sailaren barruan jasoko da.

Tauletan indize hauek jaso dira:

Gob/Gob00: Kasuan kasuko urteko Gobernuaren (Gob) aurrekontu osoa erreferentzia-urteko (2000. urtea) Gobernuaren aurrekontu osoari begira (Gob 00).

Sai/Sai00: Kasuan kasuko sailaren (Sai) aurrekontu osoa erreferentzia-urteko (2000. urtea) Sailaren aurrekontu osoari begira (Sai 00).

³⁷⁹ Urtarrilaren 1eko errolda ofiziala.

Sai I/Sai I 00: Kasuan kasuko sailaren (Sai) aurrekontu-gastuaren kapitulu bakoitze-ko aurrekontua (Sai I, Sai II, Sai IV, Sai VI eta Sai VII) erreferentzia-urteko (2000. urtea) Sailaren aurrekontuaren kapitulu bakoitzaren aurrekontu osoari begira (Sai I 00, Sai II 00, Sai IV 00, Sai VI 00 eta Sai VII 00).

Sai/Gob: Kasuan kasuko Sailaren aurrekontu osoa (Sai) urte bereko gobernuaren aurrekontu osoari begira (Gob).

Sai I/Sai: Kasuan kasuko Saileko kapitulu bakoitzaren aurrekontu osoa (Sai I, Sai II, Sai IV, Sai VI, Sai VII) urte bereko Sailaren aurrekontu osoari begira (Sai).

Taula horien bidez zifra bakoitzaren bilakaera ikus dezakegu 2000. urteari begira. Gainera, Sailaren aurrekontu osoaren pisu zehatza azalduko da, gobernuaren aurrekontu osoari dagokionez, bai eta Sailaren aurrekontuaren kapitulu bakoitzean sortutakoa Sail horri begira ere.

Kasuan kasuko urte horien arteko gastua alderatzeko, 30. programa, aurrekontu bakoitzean jasotako zenbaketa zehatza edozein izanda ere, Euskara Zerbitzuko euskara-programa zehatza da. Halaber, 42. programan legezkotu gabe dauden ikas-
toleiei emandako diru-laguntzak jasotzen dira eta 70. programan 0-3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko diru-laguntzak zehatza dira.

2006ko aurrekontuan gastuaren kontzeptu hori 10. programan jaso da.

234. taula


Hezkuntza Sailak exekutututako aurrekontuen bilakaera (mila euro arruntetan)

Ikasturteak Kapitulua	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
	2000	2003	2004	2005	2006
I	193.921	235.926	253.860	269.826	279.510
II	22.477	26.140	29.076	30.680	32.717
IV	78.855	98.705	101.748	108.816	118.638
VI	13.818	14.000	14.499	12.687	17.052
VII	2.909	5.874	2.899	2.588	2.637
Guztira	311.980	380.645	402.082	424.597	450.554
Programak	2000	2003	2004	2005	2006
0	191.368	232.796	249.186	264.208	273.223
10	110.327	130.740	128.014	136.598	158.265
20	6.885	3.116	4.534	2.825	3.520
21	0	2.625	0	0	0
22	0	3.536	6.920	5.202	6.094
23	0	0	3.964	4.114	4.676
24	0	0	1.429	1.470	1.650
30	1.674	1.671	1.637	1.214	1.368
42	1.642	1.344	1.201	1.476	1.758
70	82	4.817	5.196	7.490	0
Guztira	311.978	380.645	402.081	424.597	450.554
Gobernua guztira	2.281.626	2.688.511	2.808.133	3.148.222	3.310.372

235. taula

Hezkuntza Sailak exekututako aurrekontuen bilakaera (mila euro finkoetan)

Ikasturteak Kapitulua	1999/2000 2000	2002/2003 2003	2003/2004 2004	2004/2005 2005	2005/2006 2006
I	193.921	212.355	222.684	229.054	230.239
II	22.477	23.528	25.505	26.044	26.950
IV	78.855	88.843	89.253	92.374	97.725
VI	13.818	12.601	12.718	10.770	14.046
VII	2.909	5.287	2.543	2.197	2.172
Guztira	311.980	342.615	352.704	360.439	371.132
Programak	2000	2003	2004	2005	2006
0	191.368	209.537	218.584	224.285	225.060
10	110.327	117.678	112.293	115.958	130.367
20	6.885	2.805	3.977	2.398	2.900
21	0	2.363	0	0	0
22	0	3.183	6.070	4.416	5.020
23	0	0	3.477	3.492	3.852
24	0	0	1.254	1.248	1.359
30	1.674	1.504	1.436	1.031	1.127
42	1.642	1.210	1.054	1.253	1.448
70	82	4.336	4.558	6.358	0
Guztira	311.978	342.615	352.703	360.439	371.132
Gobernua guztira	2.281.626	2.419.902	2.463.275	2.672.514	2.726.830

Herkuntza Sailean exekututako aurrekontuen bilakaera
(mila euro finkoetan)

Cuadro nº 236

Programen arabera berezita dauden kapituluaren aurrekontuen exekuzioaren bilakaera (mila euro arruntetan)

Ikasturteak	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
I. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	190.254	231.488	248.117	262.836	271.505
10	853	941	940	2.080	2.342
20	2.436	1.267	829	784	897
21	0	1.063	0	0	0
22	0	688	1.745	1.789	2.094

Ikasturteak	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
I. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
23	0	0	437	473	575
24	0	0	1.336	1.383	1.527
30	378	479	456	481	570
Guztira	193.921	235.926	253.860	269.826	279.510
II. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	1.102	1.116	1.016	1.318	1.718
10	18.456	21.650	23.583	25.146	26.357
20	2.458	873	823	855	1.020
21	0	1.066	0	0	0
22	0	964	2.835	2.621	2.860
23	0	0	269	268	242
24	0	0	93	87	123
30	461	471	457	385	397
Guztira	22.477	26.140	29.076	30.680	32.717
IV. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	0	49	46	44	0
10	74.949	89.404	89.733	94.835	111.294
20	1.347	925	837	685	696
21	0	422	0	0	0
22	0	1.023	753	572	635
23	0	0	3.258	3.366	3.854
30	835	721	724	348	0
42	1.642	1.344	1.201	1.476	401
70	82	4.817	5.196	7.490	1.758
Guztira	78.855	98.705	101.748	108.816	118.638
VI. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	12	143	7	10	0
10	13.161	12.871	10.860	11.949	15.635
20	645	51	2.045	501	907
21	0	74	0	0	0
22	0	861	1.587	220	505
23	0	0	0	7	5
Guztira	13.818	14.000	14.499	12.687	17.052
VII. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
10	2.909	5.874	2.899	2.588	2.637
Guztira	2.909	5.874	2.899	2.588	2.637

237. taula

Programen arabera berezita dauden kapituluen aurrekontuen exekuzioaren bilakaera - (mila euro finkoetan)

Ikasturteak	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
I. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	190.254	208.360	217.646	223.121	223.645
10	853	847	825	1.766	1.929
20	2.436	1.140	727	666	739
21	0	957	0	0	0
22	0	619	1.531	1.519	1.725
23	0	0	383	402	474
24	0	0	1.172	1.174	1.258
30	378	431	400	408	470
Guztira	193.921	212.355	222.684	229.054	230.239


Ikasturteak	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
II. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	1.102	1.005	891	1.119	1.415
10	18.456	19.487	20.687	21.346	21.711
20	2.458	786	722	726	840
21	0	959	0	0	0
22	0	868	2.487	2.225	2.356
23	0	0	236	228	199
24	0	0	82	74	101
30	461	424	401	327	327
Guztira	22.477	23.528	25.505	26.044	26.950
IV. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	0	44	40	37	0
10	74.949	80.472	78.713	80.505	91.675
20	1.347	833	734	581	573
21	0	380	661	0	0
22	0	921	2.858	486	523
23	0	0	#jREF!	2.857	3.175
30	835	649	635	295	0
42	1.642	1.210	1.054	1.253	330
70	82	4.336	4.558	6.358	1.448
Guztira	78.855	88.843	89.253	92.374	97.725
VI. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
0	12	129	6	8	0
10	13.161	11.585	9.526	10.143	12.879
20	645	46	1.794	425	747
21	0	67	0	0	0
22	0	775	1.392	187	416
23	0	0	0	6	4
Guztira	13.818	12.601	12.718	10.770	14.046
VII. kapitulua	2000	2003	2004	2005	2006
10	2.909	5.287	2.543	2.197	2.172
Guztira	2.909	5.287	2.543	2.197	2.172

238. taula

Sailaren urteko aurrekontu osoaren eta bere kapituluaren bilakaera Gobernuaren eta Hezkuntza Sailaren aurrekontu osoari begira, hurrenez hurren (euro arruntetan)

Ikasturteak	1999/2000	2000/2001	2001/2002	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
Aurrekontua	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Gob/Gob 00	1,000	1,025	1,059	1,095	1,148	1,181	1,187
Sai/Sai 00	1,000	1,032	1,070	1,098	1,131	1,155	1,190
I. Sai/I. Sai 00	1,000	1,025	1,059	1,095	1,148	1,181	1,187
II. Sai/II. Sai 00	1,000	1,012	1,053	1,047	1,135	1,159	1,199
IV. Sai/IV. Sai 00	1,000	1,039	1,098	1,127	1,132	1,171	1,239
VI. Sai/VI. Sai 00	1,000	1,131	0,913	0,912	0,920	0,779	1,017
VII. Sai/VII. Sai 00	1,000	1,037	1,896	1,818	0,874	0,755	0,747

Sailaren urteko aurrekontu osoaren eta bere kapituluaren bilakaera Gobernuaren eta Herkuntza Sailaren aurrekontu osoari begira, hurrenez hurren



239. taula

Sailaren eta bere kapituluaren aurrekontu osoaren pisua Gobernuaren eta Hezkuntza Sailaren aurrekontu osoari begira, hurrenez hurren (euro finkoetan)

Ikasturteak	1999/2000	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006
Aurrekontua	2000	2003	2004	2005	2006
Sai/ Gob	0,137	0,142	0,143	0,135	0,136
I.Sai/ Sai	0,622	0,620	0,631	0,635	0,620
II.Sai/ Sai	0,072	0,069	0,072	0,072	0,073
IV.Sai/ Sai	0,253	0,259	0,253	0,256	0,263
VI.Sai/ Sai	0,044	0,037	0,036	0,030	0,038
VII.Sai/ Sai	0,009	0,015	0,007	0,006	0,006
Guztira	1,000	1,000	1,000	1,000	1,000

2000. urtearen eta 2005. urtearen (exekututako azken aurrekontua) arteko alderatzea egin da. 2006ko aurrekontua hasierakoa da soilik eta izaera adierazlea du.

Sailaren aurrekontua neurri txikiagoan gehitu da (2,20 puntu gutxiago) azken 6 urteetan Gobernuan gehitu den zenbatekoarekin erkatuta. Zio hori dela medio, Gobernuari begira Sailaren aurrekontuak duen pisua milesima bat jaitsi da. Sailaren aurrekontua balio finkoetan 19,5 puntu areagotu da.

2000. urteari begira gertatutako aurrekontuaren hazkundearen kasuan, I, II eta IV. kapituluetan jasotakoak azpimarratu behar dira, %18, %16 eta %17, hain zuzen. Hala ere, VI eta VII. kapituluetak aurrekontua 22,1 eta 24,5 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Aldi berean, Sailaren urteko aurrekontuaren barruan, I. kapituluaren aurrekontuaren pisua azken bost urteetan 13 milesima gehitu da. Halaber, II. kapituluari eutsi egin zaio eta IV. kapituluaren pisua 3 milesima gehitu da, VI. kapituluaren 14 puntu eta VII. kapituluaren 3 puntu jaitsi den bitartean.

240. taula

Eskolako irakaskuntzen hezkuntza-gastuan exekutatutako aurrekontuaren bilakaera 1991, 2001 eta 2005. urteen artean (mila euro arruntetan)


	1991	2001	2005
1. Langileen gastua.	105.486	206.893	269.826
% aurrekontu osoari begira	%58,31	%61,71	%63,55
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,96	2,56
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.	12.940	23.689	30.680
% aurrekontu osoari begira	%7,15	%7,07	%7,23
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,83	2,37
4. Transferentziak.	50.630	85.282	108.816
% aurrekontu osoari begira	%27,99	%25,44	%25,63
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,68	2,15
6. Kapital-inbertsioak.	6.719	16.275	12.687
% aurrekontu osoari begira	%3,71	%4,85	%2,99
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	2,42	1,89
7. Kapital-transferentziak.	5.131	3.141	2.588
% aurrekontu osoari begira	%2,84	%0,93	%0,61
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	0,61	0,50
Unibertsitatekoa ez den hezkuntza guztira	180.896	335.283	424.597
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,85	2,35

241. taula

Eskolako irakaskuntzen hezkuntza-gastuan exekutatutako aurrekontuaren bilakaera 1991, 2001 eta 2005. urteen artean (mila euro finkoetan)

	1991	2001	2005
1. Langileen gastua.	105.486	144.508	163.543
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,37	1,55
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan.	12.940	16.546	18.595
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,28	1,44
4. Transferentziak.	50.630	59.569	65.954
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,18	1,3
6. Kapital-inbertsioak.	6.719	11.368	7.690
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,69	1,14
7. Kapital-transferentziak.	5.131	2.194	1.569
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	0,43	0,31
Unibertsitatekoa ez den hezkuntza guztira	180.896	234.184	257.350
Hazkundera 1991. urteari begira	1,00	1,29	1,42

Eskolako irakaskuntzen hezkuntza-gastuan exekutututako aurrekontuaren bilakaera, 1991, 2001 eta 2005. urteen artean (mila euro finkoetan)



2001-2005 epealdia abiapuntutzat hartuz gero (goiko taularen bigarren zatia), exekutututako gastu osoa %11 gehitu dela ikus dezakegu (euro finkoetan, 234.184 eurotik 257.350 eurora). Ikasleen gehikuntza gutxi gorabehera %10ekoa izan da (ikus 119. taula, gutxi gorabeherako datua, 2001. urtea ez baita ageri). Azken batean, eskolako irakaskuntzen gastua (publikoa eta itunpekoa) azken bost urteetan modu nabarian gehitu da, Nafarroako BPG gehitu arren (ikus 223. taula), bai eta hezkuntza-beharrizan berriak sortu arren ere. Izatez, hezkuntza-gastuaren proportzioa Nafarroako Gobernuaren aurrekontuei dagokienez epealdian zehar gutxitu egin da (231. taula). (*LK sindikatuak proposatuta jasotako testua*).

Azken hamabost urteetan (1991-2005) hezkuntza-gastua %42 gehitu da moneta finkoan. Hazkunderik nabarmenena langileen atalean gertatu da (%55), eta horren ostean gastu arruntan atala kokatzen da (%44). Inbertsio propioak %14 gehitu dira eta hirugarrenei egindako transferentziak aurrekontu orokorraren hazkunderaren azpitik kokatzen dira, %69ko jaitsierarekin.

9.2.1.2. Hezkuntza Administrazioaren gastuen aurrekontu orokorrak

